

## HITZAURREA

Urte luzetan nagusi ibili da Rousseau “gainditua” zegoela esaten zuen halako moda intelektual bat. Zaharkilo bat omen zen, kaltegarria gainera, mende hark utzitako ia dena bezala, zeren giza arrazoiari lehentasuna eman nahi izatearen, gizartea oinarri autonomotan (eta ez heteronomotan legitimazioaren aurreko ideologiek egin zutenez) errotu nahi izatearen eta giza eskubideen aitortzei bizia eman izatearen ausardia izan baitzuen.

Azarea baino zerbait gehiago da gorakada hori europar faxismoarenarekin bat etortzea. Egia da inoiz ez zirela falta izan, gizarte-atzerapeneko unetan, Rousseau deskreditatzeko ahaleginean, uneko inkisizio espiritualen egitekoak errazten zituztenak. Hori izan zen Sainte-Beuveren kasua, 1848ko ekaineko egun larrietan Parisko langileak azpiratuak izan ondoren; eta Tainerena, Komunaren erauntsiarengatik artean dardaratan baitzegoen. Halaber, ez da harritzeko ere Maurrasek “energumeno judutartzat” tratatzea, eta 1924an eliz hierarkiakide garrantzitsu batek esatea “Voltaire eta entziklopedista guztien biraoek baino kalte handiagoa egin ziola Frantziari”. Baina faxismoak deuseztatu egin nahi izan zuen estatu demokratikoaren ideologia legitimatzailea; faxismoak gizakia botere heteronomo baten menpe egon zedin behar zuen, menpeko izan zedin eta ez hiritar. Zalantzarik ez dago borondate orokorraren ideiak eragiketa hipostatiko bat burutzen duela gehiengoaren borondate gorputz subiranoa eratzen duen multzoarena dela ezartzean; baina totalitarismoak askozaz hipostatizazio handiago batez ordeztu beharra zeukan, zeinean karismarengatik hautaturiko pertsonak osotasunaren atribuzioak bereganatu eta berorrek inoiz identifikatzen zen. Neurri batean absolutismo frantsesak ordurako aldarrikatu zuen hipostatizazio handia “L’Etat c’est Moi”, hain zuzen Rousseau, Montesquieu eta abarren obrak birrindu zutena.

Izan da, beraz, gure mende honetako aldi bat “begi onez” ikusten ez zuena, nahiz eta zentzu kritikoz izan Jean Jacques Rousseauen ondare politiko eta ideologikoa jasotzea. Ez zen moda “errugabea”; genebatarren gaitzespen intelektualaren ondoren, suntsiketa-zelaietako sugar lazgarriak altxa ziren; besoa goian dela Rousseauen liburuak erretzetik hasten da eta gehiengoaren kontra arrazoi izan nahi dutenen berritsukeria barrokoak baino elkarbizitza antolatzeke nahimen orokorra askozaz baliagarri eta moralago izan daitekeela seinalatzera ausartzen direnak heriotzara bidaltzeaz bukatzen da.

Gizarte Hitzarmena-ren gai nagusia, ez gehiago eta ez gutxiago, legitimitate demokratikoaren oinarritapena da. Jakina, gaia ez da horretan agortzen, eta berorren ikerketa ezin daiteke jaiotzen ikusi zuen aldi historikoaz aparte egin, baina bere ideia-gakoa gizarte zibilaren kontzeptua eratzea da, Estatu kontzeptutik hura bereizi eta azken hau haren menpe jartzearena.

Russoniar kontzepzioa gizarte modernoaren egitura dualista aitortzetik abiatzen da, zeinean erabaki-lehentasuna “gorputz subiranoa” eratzen duen herriari dagokion.

Rousseuaren gizarte-hitzarmena ez da inoiz hipotesi historiko bat izan, eta ez du izateko asmorik ere inoiz izan; oinarritapen teoriko bat da. Legitimitatea arrazoian oinarritu nahi dela obraren lehen kapitulutik argi eta garbi gelditzen da. Rousseauk aitortzen du bertan ez dakiela gizakiak nola galdu zuen naturako egoeran zuen lehen askatasun hura.

Aitzitik, dio aldaketa hori –naturako egoeratik gizarte zibilerakoa-- zerk legitima dezakeen ebatzi ahal izateko gai jaiotzen duela bere burua. Indarra ez da gertatzezko egintza besterik legitimaziorik ez badu. Nola bihurtzen da indarra eskubide legitimaziorik ez badu. Nola bihurtzen da indarra eskubide eta onartzen da borondatez, eta ez gainezarpenez? Horretan datza legitimazioa. “Indartsuena – dio Rousseauk I liburuaren III kapituluaren-- ez da inoiz behar beste indartsu beti nagusi izateko (pour être toujours le maître), bere indarra eskubide bihurtzen ez badu eta obedientzia betebeharrak.” Horra hor legitimazio-prozesu osoa.

Rousseau gizarte zibilaren eraikinak bermetzat izango duen gangadura-gakoaren bila dabil. “Herri bat halako herri bihurtzen duen egintza da”. Grotiusen arabera Rousseauk dio “herria herri da erregea izan baino lehen”. Erregea izatearen egintzak ageriko deliberamendu bat suposatzen du: gizarte zibil baten erakuntza, hau da, gizarte-gorputz subiranoarena. Rousseauaren arabera gizakia egintza horretara itun edo hitzarmenaren, hartan partaide direnen aho batezko onarpena eskatzen duen bakarraren bitartez.

Hitzarmen horren bitartez nork bere pertsona eta bere ahalmenak guztien elkartzetik sortutako gorputz moral eta kolektibo batetik datorren nahimen orokor baten eskura jartzen ditu.

Rousseauk VI kapituluaren komunitate eta elkarte terminoak erabiltzetik hasten da, baina nahimen orokor terminoa gero eta nagusikiago agertzen da eta, horregatik, erabakigarri bihurtzen. Badakigu nahimen orokorra ez dela banakako borondateen batura, ezta gizarte-gorputzaren baterako nahimen berez eta bere buruaren aurrean definitu eta interpretatzeko (iturri jainkotiar edo gizatiarrek) baimendurik dagoela uste duen buruzagi edo elite baten nahimen ere.

Naturako egoera primarioa ukatzean goragoko unitate dialektiko bat sortzeak (gizarte zibilak, gorputz subiranoak, zeinak goragoko maila batean naturako egoerako askatasunak baieztatzen dituen, ukatuak lehenik, eta goragoko maila batean baieztatuak, zuzenbideak babestuen gero) diferentziatzen ditu Rousseauaren gizarte-hitzarmena eta aurretik etorri ziren beste batzuk: Hobbesena, guztiek gizaki bakar baten edo biltzar baten botere absolutuaren alde egiten duten dimisioa da (totalitarismoek atseginez gogorarazten duten tradizioa); Lockerenak, nahiz eta banakakoaren eskubideak bermatu, alderdi biren arteko kontratua suposatzen du, zeinaren bitartez partikularrek beren ahalmenak gizaki bati edo giza talde bati lagatzen dizkioten. Rousseauentzat oin berriko sorkuntza da aurreko estratoak ukatzearen ondorioz: naturako egoera askatasun primarioekin; egitez banakoaren eskubideen erabateko alienazioa; gizarte-gorputz berri bat sortzea, zeinaren mekanismo erabakitzailea nahimen orokorra den, aurrerantzean botere politiko ororen iturria izango dena.

Gorputz berri hori –errepublika edo gorputz politiko den hori-- Rousseauk subirano deitzen dio aktiboa denean, estatu pasiboa denean eta botere bere antzekoekin erkatzen denean. Eta hemen garrantzi handiko zehaztapen bat daukagu, zeren terminologia oso erabilia baita Gizarte Hitzarmena argitaratu eman eta ondoren etorri diren bi mendeetan: “elkartuei dagokienez, guztiek batera herri izena hartzen dute eta banaka hiritar izena, autoritate subiranoaren partaide diren heinean, eta menpeko, estatuaren legeen azpian dauden neurrian”.

Laster antz ematen zaio definizio hauetariko batzuen egungotasunari, idatzi eta handik bi mendetara ere. Beraietan datza herri-subiranotasunaren nola ulertu behar den (nahiz eta Burdeu bezalako batzuek nazio-subiranotasun eta herri-subiranotasuna nahasteko joera duten). Herri kontzeptu juridiko-politiko bat da –hiritarren osotasunari buruzkoa gorputz kolektibo subiranoa den heinean-- hitz horren berorren kontzeptu soziologikoarekin (latinezko Plebs-aren zentzuan) nahastu behar ez dena.

Rousseauren zehaztapen terminologikoek helmen handiko nahasmenduetatik ihes egiten laguntzen digute era berean, subiranotasunaren partaidekide ez diren edo nahimen orokorraren lantze-prozesuan askatasunez esku hartzen ez dutenei hiritar deitzen. Botereak oinarri karismatiko edo teokratikoa duen tokian –edo autoritarismoaren edozein aldagaitan--, nekez izan daiteke hiritarrik.

Rousseauren oinarritzapen teorikoa oraindik urrunago zihoan; alde batetik, zenbaki handien legean bermaturiko gertakortasun-kalkuluaren antzeko arrazoiketa bat zen; beste alde batetik, eta gizarte-hitzarmen kontzepzioaren barruan beti, elkar hartzen dutenek aho batez burutua da hori; beraz, guztiek eta bakoitzak aurretiaz erabaki dute eta oinarrizko printzipiotzat gehiengoaren botoak interes orokorraren irizpidea adieraziko zuela aurrerantzean. Gehiengoak erabakiko duen alde aurretik onartzea, bere erabakia errespetatzea, demokrazia oro ahalbidetzen duen “joko-araua” da, forma edo prozedurei buruzko kontzientzia, zeina gabe demokrazia zentzugabeen biltoki bihurtzen den.

Rousseauren arabera, gizakiek gizarte-hitzarmenaren bidez nahi duten guztirako duten eskubide mugagabeari uko egiten diote. Aldiz, beren buruaren jabe bihurtu eta dependentzia pertsonal ororen kontra bermatzen dituen askatasun zibila irabazten dute.

Hitzarmenak nahimen propioa duen pertsona kolektibo bat sortarazten; horixe da nahimen orokorra. Baina ez dira nahimen orokorra eta guztien nahimena nahastu behar; borondate orokorra ez da borondate partikularren batura, ezta boto-auzia ere. Nahimen orokor izanarazten duena gutxiago da boto-kopurua horiek elkartzen dituen interes komuna baino.

Zeren nahimen orokorrak gatazkan dauden interes partikularretatik ihes egin eta haiek harmonizatzeko joera baitu. Hain zuzen ere Nahimen Orokorrak interes guztiak gizartekotzea du helburu. Eta horrela azaltzen du Rousseauk: “ken borondate (partikular) horiei beroriei elkar deusezetan duten gehiagoa eta gutxiagoa eta diferentzien batura gisa, Nahimen Orokorra gelditzen da”.

Roussearentzat, subiranotasuna Hitzarmenetik (Estatutik) sortzen den gizarte-gorputzaren funtsezko atributua da eta ez dago inoiz delegatzerik. Nola subiranotasuna borondate orokorraren bidez aditzera ematen den legea egitean, hori Rousseauren teoriari aspektu horretan egindako objektzio askoren zio izan da; izan ere, “ordezkapen kolektiboaren” doktrinari kontrajartzen baitzaio. Vaughan eta Halbwachsek nahastu egin dute borondate orokorra gure garaiko ordezkapen kolektiboarekin. Durkheimek bere lan esparruan kokatzen du arazoa, kontzepzio soziologikoa Rousseurenari kontrajartzen zaiola esanez. Gure garaiko Rousseauren lehen ikertzaileetako batek, Robert Derathék argitzen du nahiz eta aro garaikidean gobernu errepresentatiboak demokraziantz bilakatzea besterik egin ez duen, auzia zeharo bestelakoa zela XVIII mendean, Rousseauk bere Gizarte Hitzarmena idatzi zuenean: “XVIII mendean

ordezkagarritasunaren doktrinaren sustatzaile izan ziren idazle eta politikariei desira baino beldurra areago sortzen zien demokraziak eta ez zetozen inola ere bat herriaren subiranotasunaren printzipioarekin”. “Gizarte Hitzarmena-k –gehitzen du Derathék--oso aipamen urriak ditu aro modernoek eta antzinako historiako adibideez baliatzen da”. Halaber, gogora ekartzen du “autoreak berak aitortzen duenez, Gizarte Hitzarmena-n aurkezturiko ideala Genebako Errepublika bezalako Estatu txikietan edo Alemania edo Herrialde Beheretako hiri batzuetan bakarrik gauzatu ahal izan zela orduan”. Areago, Rousseauk bere Poloniako Gobernuari buruzko Kontsiderazioak (1772) paratzean Estatu handi batean “ahalmen legegileak diputazioz bakarrik jardun dezakeela” idatzi zuen.

Gizarte Hitzarmena-ren IV liburuan (II kap.) azalpen hau ematen du Rousseauk: “Lege bakarra dago bere izaeraz aho batezko adostasuna eskatzen duena: gizarte-ituna (...): Lehen hitzarmen horretaz kanpo kopuru handienaren ahotsak behartu egiten ditu gainerako guztiak: hitzarmenaren beraren ondorioa da.” Derathé profesoreak interpretatu egiten du Rousseauaren pentsamendua esanez “baldintza jakin batzuk burutu badira (Asanbladan koaliziorik ez izatea, ezta elkarte partzialik Estatuaren barruan) gehiengoaren irizpidea borondate orokorraren adierazpentzat har daitekeela”.

Halaber, zer pentsatua ematen du Rousseauk IV liburuko II kapituluan sufragioen aho batezkoasuna aipatzean egiten duen iruzkinak ere: “Horrek ez dirudi hain nabaria bere erakuntzan (Asanbladarenean) bi gizarte-klase edo gehiago sartzean, Erroman patrizio eta plebeiuena bezala (...) baina salbuespen horrek itxura areago du izana baino, zeren orduan, gorputz politikoak bere baitan daukan ajearengatik, izan, nolabait esateko, bi Estatu baitira bakarrean; biei buruz batera egia ez dena bakoitza banaka harturik da egia”.

Jakina, Rousseauaren teoria politikoak ez du behar adinako eustazpi soziologikorik; ez da abiatzen gizarte zibilak duen egitura-errealitate kontraesankorretik; nahiz eta hori eta Estatua bereizten dituen, ez da iristen erabaki-tresnen hegemonia gizartearen parte batek bakarrik bereganatzen duelako gertakarira. Rousseauk, neurri batean, bertutean oinarrituriko utopia politiko bat sortzen du. Ituna bertute politikoan oinarritzen da, eta, VIII kapituluan dioenez, naturako egoeratik egoera zibilerako iragaitzak justizian inspiraturiko moral batek intuituak ordeztu du ondorio. Hor, badirudi Rousseauk hamabi urte lehenagoko ideiak zuzendu egin nahi izan dituela Dijongo Akademiari egindako Hitzaldi sarituan (1750eko uztailaren 9an), zibilizazioak gizakiari bertutea galarazi diola dioenean, eta tesi horri funtsean eutsi egiten dio bost urte geroago bere Gizakien arteko desberdintasunaren jatorriari buruzko hitzaldian (1755). Jean-Jacquesen pentsamendua zoritzen denean naturako egoeran dagoen gizakiaren bertutea ontasun negatibo gisako zerbait, ongia eta gaizkia ez ezagutzean oinarriturikoa delako ondorioa iristen dela; egoera zibilera gizarte-itunaren bitartez pasatzean ontasun eta justizia positiboak sortzen dira, zeinean tarteko diren besteen askatasuna eta ondasunak errespetatzera obligatua sentitzearen kontzientzia eta norberarena ere errespetatuak izatea.

Izaera utopiko bera nabari da Rousseauk bere obran beti presente daukan Genebako kantoiaren moduko Estatu txikien idealizazioan. Baina ikuspen alderditarra litzateke, eta bat baino gehiago erori denekoa, Rousseauk demokrazia zuzeneko formak bakarrik onartzen zituela pentsaraz liezagukeena. Gizarte.Hitzarmena-ren III liburuan alderantzizkoa aitortzen du, nahiz eta pentsatzen duen “Estatua handituz doan heinean

askatasuna urrituz doala”. Bestalde, Rousseauk desiraturiko hiritar guztien partaidetza nahimen orokorraren adierazpenari buruzkoa da gai edo objektu orokor baten eta guztientzat obligaziozko izaera duen baten gain estatuituz, hau da, legegintzari buruzkoa.

Rousseauk Estatu txiki batean pentsatzen duenean, beraren baitako gizarte partzialei, alderdiei eta abarrei kontrajartzen zaie. Historia soziopolitikoak erakutsi du bi mendetan zehar Estatu modernoko Boterea eta gizabanakoaren arteko hutsunea tarteko gorputzez bete beharra dagoela giza nortasunaren deuseztapena eragotzi nahi bada. Ez zen hori, noski, Jean-Jacquesen asmoa, zeinak, bestalde, arreta berezia jarri zuen gehitzen “baldin elkarteetako bat gainerako guztiak menperatzeko bezain handia bada (...), nagusi gertatuko den irizpidea partikularra izango da”.

Badakigu Rousseuren eraikin teorikoaren eragozpen handia Subiranotasuna ezin delegatu izatean datzala, eta legegintza subiranotasunaren ariketa da. “Herriaren diputatuek –dio-- ez dira, bada, eta ezin dira ezer erabat amaitu. Herriak bere kabuz berretsi ez duen lege oro, baliogabea da, ez da lege. Herri ingelesak uste du librea dela eta oker dago; Parlamentuko kideak hautatzen ari den bitartean bakarrik da; hautatu bezain laster, esklabo da, ez da ezer”.

Delegazio exekutiboari aplikaturiko Komisarien ideia bete izan da, baina nominalki bakarrik, Frantses Iraultzako une batzuetan ere Errusiar Iraultzan. Legeak erreferendumaren pean jarri beharra I Urteko Konstituzio frantsesean ere agertu zen (1793), baina agindu hori ez zen inoiz aplikatu.

Roussoniar doktrinaren paradoxen artean ez da txikiena Estatu demokratikoaren eta bere funtzionamenduaren legitimitatearen oinarriak nahimen orokorraren bitartez ezarri izana, eta konpromisario edo mandatari ideia mailan gelditu izana ordezkariarenera iritsi gabe.

Ordezkaritza kontzeptua, estatu garaikidean erabiltzen denez, Rousseuren garaian aurkitu gabe zegoela esan daiteke, nahiz eta praktika ingelesak horren antza izan.

Adibidez, Gorteetako prokuradoreak beren hirietako mandatariak bakarrik ziren. Baina gaur gaingitua iruditzen bazaigu, Rousseuren ahotsa “ordezkaritza nazionalaren” teoriaren gehiegikerien kontra aurregazitutzat balio lezake. Jakina denez, azken honen teorilariak sostengatzen dute ordezkari bakoitzak ez dituela bere hautesleak ordezkatzeko, nazioa osoa baizik; lehen suposatu horretatik abiatuz gero, ezin litezke mandatuz beharturik egon, zeren “beren egitekoa ez baita gorputz nazionalen aurrez badagoen borondate bat adieraztea” (Burdeau). Botoak esan nahi du transferentzia bat egiten zaiola ordezkariari, zeinaren nahimen nazioaren nahimen bihurtzen den (eta hori inola ere ez da egia zeren ordezkarien nahimenen batura algebrakoak eratutako nahimen nazionalaren parte alikuota izango baita).

Modernoki, eginkizun parlamentarioaren gain hautesleek dituzten kontrol-proiektu diferenteak, egitarau konkretuen aipamen etengabeek, zeinetatik hautatzen diren ordezkariak, hautesle eta hautatuen arteko lotura erreala erakusten dute (“hautespen-mandatuaren azalpenaz”, bere hautespen-barrutiko batzorde eta gorputz profesionalekiko erlazioez eta abarrez gainera), agerian jartzen dute “ordezkaritza

nazionalaren” doktrina ere ez dela “lan-hipotesi” izatetik pasatzen, zeina beharrezko zen gorputz legegile modernoek jarduerak teorikoki justifikatzeko.

Edozein kasutan, Rousseauk utzitako Estatua eta bere mugen kontzeptuak oraindik ere, lehen genioenez, egungotasun bizi-bizia du. Zeren subiranoaren nagusitasuna ezarri bazuen ere, bere mugak ere finkatu zituen. XX mendearen bigarren erdian, teknika eta informazioaren aurrerapenak gure egunotako “Leviathanean” giza pertsonarentzat botere sarritan kezkagarria biltzen dutenean, muga arazoa, askatasunena bezala, lehen mailako auzi bat da.

Gorputz politikoaren ahalmen subiranoa gizarte-itunaren komertzioek berek mugaturik daukate, halako moldeak, non adibidez, gorputz politiko subiranoak ezin duen behartu edo zamatatu meneko-hiritar bat beste bat baino gehiago; nahimen orokorra ez dago banakako pertsonen mundu partikularrari aplikatzerik, orokor izateari utziko bailioke. Legea lehen berme bihurtzen da; jakina, legea aldarrikatzearen egiteko subiranoaren eta, Rousseau eta politista klasikoen arabera, Gobernuari dagokion hura betearazteko egitekoaren artean nahasmendurik ez dagoelarik abiatzen da. “Legitimo izateko –dio ohar batean-- Gobernuak ez du nahastu behar subiranoarekin, haren ministro izan baizik”.

Legea ez da eta ezin daiteke aldaezina izan; gizarteak aldatu egiten dira, baita bizi diren inguruabarrak ere. Legeak Montesquieurentzat “gauzen izatasunetik datozen beharrezko erlazioak”, Rousseauk uste du “herri bat, aldioro, bere legeak baita hoberenak ere, aldatzeko jaun eta jabe dela” (II liburua, XII kap.); bi kontzepzioak orekatu egin daitezke, zeren azken finean legea gizakiarentzat izatea baita helburu eta ez gizakia legearentzat; garrantzia, elkartearen ongia bermatzen duena, obligaziozko arau lege izatea da, hau da, borondate orokorraren adierazpena. Orduan bakarrik esan daiteke, Rousseauaren arabera, interes publikoa dela gobernatzaile. Ideia hori zehazteko errepublika deitzen dio legez eraenduriko estatu orori, zeinahi delarik ere bere administrazio-era; zentzu russoniar horretan monarkia bat errepublika izan daiteke.

Legitimitate demokratikoaren auzia ikusten dugu, bada, nola Rousseauk berriz eta indarrez planteatzen duen Hitzarmeneko III liburuko lehen kapituluaren. Bere gobernu-definizioa interesik handienekoa da: “Beraz, gobernu edo administrazio goren deitzen diot botere betearazlearen ariketa legitimoari, eta printze edo magistratu administrazio horretaz arduratzen den gizaki edo gorputzari”.

Ez dio ihes egiten Rousseauri begietatik Exekutiboak duen gorputz politiko subiranoaren ahalak bere buruari egozteko aurrebaldintza. Halbwachsek egoki seinalatu duenez, funtsezkoa da Gizarte.Hitzarmena-ren III liburuan “gobernuak subiranoaren atribuzioak usurpatzeko duen berezko joeraren” azterketa. Nahimen orokorraren doktrina demokratikoaren barruan monarkiak izan lezakeen esanahia iradokorra da eta aurreiragarle ere bada gure garaiotako zenbait monarkiarekiko, hala nola: eskandinaviarrak, belgikarra, holandarra eta gaur egun espainiarrarekiko (berariaz alde batera uzten dugun British Commonwealtheko monarkiaren gai zabala salbu). Boterearen iturri legitimoa kasu horietan guztietan herri-subiranotasunean datza, eta monarkak delegazioz gobernatzen du. Jakina, mekanika monarkia parlamentario deituek dutena bezalako berbera ez da, zeinetan monarkaren dekretuek ministro baten berrespena behar duten, baina ondorioak berak dira; baita “doktrinarismo”

hemeretzigarrena bertan ere (Guizotengandik Alonso Martínez eta Cánovas del Castilloren ganaino).

Irakokigarriagoak gertatzen dira nahimen orokorraren interpretazio batzuk –jadanik aipatuak ditugu-- gure mende honen azken hamarkadan adieraziak –laurogeigarren urteetan esan nahi dut-- , hots: Alexis Philonenkoren, Jean-Jacques Rousseau eta la pensée du malheur (Vrin, 1984) bere obraren III tomoan, zeinak uste duen borondate orokorraren ideia oinarri matematiko zorrotzean, kalkulu infinitesimalarenean bermatzen den, hura XVIII mendean garatu zenez Leibnizen lanen ondoren, zeinak Rousseauk, agi denez, ezagutu zituen. Beste politista batzuek, Luc Ferry eta Alain Renautek Philosophie politique, III. Des droits de l’homme à l’idée républicaine (Paris, 1985) beren obran baieztatu dute borondate orokorra ez dela borondate partikularren benetako zenbaketa soil bat, baizik eta egiazko integral bat zentzu matematikoan.

Nolanahi ere begi-bistan dago Rousseuren Nahimen Orokorraren ideia utopia-karga handiko eredu moralizatzaile batean sarturik zegoela eta interes antagonikoko taldetan urraturiko ez zegoen gizarte bat suposatzen zuen; gizarte-antolamenduzko bere proiektuan elkarlaguntza eta solidariotasunaren bulkadaz mugitzen zen hura eta ez borroka eta lehiakortasunarenaz.

Aurkeztu zitzaion arazo praktikoa izan zen jadanik norberekeriak ustelduriko gizarte batetik abiatuak, nola izan zitekeen Legea nahimen orokorraren adierazpen.

Edozein kasutan, Rousseau jabeturik zegoen bere ereduaren aplikazio enpirikoak zituen zailtasun handiez: “herriak berez beti ongia nahi du, baina ez du beti ikusten. Nahimen Orokorra beti zuzena da, baina gidatzen duen judizioa ez da beti argia izaten”.

Eta batzuetan adoregabe dagoela ematen du: “Nazioei dagozkien gizarte-arau hoberenak aurkitzeko –idazten du Gizarte.Hitzarmena-n--, adimen goren bat beharko litzateke, gizakien grina guztiak ikusi eta bat ere ez sentitzeko”.

II liburuko VII kapituluaren Legegileaz ari dela Rousseauk dio “instituitzeko giza natura, nolabait esateko, aldatzeko, gizabanako bakoitza eraldatzeko egoera sentitu beharra dago”. Hitz batean, pedagogi bidetik edo hezkuntza-eredutik jotzen du, gizarte-pentsalari askok gero egin dutenez.

Roussoniar ekarpenak balio berriak hartzen ditu gure garaiko gizartean. Ez jadanik aipaturiko arrazoiengatik; besterik ere bada. Lehendabizi askatasunen eta askatasuna eta berdintasunaren arteko oreka zailaren gaia dago. Rousseauk berdintasun juridiko-formala, gizaki guztiek legearen aurrean dutena bakarrik aipatzen zuen. Diogun aldeaz aurretik ez dela gauza txikia, eta bera indarrean egotea suposatzen duela aurrez beste edozein berdintasunek. Baina, horrezaz gainera, Rousseau osorik irakurri behar da, eta jakin beharra dago harako beste hura ere badioela “ezein hiritar ez dadila izan beste bat erosteko bezain edukitsua, eta inor ez dadila bere burua saltzeko bezain behartsu izan”. Eta ohar batean dio Estatu batek kontsistentzia izan dezan “ez direla pairatu behar ez pertsona edukitsuak ez miseriakoak”.

Rousseauk oraindik Estatu txiki bat dauka buruan funtsean nekazari (inpaktu fisiokratikoa argi samar ageri da beragan), artisau eta merkataritza txikiz eratua. Nagusiki kapitalistaurreko, oraindik industri iraultza ezagutu gabekoa zen aro batean idazten

zuen. Beraz, jabetgoaren auzia fokatzeko bere modua, lan pertsonalaren bitartez lortutako erabiltzeko ondasunen jabetzan zentratzen da, eta inola ere ez du kontutan hartzen, nahiz eta funtsezkoa izan, produkziobideen jabetzaren gaia.

Hamaika bider esan izan da jabetza-eskubidea 1789ko Aitorpenean lehen mailan ageri dela eta horrek agerian jartzen dela Iraultza frantsesaren izaera burgesa. Zalantzarik ez dago Gizarte Hitzarmena-k legitimatu egiten duela jabetza-eskubidea, aldatu egiten duela edukitza hutsa, lehen okupatzailearen eskubidea, eta abar, jabetzaren figura juridikoan. Baina okerra litzateke Rousseuren pentsamendua eta XVIII mendearen bukaeran Frantzia botereaz jabetzen den burgesiaren ideologoa, gutxi-asko abagunezkoak direnena nahastea. 1789ko Aitorpena lehen mailan ezartzen ditu askatasuna eta jabetza eskubide naturaltzat. 1793ko Aitorpenean (askozaz russoniarragoa den horretan) batez ere berdintasuna azpimarratzen da eta esaten da “hiritar bakoitzak eskubide berdina duela legearen erakuntzan eta mandatarien izendapenean lehiakide izateko”. I Urteko Konstituzioa (1793) da Gizarte Hitzarmeneko Estatuaren teoriari zintzokien darraiona; berak ezartzen du zuzeneko sufragio unibertsala eta asanblada primarioen beharrezko berronespena, zeinen akordiorik gabe Gorputz legegileak botoz onarturiko legeek baliorik ez duten; eta berak kontzebitzen du Exekutiboa asanbladaren egile delegatu gisa.

Komenigarri da gogora ekartzea, nahiz eta Rousseauk Gizarte-Hitzarmena-n esan ez dakiela nola gertatu den historikoki naturako egoeratik egoera zibilerako iragaitza, zazpi urte lehenago bere Desberdintasunaren jatorriari buruzko hitzaldia-n, aldaketa hori gertatu deneko moduari buruzko eskema hipotetiko baten zirriborroa egin zuela. Eta bertan egoera zibilaren erakuntza jabetza baieztatzeko premian oinarritatzen da, hura eskubide-arau bihurtuz: “Lursail bat inguratu eta hau nirea da esateaz arduratu zen lehena, eta hori sinesteko bezain jende sinplea aurkitu zuena, izan zen gizarte zibilaren fundatzailea”. Ideia horrek, bestalde Pascalen Pentsamenduetan aurreko erlatibo bat duenak, luze eta zabala garatzen da. Eta Hitzaldiak dio desberdintasunik ia ez bazegoen ere naturako egoeran “(...) azkenik egonkor eta legitimo bihurtzen dela jabetza eta legeen ezarpenaren bitartez”.

Badakigu ikuspegi ezkor hori gainditzen ahalegindu zela Rousseau Gizarte Hitzarmena idaztean. Horretarako uko egiten dio argibide historikoari eta politiko eta moralera jotzen du. Baina berdintasun juridikoa dena ez denaren kontzientzia du beti; gogora dezagun I liburuko IX kapituluari egiten dion bere ohar bat, non dioen: “Gobernu txarren pean berdintasun hori itxurazko eta engainuzko hutsa da; behartsua bere miserian eta aberatsa bere usurpazioan edukitzeko bakarrik balio du. Izatez, legeak beti baliagarri dira zerbaiten jabe direnentzat eta kaltegarri ezer ez daukatenentzat.” Esan nahi du, testuingurutik ateratzen denez, gehien daukatenentzat, gehiegi daukatenentzat baliagarri direla. Horrela, Rousseau ezin izango da inoiz “demokrazia” zentsatarioaren ideologo izan. Liberalismo zorrotzak, zeinarentzat Estatua gizarte-itunaz aurreko askatasun- eta jabetza-eskubideen –kontzepzio zorrozki iusnaturalista batean erroten-- bermea baizik ez den, Locke du ordezkari. Baina arrazoiz esan izan da Rousseau (hemeretziko liberalek beratzaz egindako interpretazioaz bestetara) Rousseau hausturagune bat dela kontzepzio klasiko iusnaturalistan.

Roussoniar berrinterpretazio hori –Umberto Cerroni eta Galvano della Volpe italiarrekiko oso zorduna dena-- da Jean-Jacquesen obra berreguneratzen duten arrazoiatariko beste bat. Ikuspuntu horren arabera, Rousseauk iusnaturalismoaren krisia



irekitzen du nolabait, zeren ez baitie nagusitasunik ematen itunaz aurreko eskubide indibidual batzuei, baizik eta elkarte politiko organiko berri baten sorrerari, zeinetatik abiatuko diren ez gizabanako gisa, baizik elkartekide gisa izaten diren eskubide berriak. Roussearen gai nagusia ez da eskubide horien bermea, baizik eta herri-subiranotasunaren ariketa zuzeneko eta jarraitua. Rousseauk esentziatzen atzeman duena ondoren eta egunoro berretsiriko kontzentzuaren errealitatea da, zeina den gizarte zibilaren arrazoia eta eustazpia. Cerroniaren hitzetan, “Rousseaurengan subiranotasunak bere sustrai politikoak sakontzen ditu gizabanakoaren eskubideen babeslea den estatua eraikitzeari ekinez, baizik eta herri-elkarte bat, ni komun bat burutzen duen Estatu bat”. Rousseauentzat auzia ez da gizabanakoaren esparrua bere horretan Estatuaren bitartez bermatzea (horrenbestez Cerroni Del Vecchio bere sorterrikideari kontrajartzen zaio, zeinak funtzio hori gizarte-itunean bakarrik ikusten zuen), baizik eta indibidualtasuna eta izaera pribatua ebatzea elkarte publiko batean, zeinean guztiek berdinez berdin jokatzaren dute, gizabanakoen zuzeneko partaidetza artikulatuz.”

Rousseauk munduaren historiako erabakigarria den XVIII mendearen erdi aldera idazten du. Alde batetik ezinbestez berorrek baldintzaturik baldin badago ere, beste aldetik, gauza guztien gainetik boterearen gosa eta orduan klase hegemoniko nazional gisa agertzen den burgesiaren –batez ere merkataritza eta negozioetakoaren– ideologoak baino harantzago doa eta gehiago ikusten du. Hortik bere kontraesanak; alde batetik, Zuzenbide naturalaren aurrean, gizabanakoak, ituna egin eta gero ere, bere buruari bakarrik obedituko dion kezka (fikzio juridiko eta moralista bat baizik ez dena); beste alde batetik, gorputz berri bat sortzera iristearen ondorioa, zeinetik datorren subiranotasuna eta, ondorioz, pertsonaren eskubideak elkartearen kide, borondate orokorraren erakuntzan partaide den heinean.

Rousseauk mundu moderno eta garaikidearen kontraesan politikoa, berdintasuna eta askatasuna (hau ezina da hura gabe) uztartzearen arazoa atzematera iristen da, gorputz politikoaren erabakien oinarritapena, hitz batean, kontzentzu bidezko legimitate demokratikoa, eta hori partaidetza aktiboko irizpide batekin. Aitzitik, kontraesan errealesoziologiakoa, kontraesan politikoa bere aspektu funtzionalean kontraesan sozio-errealetik nola desglosa ezin daitekeen, gai handi hori ez zuen erabat antzeman. Hortik datorkio utopismo moralizatzaileko bere joera; joera hori ez da unibokoa eta kontraesanak sortzen ditu, ez bakarrik Berdintasunaren jatorriari buruzko hitzaldian..., baizik eta Gizarte-Hitzarmena liburuaren pasarte ugarian ere: desberdintasun ekonomikoak elkarte politikoari dakarkion arrisku larria (aberats eta pobreen ikuspegi etizistatik ikusia areago, produkzio-erlazioen zientifikoan baino), egiazko demokraziari buruzko eszeptizismo erabatekoa (III liburua, IV kap.), non esaten duen “jainko-herririk balego, demokratikoki gobernatuko litzatekeela. Baina hain gobernu perfektua ez da gizakientzat egokia”: Zer esan nahi du horrek? Nire iritziz, esan nahi du Rousseau ez dela azaleko irakurketa batetik atera litekeen bezain utopikoa. Kapitulu hori etsipenezko garrasi bat da mekanika politikoak funtzio delegatu asko ezartzea eskatzen duela ezagutzean, eta horrek azkenerako aldaketa bat esan nahi du administrazioan; arazoak konpontzen dituen ekipo murriztuagoa (guk “boterearen eguneroko ariketa” deituko genukeena) azkenerako autoritate gehiago izatera iristen dela (pertsonal politikoaren elitearen erakuntza). Rousseau aski argi zen arriskuak aurrez susmatzeko; baina demokrazia ez dela perfektua aitortzen badu ere, horrek ez ditu baliogabetzen legimitate demokratikoaren oinarriak, izan ditzakeen akats guztiak gorabehera.

Baina ez genuke hitzaurre hau ixten asmatuko Gizarte Hitzarmenak eta ideia russoniarrek jaso dituzten kritika garaikideenak aipatu gabe. Alde batera uzten ditugu, lerro hauek behar baino gehiago ez luzatzearen, Iraultza frantsesaren kontrako egindako kritikak, zeinek haren eraginpean idazten duten eta Rousseuren obra Iraultzaren gorabeherekin literalki lotzen tematzen diren: Burke, de Bonald eta Errestaurazioaren beste hainbat ideologoren kasua da. Bigarren mundu-gerrateaz geroztik hain ugariak izan diren beste politista-mota batez ari gara. J.L. Talmon, israeldar jatorriko iparramerikarra izan da sonatuena, zeinak 1952an *The Origins of totalitarian democracy* bere obra aurkeztu duen; bertan zenbaitek proposatu izan duen gaia aurkeztu du: etenik gabeko lerro bat egitea borondate indibidualen zampaketa esan nahiko lukeen Gizarte Hitzarmeneko Borondate Orokorretik hasi eta gure egunotaraino. Tesi horrek harrera on samarra izan du Iraultza frantsesa esanahi sozialik gabeko gertakari soil batzuetara erreduzitzearen aldekoen artean, hartan Terrorean bakarrik azpimarratuz, zeinek hautazkokeria nabarmenez alde batetik Rousseurekin lotzen duten eta bestetik “gulag” errusiarrarekin, biak horrela era txundigarrian elkarturik agertzen direlarik.

“Mende-amaiera” kutsuko interpretazio horiek izan lezaketen azalkeria alde batera utzirik, esan beharra dago Rousseuren eta geroko mendeetan izan bide dituen epigonoen arteko nahasmenduak oso bortxatua dirudi

Historialari eta politista gailenak arduratu dira eztabaida horretaz: horrela Jean Touchard profesoreak bere *Historie des idées politiques* (1961) sonatuan Jean-Jacquesen ideiak gogorarazten ditu: “Herri libreak obeditu egiten du, baina ez du zerbitzatzeko; buruzagiak ditu, baina ez nagusiak; legeei obeditzen die, baina legeei bakarrik obeditzen die; eta lekeen indarrarengatik ez die gizakiei obeditzen”. Hitz batean, Eskubide Estatuak, totalitarismoaren eta despotismo ororen adierazpen antitetikoa. Robert Derathék, bere aldetik, idatzi du: “Rousseauk ez zuen inoiz esan gutxiengoak gehiengoaren borondateari men egin behar zionik, ezta bereaz bestelako irizpideari jarraituz libre denik ere”.

Jacques Julliard, 1985ean argitaratutako bere liburu polemikoan (*La faute à Rousseau*, ironia faltarik ez duen errua Rousseurena bezala itzul litekeena) “deabruaren abokatuarena” egiten du era distiratsuan eta honako auzi hau planteatzen du: “Rousseauk zer esan nahi izan duen galdetu baino lehen, zer esan nahi izan ez zuen aipatu behar da laburki (...) Gauza bat dago ziur: Rousseau historikoak, benetako Rousseauk ez dauka zerikusi handirik jakobinoek hartaz egi zuten demokrata iraultzailearekin ere”. Eta geroago fakzio politikoei buruzko Rousseuren aipamena dakar eta honela amaitzen da: “Elkarteetako bat hainbeste handitu eta besteen gainetik jartzen denean (...) jadanik ez da nahimen orokorrik izango eta nagusi bihurtu den iritzia iritzi partikular bat besterik ez da”.

Julliardek dio: “Nola ahaztu ahal izan dituzte Rousseuren interpretazio totalitarioaren aldekoek alderdi etsaien eraentza baino zerbait okerragoa badagoela berarentzat: alderdi bakarrarena, argiro erakusten duten testuak?”:

Segur aski, Rousseuren obra aztertzean kontutan hartu beharreko gauzarik garrantzitsuena anakronismotan ez erortzea da. Agian horregatik dira aipagarriak gure egunotako “rousseonista” trinkoenetako baten, jatorriz poloniarra eta Genebako unibertsitatean irakasle den Bronislaw Baczko profesorearen hitzak, *Nouvelle histoire*

de idées politiques obran (Paris, 1987, Pascal Oryk zuzenduan) egindako lankidetzak. Baczkok dio: “Rousseuren originaltasuna bere garaiko ideiekiko: instituzio politiko ororen jatorria eta oinarriak, Estatuarenak batez ere, libreak, berdinak eta naturaz independenteak diren gizakien sozializaziotik abiatzen dira ezinbestez. Ez dago gizakiak gizakiaren gain izan dezakeen botere naturalik ez probidentzialik”. Noski, horrela sekulartze politikoaren oinarriak ezarrita gelditzen ziren eta azpijana egiten zitzaion avant la lettre “legitimitate” karismatikoaren lurrari.

Rousseauri egin zaion asmo totalitarioen prozesua (Talbot, Popper, eta abar) Baczkok kalifikatzen du “termino lausozko eztabaida, anakronismoan aise sartzen dena Rousseuren obraren gain bereaz bestelako garai batenak ziren, ez berak eta ez bere garaikideek planteatzen ez zituzten kontzeptu, arazo eta galderak proiektatzean”.

Horregatik Baczko profesorearen konklusioari guztiz egokia deritzogu: “Rousseuren pentsamendua ulertzeak esan nahi du, lehenik, bere garaira itzularaztea. Bera erara, bere zalantza eta anbiguotasunetik, demokrazia modernoa asmatzeak berekin dakarren enpresa intelektual eta politikoan parte hartzen du eta obra hori doi-doi zegoen hasia XVIII mendean. Bestalde, Rousseauk bere garaia gainditzen duten auziak formulatu ditu...”.

Horrenbestez, Baczko Ernst Cassirerren bidetara datzekio bere Ilustrazioaren Filosofia ospetsuan, orain mende-erdi baino gehiago honako hau idazten zuenean “Rousseau bere inguruko esparru historikoaren gainetik altxatzen da eta Enziklopediaren ideia eta pentsamendua zirkulua gainditzen du (...). Legearen indar eta duintasunarekiko suharrak ezaugarritzen du Rousseuren etika eta politika eta horrek bihurtzen du Kant eta Fichteren aitzindari”:

Inork ez du gaur arte garaitu Rousseauk proposaturiko Boterearen legitimazioa. Azken finean, esaten digu, ez dela aski indarra agintzeko; halaber, beharrezko dela herriak sinestea agintzen dion indar horren justizia. “Azken finean, bandolariak eskuan daukan pistola ere botere bat da”, dio indarraren “arrazoia” kritikatz.

Pistolak –edo metrailetak-- izango ote dira agian “ultima ratio”? Hori da Rousseauk inoiz onartzen ez duena, eta horregatik, aurkitu ditu bere teoriak etsai bat baino gehiago. Borondate orokorra, denik eta inperfektuena izan, “ultima ratio” hori eragozten du. Herri-subirotasuna ordeztetza da, edozein Estatuaren antolamendu eta funtzionamenduaren oinarri unibertsalki aitortua da; halaber, gizakiak libre jaio eta bizi direla, legearen aurrean berdinak direla, beren askatasun eta eskubideak besterenduezinak direla eta aitortua da. Noski, bi mende baino gehiago behar izan dira printzipio horiek balio unibertsalen kategoria izan dezaten, eta horretarako herriari bere ahalmenak eta gizakiari bere eskubideak kentzen saiatu ziren “legitimazioek” suposatzen zuten toxikazioak gainditzea beharrezko izan da.

Eta, Antonio Machadoren jarraibidea segituz, geure egiten badugu harako zuhurritz hura: “Inor ez da inor baino gehiago. Zeren gizaki batek asko balio duenik ere inoiz ez baitu gizaki izatea baino balio handiagorik izango”, aitortu beharko dugu borondate orokorra eta erabakiak errespetatzea dela hori betetzeko bide bakarra.

Eskerrik asko, beraz, Genebako pentsalari bakartiari. Bere liburua 1762an Amsterdamen argitaratua, bi hilabete geroago Parisen eta Geneban kiskalia, oraindik bere indar

guztiaren jabe eta akaso irakasteko gai da. Gizarte Hitzarmena eta bere egilea kultura unibertsalaren historiako ate nagusitik sartu ziren. Nor oroitzen da orain sutara kondenatu zutenez? Nork ezagutzen ditu haien izenak? Poetak esan zuenez, hil egin ziren “lurraren iragan iluna epaituko duten gizakiengan oroitzapenik gabe”:<sup>1</sup>

Manuel Tuñon de Lara

#### ABISUA

Beste orduz ene indarrak neurtu gabetarik hasi, eta gero, duela aspaldi, utzi nuen idazlan zabalago batetik ateraia da gogoeta idazlan labur hau. Egina izan zenetik jalgi zitezkeen zatietarik handiena hau da, iruditu baitzait publikoari eskainia izateko ere duinena zela. Gaineratikotik ez da gehiago deus ere gelditzen.

---

<sup>1</sup> Alberti, *De un momento a otro*.

## LEHEN LIBURUA

Gizonak diren bezala eta legeak izan daitezkeen bezala harturik, ordena zibilean administratzeko arau segur eta legitimorik izan daitekeenentz aztertu nahi nuke. Ikerketa horretan, zuzenbidearen arabera haizu dena eta interesak manatzen duena beti elkarrekin uztartzera entseiatuko naiz, ez daitezen elkarretarik bereizirik gerta justizia eta baliagarritasuna.

Gaiaren garrantziaz frogabiderik ekarri gabe hasiko naiz. Galdatuko dit batek, ea printze edo legegile ote naizen politikaz idazteko. Ezetz erantzuten dut, eta hain zuzen ere horrengatik dudala politikaz idazten. Banintz printze edo legegile, ez nenbilke denbora galduz, zer egin behar den erran beharrez; banegike, edo isilik nengoke.

Estatu libro bateko herritar gisa sortua, eta subirotasunean parte hartzaile izanki, ene bozak herriko arazoetan duen eragina nahi bezain ahula izanik ere, arazo haien berri jakiteko eginbidea sorrarazten dit boz emateko dudak eskubideak. Gobernamentuek gogoeta egiten dudak aldi oroz, beti aurkituko ahal ditut herriaren hobeki maitatzeko arrazoin berriak!

### I

Lehen liburu honen gaia

Gizona libro sortu da, eta orotan burdinetan dago. Besteen nagusia dela uste duena haiek baino esklaboago da. Nola gertatu da mudantza hori? Ez dakit. Zerk egin dezake aldakuntza hori legítimo? Uste dut galde horri ihardets diezaiokekan.

Indarra eta hari darraizkion ondorioak soilik kontuan har banitza, hauxe nioke: populu batek obeditzera behartua deno obeditzen duelarik ongi egiten du; oraino hobeki egiten du, uztarria gainetik egotz dezakeen bezain laster, egiten badu; ezen, kendua izan zitzaion eskubide berberaz hartzen duelarik berriz libertatea, edo bide osoz berriz hartzen du, edo bidegabeki kendua izan zitzaion. Ordea, ordena soziala eskubide sagaratua da, beste guztien oinarrian baitago. Eskubide hori, haatik, ez da naturalezak emana; konbentzioetan finkatua da beraz. Nolako konbentzioak diren ikusi behar orain. Lehenago, halere, aitzinetik errana funtsatu behar dut.

### II

Lehenbiziko gizarteak

Gizarterik zaharrena, eta naturala den bakarra, familia da. Eta oraino hein batean, bizitzeko haren beharra duteno bakarrik atxikitzen baitituzte haurrek aitarekilakoak. Behar hori ezdeusten delarik, lokarri naturala ere ezabatzen da. Aitaren obeditzerik ez duten haurrak, hala nola haurrez arta hartzerik ez duten aita, oro beren gain molde berean jartzen dira. Elkarrekilakoak atxikitzen badituzte ez da gehiago naturalezagatik, baina nahitara, familiak berak ere konbentzio bati esker dirauelarik.

Ororen libertate hori gizonaren naturalezaren ondorioa da. Honek bere buruaren zaintzea du lehenbiziko legea, haren lehenbiziko artak bere buruari zor dizkionak dira, eta, arrazoinamenduaren adinera heldu orduko, bere buruaren zaintzeko egokiak diren medioak berak bakarrik juza baititzake, bere buruaren nagusi egiten da.

Familia, beraz, gisa hartan harturik, gizarte politikoen lehen eredu da; buruzagia aitaren irudia da, populua haurren irudia da, eta denak elkarren berdin eta libro sortu baitira, probetxurik ateratzekotan baizik ez dute beren libertatea uzten. Diferentzia guztia honetan datza: familian, haurrenganako bere amodioak ordaintzen dizkio aitari haien onetan dituen artak, eta Estatuan, manatzeko plazerak eskaintzen dio buruzagiari bere populuaren aldera ez duen amodioaren ordaina.

Grotiusek ukatzen du giza botere guztiak gobernatuak diren fagoretan jarriak izan direla: esklabogoa adibide gisa aipatzen du. Zuzenbidea eginaren bidez funtsatzea da haren arrazoinatzeko moldearen ezaugarri finkoa<sup>1</sup>. Arrazoinabide burutsuagorik erabil daiteke, ez ordea, tiranoen aldekoagorik.

Dudazkoa da, beraz, Grotiusen arabera, ehun bat gizon diren giza generoaren jabe, ala ehun gizon horiek giza generoaren parte diren, eta, liburu guztian, badirudi, lehen aukeraren aldekoago dela. Hobbesen ustea ere halakoa da. Horra, beraz, giza espeziea abelaldetan zatikatua, bakoitzak bere buruzagia duela, gero iresteko zaintzen baitu horrek saldoa.

Nola artzainak artaldeak baino naturaleza goragokoa baitu, halaber gizazainek, buruzagiek hots, populuek baino naturaleza goragokoa dute. Horrela arrazoinatzen zuen, Philoren arabera, Kaligula enperadoreak; analogia horretarik bururapen gisa aski poliki baitzioen, edo erregeak jainkoak zirela, edo populuak abereak.

Kaligula horren arrazoinabidea Hobbesenarekin eta Grotiusenarekin pareka daiteke. Aristotelesek ere erran zuen haiek guztiek baino lehenago gizonak ez direla naturalezaz elkarren berdin, baina batzuk esklabo izateko sortzen direla eta besteak nagusi izateko.

Aristotelesek arrazoin zuen, baina ondorioa kausatzat hartzen zuen. Esklabotasunean sortu gizona esklabo izateko jaiotzen da, deus ez da seguragorik. Esklaboek oro galtzen dute burdinetan, haietarik ateratzeko nahikundea ere bai; beren morroitza hala maite dute, nola Ulysesen lagunek beren zozomendua<sup>2</sup>. Baldin naturalezaz esklabo denik bada, beraz, naturalezaren kontra esklaboak izan direlako gertatu da hala. Indarrak egin ditu lehen esklaboak, haien koldarkeriak iraunarazi du belaunez belaun esklabogoa.

Ez dut deus ere erran Adam erregeaz, ez eta Saturnoren hurrek bezala unibertsoa beren artean partekatu zuten hiru monarka handiren aita izan zen Noe enperadoreaz ere. Esperantza dut horrela izariz mintzaturik, eskerrak bihurtuko zaizkidala; ezen, printze horietarik baten ondoko zuzenatarik naizelarik, eta gehienaren adarrekoa beharbada, tituluak mia balitez, nork daki ez ote nintzatekeen giza generoaren errege legitimoa? Nolanahi ere den, ezin uka Adam munduko subiranoa izan dela, hala nola, hango bizitzaile bakarra izan zeno, Robinson ere bere uhartekoa; eta inperio horretan arras preziagarri zen monarkarentzat, bere errege jargian segurki jarriarik, ez baitzuen, ez gerlen, ez jazarkundeen, ez konspiratzaileen beldur izaterik.

### III

Indartsuenaren eskubideaz

Beti nagusi izaten jarraiki nahi bada, den indartsuena ere ez da sekula aski indartsua, non ez duen bere indarra eskubide bihurtarazten, eta, halaber, obedientza eginbide. Hortik dator indartsuenaren eskubidea; ironiaz harturiko eskubidea iduriz, eta egiazki printzipioz finkatua. Baina, ez ote digute hitz horren erran nahia sekula argituko? Indarra ahalmen fisikoa da; ez dezaket ikus zer moralitate sor daitekeen haren efektuetarik. Indarraren aitzinean amor ematea ezinbesteari darraikio, ez nahiari; gehienez ere zuhurtziari. Nondik izan daiteke eginbide?

Onar dezagun memento batez delako eskubide ustezko hura. Badiot nik, deus ere ez dela hartarik ateratzen ezin harilkaduzko mataza baizik. Zeren, eskubidea indarrak egiten duen pundutik, ondorioa kausarekin batean doa; indar garaitzaile orok goitu duenaren eskubidearen ondorea jasotzen du. Gaztigurik gabe desobeditzen ahal bada, legitimoki desobedi daiteke, eta indartsuenak arrazoin baitu beti, nork bere egin ahalak egin behar ditu indartsuena izateko. Zer da, ordea, indarra galtzearekin galtzen den eskubidea? Batek bortxaz obeditu behar badu, ez du eginbidez obeditzerik, eta bortxaz obeditzera behartua ez bada, ez du gehiago obeditu beharrik. Ikusten dugu, beraz, eskubide hitz horrek deus ere ez dakarkiola indarrari.

"Obedi itzazue potentziak". Indarraren aurrean amor emateko erran nahi badu manu horrek, agindu ona da, baina alferrikakoa ere, hitz ematen baitut sekula ez dela hautsiko. Potentziak oro Jainkoaganik heldu dira, aitor dut; baina eritasunak oro ere harenganik heldu dira. Horrek erran nahi ote du debekatua dela medikuari dei egitea? Demagun gaiztagin batek oihan zoko batean harrapatzen nauela: diru-zorroa bortxaz eman beharra

diot, baina, jo dezagun nolabait zorro hura gordatzen ahal dudala, kontzientzaz haren ematera behartua al naiz? Zeren potentzia baita gaiztaginak daukan arma ere.

Onar dezagun, beraz, indarrak ez duela eskubidea sortzen, eta potentzia legitimoen baizik ez diegula obeditzea zor. Horrela ene hastapeneko galde hura beti heldu da.

#### IV

##### Esklabogoaz

Ezein gizonak ez duenaz gero aginpide naturalik bere kideen eretzean, eta indarrak ez duenaz gero eskubiderik sortzen, konbentzioetan baizik ezin oinarri daitezke gizonen artean diren aginpide legitimoak.

Partikular batek, dio Grotiusek, bere libertatea besteren eskutan utz edo aliena badezake, eta bere burua nagusi baten esklabo egin, zergatik ez dezake populu oso batek ere bere libertatea aliena, eta bere burua errege baten meneko egin? Badira hor hitz nahasgarri asko, argitu behar liratekeenak, baina gelditu gaitzen alienatu hitzean. Alienatzea ematea edo saltzea da. Ordea bere burua beste gizon baten esklabo egiten duenak ez du bere burua ematen, saltzen du, bizibidean truk bederen. Baina, zertarako sal populu batek bere burua? Erregeak ez die bizibidea ematen bere menekoei, izatekotz, hark du hauei esker berea ateratzen, eta Rabelaisek dioenez, errege bat ez da apur xuhurrez bizi. Menekoek, horretaz, beren ondasunez ere gabetzekotan ematen ote dituzte beren buruak? Ez dut ikusten zer geratzen zaien atxikitzeko.

Despotak menekoei bake zibila segurtatzen diela erranen da. Demagun; baina zer irabazi dute hauek hortik, baldin despotaren handi-nahikeriak sorrarazi gerlek, haren ezin asetzeko ondasun egarriak, haren ministerioaren nardamenduek, makur gehiago egiten badizkie beren arteko liskarrek baino. Presogeletan ere bakean bizitzen da; aski dea, ordea, haietan gogara egoteko? Zykloperen harpean hetsirik zeuden grekoak ere, janak izateko haien aldia jin artean, soseguan bizi ziren.

Gizon batek bere burua dohainik ematen duela erratea, ezin pentsatzeko zentzugabekeria erratea da; horrelako egitatea deslegitimo eta baliogabea da, egilea bere zentzuaren jabe ez izateagatik beragatik. Populu oso batez gauza beraren erratea, ero populu bat suposatzea da: ordea, ez du eromenak zuzenbiderik sortzen.

Nork bere burua aliena badezake ere, hainak bere haurrak ez ditzake aliena; libro eta gizon zirela sortu dira; beren libertatearen jabe dira, honen gainean haietaz beste inork ez baitu eskurik. Arrazoinamenduaren adina izan gabe, aitzak haien izenean, haien oneko eta haien hazduraren segurtatzeko baldintza batzuk finka ditzake, baina eman, ezin eman ditzake haur horiek behin betikotz eta baldintzarik gabe; ezen horrelako emaitza naturalearen xedeen aurka doa, eta aitasunaren eskubideak ere gaitzen ditu. Gobernamentu arbitrario bat legitimo izan ledin, beraz, belaunaldi bakoitzean populuak haren onesteko edo gaitzesteko ahala izan behar luke: baina orduan gobernamentu hura ez litzateke gehiago arbitrario.

Nork bere libertateari uko egitea, nork bere gizatasunari uko egitea da, bai eta gizaldeen eskubideei, eta bere eginbideei ere. Ez dago orori uko dagionari inolako ordainik ematerik. Horrelako ukamena ez da gizonaren naturalezarekin bateragarri, eta haren egitatei moralitatearen osoki kentzea da, gizonaren nahiari libertatearen osoki kentzea. Azkenik, konbentzio bano eta kontradiktorioa da, alde batetik aginpide absolutuaren eta bestetik mugarik gabeko obediartzaren finkatzea. Ez ote da argi deus ere zor ez dugula, den-dena eskubide osoz eska diezaiokegunaren aldera? Eta baldintza horrek berak, ez kontrapartidarik, eta ez ordainik ez duenak, ez ote du akta baliogabekoa egiten? Ezen, zer eskubide izan dezake esklaboak ene aurka, duen guztia enea bada, eta haren eskubidea ere enea izanki, neure buruaren aurka nukeen eskubide hori zentzurik gabeko elea baizik ez bada?

Grotiusek eta besteek gerlaren bidez beste sorgia bat ematen diote esklaboen egiteko eskubidea deritzatenari. Garaitzaileak, diotenaz, garaituaren hiltzeko eskubidea baitu, honek libertatean truk bere bizia eros dezake; halako hitzarmena guztiz legitimoa da, bien onetan egiten denaz gero.

Baina argi da garaituen hiltzeko eskubide delako hori deusetan ez dela gerla egoeraren ondorioa. Hatsarreko beregaintasunean bizi diren gizonak ez baitute beren artean aski harreman iraunkorrik, ez dute, ez gerla egoerarik, ez bake egoerarik sortzen; ez dira berez elkarren etsai. Gauzen arteko harremanek, ez gizonen artekoek, dute gerla ekartzen. Eta gerla ez baita pertsonen arteko harreman soiletarik sortzen ahal, baina gauzen arteko erlazioetarik bakarrik, ezin izan daiteke gerla pribaturik edo buruz burukakorik, ez jendeek jabego iraunkorraren berririk ez dakiten naturalezako egoeran, ez eta oro legeen eskupean emana den gizarte egoeran ere.

Borrokaldi partikularrak, dueluak, jokaldiak ez dira egoera iraunkorra adierazten duten egintzak. Eta Louis IX.a, Frantziako Erregearen manuz haizutu ziren gerla pribatu, Jainkoaren bakearen izenean gelditzen ziren haiek, gobernamendu feudalararen abusuak besterik ez ziren, eta sistema absurdu hau -bat izatekotan hura halakoa baitzen-, zuzenbide naturalaren printzipioen kontrakoa zen, bai eta eta politika egoki guztien aurkakoa ere.

Gerla ez da, beraz, gizonen arteko buruz burukako harremana, baina Estatutik Estatura moldatua den harremana, orduan gizakiak halabeharrez gertatzen baitira etsai; ez gizon gisa, ez eta hiritar gisa ere<sup>3</sup>, soldado gisa baizik; ez aberkide gisa, abertzain gisa baizik. Azkenik, beste Estatu batzuk baizik ez daitezke Estatu baten etsai izan, gizonak, ordea, ez, jakina baita naturaleza desberdineko gauzen artean egiazko erlazorik ezin finka daitekeela.

Printzipio hori egundainotik izan diren maximei jarraitzen zaie, bai eta populu zibilizatu guztiek etengabeki segitu izan duten egin moldeari ere. Gerla deklarazioak potentziei baino gehiago haien menekoei egiten zaizkien abertimenduak dira. Printzeari gerla deklaratu gabe, haren menekoak arrotzen, hiltzen edo hartzen dituen arrotza -den errege, den jende soila, den populua- ez da etsaia, gaiztagina da. Gerla betean, eiki, printze justuak herri etsaian publikoarena den guztia hartzen du, baina orduan ere pertsona errespetatzen du, bai eta partikularren ondasunak ere; errespetatzen dituen eskubideak haren eskubideek ere oinarrian dituztenak dira. Gerlaren helburua Estatu etsaiaren suntsitzea izanki, zilegi da armak eskutan dituzteno haren zaintzaileen hiltzea; baina armak utzi eta errendatu orduko, ez baitira gehiago etsai edo etsaiaren zerbitzuko, besterik gabe gizon dira berriz, eta haien biziaren gaineko eskubiderik ez da gehiago. Batzuetan Estatu hil daiteke, estatukide bat ere hil gabe; gerlak ez du beste eskubiderik ematen, duen helburuaren betetzeko beharrezko dena baizik. Printzipio horiek ez dira Grotiusenak; ez ditu poeta batzuen itzalak funtsatzen, ordea, gauzen naturalezari darraizkio, eta arrazoinamenduan oinarritzen dira.

Konkistatzeko eskubideak ere indartsuenaren eskubidea du oinarri bakarra. Gerlak populu goituen sakailtzeko eskubiderik ez badio ematen garaitzaileari, ez duen eskubide horrek ez diezaioke oinarri eman populu horien menperatzeko eskubideari. Etsaiaren hiltzeko eskubidea, haren esklabo egiteko biderik ez duenean baizik ez du batek; horretaz, etsaiaren esklabo egiteko eskubidea ez darraio haren hiltzeko eskubideari: beraz, trukitze bidegabekoa da hainari bizian truk libertatearen erosaraztea, bizi horren gainean ezein eskubiderik ez denean. Biziaren eta heriotzearen gaineko eskubidea esklaboen egiteko eskubidean finkatzen denean, eta esklaboen egiteko eskubidea, biziaren eta heriotzearen gaineko eskubidean, ez ote da argi buru-buztanik gabeko arrazoinabide zirkularra dela hori?



Demagun hala ere ororen hiltzeko eskubide ikaragarria badela, orduan ere badiot, gerlaren bidez egin esklaboak, edo halaber populu konkistatuak, ez duela beste zorrik edo obligaziorik bere nagusiaren aldera, hartara behartua deno haren obeditzea baizik. Garaituaren biziaren ordaina hartuz, garaitzaileak ez dio bizia urrikalmenduz salbatu: deus probetxurik atera gabe hiltzeko orde, baliagarri zaion modu batean hil du. Beraz, inola ez du irabazi indarrari datxekion eskurik haren gainean, aitzitik, haien arteko gerla egoerak badirau aurrean bezala; areago dena, haien arteko erlazioa honen ondorioa da, eta gerlako zuzenbidearen baliatzeak deusetan ez du bake hitzarmenik suposatzen. Hitz hartu dute, bai hala da : baina konbentzio horrek ez dio gerla egoerari amaiera eman, aitzitik, badirauela suposatzen du.

Horrela, gauzei nondik ere nahi baita behaturik ere, esklaboen egiteko eskubidea indargabea da, ez bakarrik deslegitimo delako, baina absurdu eta adierarik gabekoa delako ere. Hitz horiek, esklabo eta eskubide, elkarren aurkakoak dira; elkar kanporatzen dute. Izan dadin gizon batek gizon bati errana, edo gizon batek populu bati, ondoko elestaldi hau beti berdin zentzugabekoa izanen da: Hirekin osoki ene fagoretan eta osoki hire kaltetan izanen den hitzarmen bat egiten diat, nik, plazer dudan arte beteko dudana eta hik ere, plazer dudan arte beteko duana.

V

Nola beti ere hatsarreko hitzarmen batera itzuli beharra den

Orain artino makurretsi dudan guztia onartzen banu ere, despotismoaren aldekoek ez lukete horretarik probetxu handirik aterako. Jende multzo handi baten menderatzea eta gizarte baten kudeatzea, bi gauza arras desberdinak izanen baitira beti. Gizon barreiatu batzuk, nahi bezainbat izanik ere, bata-bestearen ondotik beste baten peko emanak direlarik, ez dakusat deus ere nagusi bat eta esklabo batzuk baizik. Ez dut populu bat bere buruzagiarekin ikusten; jende metaketa da, nahi bada, ez jende elkarte bat; ez da horretan ez herri oneziarik, ez gorputz politikorik. Delako gizona, munduaren erdia peko jarriarik ere, gizabanako soila baizik ez da; haren interesa, besteenetik berex izanagatik, beti interes pribatu izaten jarraikitzen da. Gizon hori hiltzen bada, haren inperioa barreiatu eta lokarri gabe gelditzen da ondotik, hala nola haritza, suak erre duenean, desegiten baita, eta errauts bilakatzen.

Populu batek, dio Grotiusek, bere burua errege bati eskain diezaioke. Grotiusentzat, beraz, populu bat populu da jada errege bati bere burua eman aitzin. Emaiza hori bera akta zibila da, eta deliberamendu publikoa suposatzen du. Beraz, egoki litzateke, populu batek errege bat hautatzen duen akta ikertu baino lehenago, populu bat populu egiten duen aktaren ikertzea. Zeren bigarren akta hau, nahitaez, bestea baino aitzinagokoa izanik, gizartearen egiazko oinarria baita.

Alabaina, aurreko hitzarmenik ez balitz, nondik, bada, hautapena aho batezkoa ez izanik, multzo tipia multzo handiaren hautuaren ontzat ematera behartua da, eta nondik, nagusia nahi duten ehun jendek, nagusirik nahi ez duten hamarren izenean bozkatzeko eskubidea dute? Gehiengoaren bidezko bozketa legea bera hitzarmen baten ondorioa da, eta behin bederen ahobatezkotasuna izan dela suposatzen du.

VI

Gizarte-paktua

Demadan gizonak halako pundura helduak izan direla, non, beren buruen naturalezako egoeran atxikitzeak dituzten eragozpenek, sorrarazten duten nekeagatik, gaina hartzen baitiete bat-bederak egoera horretan egoteko enplega ditzakeen indarrei. Orduan hatsarreko egoera horrek ezin dirauke, eta bere bizitzeko moldea alda ez baleza, hil liteke giza generoa.

Nola gizonek indar berririk ezin sor baitezakete, baina direnak bil eta gida bakarrik, beren buruen begiratzeko duten bide bakarra, eragozpenak gaindi ditzakeen indarrak

metatzean eta biltzean, eta xede bakar baten arabera eta elkar aditurik jokaraztean, datza.

Indar metatze hori batzuen elkartasunetik baizik ezin sor daiteke: baina gizon bakoitzak bere buruaren kontserbazteko dituen lehenbiziko tresnak indarra eta libertatea baitira, nolatan hauek bahitan eman ditzake, bere buruari kalterik egin gabe eta bere buruari zor dizkion artak gutietsi gabe? Ene gaiari egokituz zailtasun hori honako hitz hauekin adieraz daiteke:

"Elkartzeko era bat aurkitu behar da, hartan kide bakoitzaren pertsona eta ondasunak, ororen indar osoaz, zainduak eta babestuak izanen baitira, eta haren bidez bat-bederak, besteekin elkartuz ere, bere burua baizik ez baitu obedituko, eta aitzinean bezain libro egonen baita." Funtsezko egiteko horri buru ematen dio gizarte hitzarmenak.

Hitzarmen horretako klausulak hain dira aktaren naturalezari josiak, non den gutieneko aldaketak hutsal eta ondoriorik gabeko bihurraz bailitzake; gisa horretan, nahiz ez diren beharbada inoiz formalki adieraziak izan, orotan tazituki onetsiak eta ezagutuak dira; non ez den gizarte paktua urratzen, orduan bat-bederak bere hastapeneko eskubideak berriz eskuratzen baititu, eta bere libertate naturala berriz hartzen ere, bide batez libertate konbentzionala, naturalari uko eginez erdietsi zuena, galtzen duela.

Klausula horiek guztiak, ongi konprenituz gero, puntu batean biltzen dira: elkartekide bakoitzak bere burua, bere eskubide guztiekin batean, osoki komunitateari alienatu behar diola. Ezen, lehenbizikorik, bat-bederak bere burua osoki ematen duenaz gero, baldintza denentzat bera da, eta baldintza denentzat bera denaz gero, inork ez du interesik besteentzat kalte egingarriago egiteko.

Bestalde, alienakuntza erabatekoa izanik, batasuna ezin tinkoago da, eta ezein elkarkidek ez du gehiago deus eskatzeko; ezen, nola, gizabanakoei zenbait eskubide geldi balekie, ez bailitzateke goragoko ezer komunik gizabanakoen eta publikoaren artean erabaki lezakeenik, halatan, bakoitza puntu bateraino bere buruaren juje izanki, beste guztietan ere hala izan nahi litzateke, eta orduan naturalezako egoerak balirauke, eta elkartea nahitaez edo tiraniko edo bano litzateke.

Azkenik, bat-bederak bere burua orori ematen baitie ez dio inori ematen, eta nola ez baita elkartekiderik, nork geure buruaren gainean hari utzirikako eskubide bera guri halaber zor ez digunik, galdu den guztiaren ordaina irabazten dugu, bai eta indar gehiago ere dugunaren atxikitzeke.

Beraz, baldin haren muinari ez dagokiona bazterrean uzten bada, ikusiko da gizarte paktua hitz hauetan biltzen dela: gutarik bakoitzak bere pertsona eta ahalmen guztia nahimen orokorraren gidaritza gorenaren pean elkargoan ematen du; eta, denek gorputz bat osatuz, kide bakoitza, osotasunaren ezin zatituzko parte gisa, errezibitzen dugu.

Elkartze horrek, ordutik beretik, hitzarmen egile bakoitzaren pertsona bereziaren orde sorrarazten du gorputz moral eta kolektibo bat, biltzarreak boz duen bezainbat partaidez osatua, akta horretarik berorretarik hartzen baitu honek bere batasuna, bere ni-tasun komuna, bere bizia eta bere nahia. Pertsona guztien batasunak sorrarazten duen pertsona publikoari lehenago Zibitate<sup>4</sup> zeritzan, eta orain Errepublika edo gorputz politikoa erraten zaio, haren partaideek Estatu erraten baitiote pasiboa delarik, Subirano aktibo delarik, Potentzia bere irudikoekin erkatzen denean. Elkartekideek kolektiboki Populu izena hartzen dute, eta partilularki, aginpide subiranoko partaide gisa, hiritar deritze, bai eta Estatuaren legeen manupean diren aldetik meneko ere. Baina izen horiek maiz nahasten eta bata-bestearen orde erabiltzen dira; aski da zuzenki enplegatzen direlarik bereiztea.

VII

Subiranoaz

Formula horren bidez ikusten da, elkartzeko aktari badatxekiola publikoak eta gizabanakoez elkarri ematen dioten hitza, eta halatan, gizaki bakoitzak nolabait errateko bere buruarekin hitz hartzen duelarik, bi harreman motaren barnean bere hitza ematen duela: kideei subiranoko partaide gisa, eta subiranoari Estatuko partaide gisa. Ordea ezin erabil daiteke hemen zuzenbide zibileko maxima hura, baitio nork bere buruari emanikako hitzek ez dutela lotzen; ezen, nork bere burua zordun egiten duenean, ez da batere gauza bera, hura bera edo hura partaide den osotasuna hartzedun izatea.

Baldin deliberamendu publikoak meneko guztiak subiranoaren aldera obliga baditzake eta zordun egin, ohartarazi behar da haatik, ezen, hemen bat-bedera kontsideratua den bi harreman desberdinak direla-eta, delibero horrek, alderantzizko arrazoinagatik beragatik, ezin obliga dezakeela subiranoa bere buruaren aldera, eta beraz, horren ondorioz, gorputz politikoaren izaeraren aurka doala subiranoak ezin zaurt dezakeen legerik bere buruari inposatzea. Nola subiranoak bere burua harreman baten arabera baizik ezin kontsidera baitezake, partikularrak bere buruarekin hitz hartzen duelarikako egoeran eta kasuan da: hortik ikusten da ez dela, eta ezin izan daitekeela, inolako oin-legerik populuaren gorputzarentzat obligaziozkoa litzatekeenik, ez eta gizarte paktua bera ere. Horrek ez du erran nahi, hitzarmen hau zaurtzen ez duten gauzetan, gorputz horrek besteen aldera bere burua ezin obliga dezakeela; ezen arrotzaren eretzean, izaki soil bilakatzen da, banako bat.

Baina gorputz politikoak edo subiranoak bere izaera hitzarmenaren saindutasunetik baizik ez baitu hartzen, ezin obliga dezake bere burua, ez besterengana ere, hatsarreko akta horren aurka doan ezertan, hala nola bailitzateke bere buruaren parteren baten alienatzea edo beste subirano baten menean jartzea. Izatea ematen dion aktaren urratzea bere buruaren deuseztatzea litzateke, eta deus ez denak deusik ezin sor dezake.

Jende elementia gisa horretan gorputz batean bildu den pundutik, inor ezin oldar dakioke barneko partaide bati, gorputz osoari jazarri gabe, are gutiago oldar dakioke inor gorputzari, partaideek ondorioak senditu gabe. Halatan hitz hartu duten bi alderdiak molde berean elkarren laguntzera behartzen ditu eginbideak eta interesak, eta gizon berek entseiatu behar dute erlazio bikoitz horri datxezkion abantaila guztien biltzera.

Osatzen duten gizabanakoez bakarrik moldatua baita, subiranoak ez du, eta ezin izan dezake, haien interesen kontrako interesik; beraz, ez du potentzia subiranoak menekoen aitzinera bermegorik ekarri behar, zeren ezinezkoa baita gorputzak bere partaide guztiei kalte egin nahi izan diezaien, eta, gero ikusiko dugunaz, ezin kalte egin diezaioke bati ere partikulariki kontsideraturik. Izateagatik beragatik, osoki izan behar duen bezalakoa izaten da beti subiranoa.

Aitzitik, ez da horrela gertatzen menekoez subiranoaren alderako harremanetan. Ezen, menekoen leialtasunaren segurtatzeko biderik ez balu aurkitzen subiranoak, batak eta besteek interes komuna izanagatik, menekoez hitz emanikakoez bermerik gabe legoke hura.

Alabaina, gizabanako bakoitzak, gizon gisa, nahi berezko bat izan dezake, hiritar gisa duen nahi orokorraren aurkakoa, edo hartarik desberdina. Bere interes bereziak, interes komunak ez bezalako aireak xaramela diezazkioke; mugarik gabe eta naturalki bere gain bizitzeak pentsaraz diezaioke hainari, kausa komunari zor diona dohainikako ordainketa dela, besteek hura galdurik gutiago gal bailezakete, ordaindurik berari kosta lekioken baino. Estatua moldatzen duen pertsona moralari, gizona ez delakoan, arrazoinazko pertsona bati bezala behaturik, hiritarraren eskubideak goza litzake, menekoaren eginbideak bete nahi izan gabe. Injustizia hori heda baledi, ordea, gorputz politikoa galbide betean jar lezake.

Gizarte paktua paper funts gabekoa izan ez dadin, isilean bezala emanikako hitza ere badakar bere barnean, hari esker baitute beste hitz emanek indarra hartzen, eta baitio,

nahi orokorra bete nahi ez duena hala egitera behartuko duela gorputz osoak, horrek ez baitu beste erran-nahirik hau baizik: libro izatera behartua izanen dela; ezen halakoa da, hiritar bakoitza Aberriari ematearekin batean menpekotasun pertsonal guztietarik begiratzan duen baldintza; baldintza honek du makina politikoaren jokua eta jokabidea egiten, hark bakarrik ditu hitz emate zibilak legitimo egiten, bestela absurdu eta tiraniko bailirateke, eta abusurik handienei bidea ireki bailiezaiekete.

## VIII

### Estatu zibilaz

Naturalezazko estatutik estatu zibilera iragate horrek arras aldakuntza ohargarria ekartzen du gizona baitan, haren ibilmoldean justiziak instinktuaren tokia hartzen baitu, eta haren egitateek, lehen eskas zuten moralitatea hartzen baitute. Noiz eta eginbidearen bozak oldar fisikoa ordezkatzan baitu, eta zuzenbideak gutizia, orduan bakarrik beharturik kausitzen da ordu arte bere buruari baizik behatu ez zion gizona, beste printzipio batzuen arabera jokatzera, eta bere arrazoinamenari bere jaidurei baino arreta handiagoaren ematera. Nahiz egoera horretan delarik naturalezatik heldu zaizkion abantaila batzuez gabetzen den, irabazten dituenak hain handi dira, haren fakultateak hala trebatzen eta garatzen dira, haren ideiak hala hedatzen, haren sendimenduak hala nobletzen, haren arima guztia hain gora igaten, non, estatu berrian aurkitzen dituen abusuek maiz aurrean baino egoera gaiztoagoan jartzen ez balute, gelditu gabe benedikatu behar bailuke, egoera hartarik sekulakotz aterarazi duen une zorionekoa, hari esker, animalia zozo eta gogo hertsia zenetik izaki adimendun bat eta gizon bat atera baita.

Balantza hori guztia erkaerrezak diren perpausetan bil dezagun. Gizonak gizarte paktuagatik galtzen duena, libertate naturala da, bai eta gutiziatzen duen, eta eskura dezakeen, guztiari buruz mugarik gabeko eskubide bat ere. Irabazten duena, libertate zibila da, bai eta, duen guztiaren jabegoa ere. Konpentsazio horietan ez galtzeko, ongi bereizi behar da, gizabanakoaren indarrez beste mugarik ez duen libertate naturala, nahi orokorrak mugatzen duen libertate zibiletik, eta, halaber, indarraren ondorioa den ukantza edo lehen egoilearen eskubidea, ageri positibo batean bakarrik funtza daitekeen jabegotik.

Aurrean erranez gain, libertate morala ere gainera dakioke estatu zibilaren irabazari, deusek ez baitu gizona egiazki bere buruaren nagusi egiten hark baizik; ezen gutizia hutsaren berezko oldeari esklabogoia dagokio, eta bere buruari emanikako legearen obeditzeari, aldiz, libertatea. Baina sobera mintzatu naiz puntu horretaz, eta libertate hitzaren zentzu filosofikoa ez dagokio ene hemengo gaiari.

## IX

### Eremu errealaz

Komunitatea moldatzen den unean, kide bakoitzak bere burua hari ematen dio, bere burua eta bere indar guztiak, dituen ondasunak barne, hauek haien parte baitira. Beste esku batzuetara iraganez, ukantzaren izaera ez da aldatzen akta horrekin, ez eta subiranoaren eskuetan jabetasun bilakatzen. Baina zibitatearen indarrak partikularrenak baino anitzez handiagoak baitira, ukantza publikoa ere azkarrago eta kengaitzagoa ere izaten da, arrotzen eretzean bederen, legitimoagoa izan gabe. Ezen, eskubide guztien oinarria den gizarte hitzarmena dela bide, bere partaideen ondasun guztien nagusi da barnean Estatuak; baina beste potentziei buruz, ez da hala, partikularrengatik jaso duen lehen egoilearen eskubideagatik baizik.

Lehen egoilearen eskubidea, indartsuenarena baino errealago izanagatik, jabegoaren eskubidea jarri ondoan baizik ez da egiazko eskubide bilakatzen. Gizon orok behar dituen guztien izateko eskubidea du naturalki; baina ondasunen baten jabe egiten duen akta positiboak gaineratiko guztiez gabetzen du. Haren partea egina izan denaz gero,

hartara mugatu behar du, eta ez du gehiago eskubide bihirik elkartearen aldera. Horra zergatik errespetagarri zaion gizon zibil orori, naturalezako egoeran hain ahula den lehen egoilearen eskubidea. Eskubide horretan ez da hainbeste errespetatzen bestek duena, nola nork berea ez duena.

Eskuarki, edozein lur eremutan lehen egoilearen eskubidearen baliatzea haizu izan dadin, ondoko baldintza hauek bete behar dira. Lehenbizikorik lur horretan aitzinetik inor ez egotea; bigarrenekorik, bizitzeko behar den hura baizik ez hartzea; hirugarrenekorik, haren ukantza, ez zeremonia bano baten bidez, baina lanaren eta lurlantzearen bidez markatzea, hori baita, ageri juridikorik ez denean, besteek errespetatu behar duten jabetasun seinale bakarra.

Alabaina, beharrari eta lanari lehen egoilearen eskubidearen ematea ez ote da haren ahal bezain urrun hedatzea? Zilegi dea eskubide horri mugarik ez ematea? Askiko dea lur komun batean zango ematea, horko nagusi izateko? Askiko dea beste gizonen lur hartarik denbora laburrez hasantzea, haiei berriz itzultzeko eskubidearen sekulakotz kentzeko? Nolatan gizon batek edo populu batek, giza genero guztia hartaz gabetuz, eremu baztergabe bat bere dezake, usurpazio gaizgarriaren bidez ez bada, zeren gaineratiko gizonei kentzen baitizkie naturalezak ororentzat baltsan utzi elikadurak eta egoitza? Nuñez Balboa, Gaztelako koroaren izenean, hegoaldeko itsasoaz eta Amerikaz jabetu baitzen, aski ote zen hori, hango bizitzaile guztien hartaz gabetzeko, eta munduko printze guztien handik kanpo edukitzeko? Gisa horretan, horrelako zeremoniak aski funts gabeki errepikatzen ziren, askiko baitzuen Errege katolikoak, bere gabinetetik unibertso guztiaz behingoan jabetzea, eta beste printzeek aurretik zituztenen bere inperio horretarik kentzea ondotik.

Konpreni daiteke nola partikularren lurrak, bilduak izanik eta mugakide izanki, eremu publiko bilakatzen diren, eta nola subiranoaren eskubidea, menekoetarik hauen eremuetara hedatua izanik, ber denboran erreal eta pertsonal bihurtzen den. Horrek menpekotasun handiagoan ematen ditu ukaileak, haien indarrek berek dutelarik haien leialtasuna bermatzen. Abantaila horri ez zitzaizkion ongi ohartu antzinako monarkak, beren buruak persiarren, skytiarren edo mazedoniarren errege deiturik, iduri baitzuen, gizonen buruzagi gisa hobeki ikusten zituztela beren buruak, herriko nagusi gisa baino. Gaurko egunetako monarkak, abilkiago, Frantziako errege, edo Espainiako, Ingalaterrako, etabarreko errege deitzen dira. Alabaina, lurrak eskutan edukiz, hango bizitzaileak ere eskutan dituztela arras segur dira.

Alienakuntza horretan bitxiena hauxe da: partikularren ondasunak beretuz, komunitateak ez ditu batere haietaz gabetzen, aitzitik, haien ukantza legitimoa segurago egiten du, eta usurpazio zena egiazko eskubide bilakarazten, eta, halaber, gozamina jabetasun ere. Beraz, ukaileak ondasun publikoaren begirale gisa kontsideratuak izanik, haien eskubideak estatukide guztiez errespetatuak, eta arrotzaren aurka Estatuaren indar guztiez bermatuak izanik, erran daiteke, utzi duten guztia berriz gibelera hartzen dutela, bai publikoarentzat, eta bai, areago, haientzat, abantailos izan den emaitza bati esker. Paradoxa hau errazki esplikatzen da subiranoak eta jabeak funts beraren gainean dituzten eskubideen arteko bereizkuntzari esker, hala nola hemen urrunxeago ikusiko baita.

Gerta daiteke, bestalde, deus ondasunik izan baino lehenago, gizonak biltzen eta bat egiten hastea, eta denentzat aski den lur bat bereturik, orok batean gozatzea, edo beren artean partekatzea, berdinki edo subiranoak finkatu proportzioen arabera. Nolakoa nahi baita izan dadin eskuratze horren egin moldea, komunitateak denen gainean duen eskubidearen pekoa da gizabanako bakoitzak bere funts berezkoaren gainean duen eskubidea; bestela ez bailitzateke ez gizarte lokarriaren sendotasunik, ez eta subirotasunaren erabileran egiazko indarririk.

Kapitulu hau eta liburu hau, gizarte sistema osoari oinarri gisa baliatu behar zaion ohar batez bururatuko dut. Oinarrizko paktuak ez du elkarren berdintasun naturala suntsitzen; aitzitik, naturalezak gizonen artean ezarri desberdintasun fisikoaren orde, berdintasun moral eta legitimoa ematen du, eta indarrari edo jeinuari dagokionez desberdin izanik ere, konbentzioz eta eskubidez<sup>5</sup> gizon guztiak elkarren berdin egiten ditu. Lehen liburuaren akabantza.

## BIGARREN LIBURUA

### I

Nola subiranotasuna ezin alienatuzkoa den

Aitzinago finkatu printzipioen lehen ondorioa, eta garrantzi handiena duena hauxe da: nahimen orokorrak baizik ezin gida ditzakeela Estatuaren indarrak, honen eratzeko arrazoina izan zen onezia komunaren arabera; ezen, interes berezien arteko kontrakotasunak beharrezkoa egin badu gizarteen sortzea, interes horien berorien arteko adostatzeko du ahalezko egin. Interes desberdin horiek komunean dutenak moldatzen du gizarte lokarria, eta interes guztiek bat egiten duten zenbait puntu ez balitz, gizarterik ezin izan liteke. Bada, interes komun horren arabera bakarrik gobernatu behar da gizartea.

Badiot, beraz, ezen, subiranotasuna ez baita nahimen orokorraren obratzea baizik, sekula ezin aliena daitekeela, eta izaki kolektiboa baizik ez izanik, bere buruaz beste ordezkariarik ezin izan dezakeela; boterea besteri eman dakioke, ez, ordea, nahimena.

Alabaina, gerta badaiteke nahi partikular bat nahi orokorrarekin zenbait puntutan bat etortzea, ezin gertatuzkoa da akordio hori iraunkor eta etengabea izan dadin; ezen nahimen partikularrak bere izatez preferentzietara jotzen du, eta nahimen orokorrak, berriz, berdintasunera. Are gertaezinagoa da, akordio horrek, betikotz balirau ere, bermerik izan dezan; eta orduan ere, ez litzateke artearen ondorioa, baina zoriarena. Subiranoak baderrake: gizon horrek nahi duena, edo nahi duela dioena da ene oraingo nahia; baina ezin derrake: gizon horrek bihar nahiko duena orduan ere nahiko dut; ezen absurdua da nahimenak bere burua etorkizunean katea dezan, eta ez da ezein nahimenen esku, nahi duenaren ongiaren aurka lihoakeen deus ere onestea. Populuak, beraz, obedituko duela hitz ematen badu, egitate horren bidez bere burua deuseztatzen du, bere populu izaera galtzen du; nagusi bat izaten den pundutik ez da gehiago subiranorik, eta ordutik beretik gorputz politikoa suntsitua da.

Ez da horrekin aditzera ematen, buruzagien manuek ezin adieraz ditzaketela nahi orokorrak, kontrakarrean jartzeko libro den subiranoak kontra egiten ez dueno bederen. Horrelako kasuan, isiltasun unibertsala populuaren onespentzat eduki behar da. Hori urrunago argituko da.

### II

Nola subirotasuna ezin zatituzkoa den

Subirotasuna alienaezina den arrazoin ber-beragatik, ezin zatituzkoa ere da. Ezen, edo nahia orokorra<sup>6</sup> da, edo ez da hala; edo populuaren gorputzarena da, edo parte batena bakarrik. Lehenbiziko kasuan, nahi aldarrikatu hori subirotasunezko egintza da, eta legea egiten du. Bigarreneko kasuan, nahi partikularra baizik ez da, edo magistraturazko akta; gehienez ere dekretua da.

Baina gure politikariek subirotasuna bere printzipioan ezin zatika baitezakete, objektuan egiten dute; hartan partekatzen dituzte indarra eta nahimena, ahalmen legezkoa eta ahalmen exekutiboa, zerga, justizia, eta gerlako zuzenbideak, barneko kudeakuntza eta arrotzarekin hitz hartzeko ahala; batzuetan parte horiek guztiak nahasten dituzte, eta beste batzuetan elkarretarik bereizten dituzte; kanpotik ekarritako osagaiez moldatua den izaki fantastikoa egiten dute subiranoa, gizona gorputz desberdin batzuen partez osa balezate bezala: gorputz batetik begiak hartuz, beste batetik besoak, eta hirugarren batetik oinak. Japoniako tartarikariek ere, haur gorputz bat harturik, behatzaileen aitzinean zatikatzen omen dute, eta gero gorputz-alderdi guztiak bata-bestearen ondotik airera bota ondoan, haurra bizirik eta osorik lurrera erorarazten omen dute. Horrelatsukoak dira gure politikarien godalet-jokutriak; gorputz soziala ferian bezalako jokaldi liluragarri bati esker zatikatu ondoan, parteak berriz biltzen dituzte inork ez dakiela nola.

Aginpide subiranoaz nozio zuzenik moldatu ez izanetik heldu da huts hori, bai eta aginpide honen ekarriak baizik ez zirenak honen partetzat hartu izanetik ere. Horrela, adibidez, gerlaren deklaratzeko akta, eta bakearen egitekoa, subiranotasunezko aktatzat jo dira, ez baitira hala, zeren akta horietarik bakoitza ez baita lege bat, baina legearen aplikapena bakarrik, legearen kasua mugatzen duen akta berezi bat hots, hala nola ikusiko baita argiki lege hitzari datzekion ideia finkatzen denean.

Beste zatikadurak kontsideraturik ere, ohar gintezke subirotasuna zatikatua ikusi uste dugun aldi guztietan, okerrean gaudela, subirotasun horren partetzat hartzen diren eskubideak oro haren peko direla, eta beti suposatzen dituztela goreneko subiranotasun batzuk, hauen exekuzioari baizik ez baitagozkio eskubide horiek.

Nekez erran daiteke zehaztasun falta horrek zenbatetaraino ilundu dituen autoreek zuzenbide politikoan eman epaiak, noiz ere, eraiki zituzten printzipioetan oinarriturik, jujatu nahi izan baitituzte alde batetik populuen eta bestetik erregeen eskubideak. Bat-bederak ikus dezake Grotiusen lehen liburuko III. eta IV. kapituluetan, nola gizon jakintsun hori eta Barbeyrac haren itzultzailea nahasten eta zamartzen diren beren sofismetan, beldurrez beren ideien haritik sobera mintza, edo ez aski, eta beldurrez zimur ere, alde jarri behar zituzten interesak. Grotiusen, bere aberriaz deskontent, eta Frantzian aterbe hartuak, lausengatu nahi baitu liburua eskaintzen dion Louis XIII.a, bost egin ahalak egiten ditu populuei beren eskubideen kentzeko, eta antzerik antzetsuenaz erregeei emateko. Barbeyrac-en gustukoa ere zatekeen berdin egitea, bere itzulpena George I.a Ingalaterrako errege zenari eskaini baitzion. Baina zorigaitzez James II.aren kanporaketatik -Barbeyrac-ek abdikazio erran baitzion horri-, kontuz, itzuli-mitzuli eta durdurika bezala, ibili behar izan zuen, amoregati-eta William ez zedin usurpatore baten moduan ager. Bi idazle horiek egiazko printzipioak beretu balituzte, zailtasunak oro airatuko ziren eta beren ideiei leial egonen ziren; ordea tristeki egia baizik ez zuten erranen, eta populuari bakarrik gorte egingen. Egia, haatik, ez dakar fortunarik, eta ez populuak ematen anbasadarik, katedrarik, ez eta errentarik.

### III

Ea nahimen orokorra makur ote dabilkeen

Aitzinean erranari jarraikiz nahi orokorra beti arteza da eta baliagarritasuna publikoari buruz itzulia: ordea, populuaren deliberamenduak ez dira beti hain artezak. Nork bere ongia xerkatzen du beti, baina ez du beti ikusten. Populua ez da sekula korronpitzten, baina maiz engainatzen, orduan bakarrik ematen baitu gaizkia nahi duelako irudia.

Maiz alde handia da ororen nahiaren eta nahi orokorraren artean; azken honek interes komunari baizik ez dio behatzen, besteak, berriz, interes pribatuari, nahikunde partikularren metaketa hutsa delarik. Baina nahi hauetarik ken itzazu elkar ezeztatzen duten plusak eta minusak<sup>7</sup>, eta diferentzien batuketa gisa nahi orokorra gelditzen da.

Baldin, aski argitua izan ondoan, populuak erabakia hartzean hiritarrek batere komunikaziorik ez balute beren artean, diferentzia tipien kopuru handitik beti nahi orokorra atera liteke, eta erabakia beti ona litzateke. Baina azpiz elkartzen bada, denen arteko elkarketaren kaltetan partekako elkarketak egiten badira, elkarte bakoitzaren nahia elkartekideentzat nahi orokor bilakatzen da, eta Estatuarentzat, aldiz, nahi partikular; erran daiteke orduandanik ez dela gehiago gizon bezainbat, baizik ere elkarte bezainbat boz emaile. Diferentziak ez dira hain kopurutsuak, ez eta emaitza hain orokorra. Azkenik, elkarte horietarik bat hain handia izaten da non beste guztiei nagusitzen baitzaie, orduan emaitza ez baitagokio gehiago diferentzia tipien batuketari, diferentzia bakar bati baizik; ez da engoitik nahi orokorrik, eta iritzi irabaztuna iritzi partikularra baizik ez da.

Nahi orokorraren egiazki ezagutzeko, munta handikoa da, beraz, gizarte partzialik ez dadin izan Estatuan, eta hiritar bakoitzak bere iritzia Estatu bakarrik gogoan izanik



molda dezan<sup>8</sup>. Horrelakoa izan zen Lykurgos handiak egin ekarpen bakar baina gain-gainekoa. Baldin gizarte partzialak badira, ugaltu behar dira eta elkarren berdin atxiki, hala nola egin baitzuten Solonek, Numak eta Serviok. Horiek dira on diren bide bakarrak, nahimen orokorra beti argitua izan dadin eta populua bide makurretik ez doan.

#### IV

Botere subiranoaren mugez

Baldin bizia partaideen batasunean gauzaturik daukan pertsona morala baizik ez bada Estatu edo Zibitatea, eta baldin dituen arduetan garrantzitsuena bere iraunpena badu, indar unibertsal eta behartzailea behar du, parte bakoitzaren, osotasunari hobekienik heldu zaion eran higitzeko eta hartan kokatzeko. Nola naturalezak gizon bakoitzari ahalmen absolutua ematen baitio bere gorputz-alderdien gainean, hala gizarte paktuak ere gorputz politikoari ahalmen absolutua ematen dio bere partaideen gainean, eta nahi orokorrak gidatzen duen ahalmen horri berari ematen zaio subiranotasunaren izena.

Baina pertsona publikoaz landa, hura osatzen duten pertsona pribatuak ere kontsideratu behar ditugu, haien bizia eta libertatea ez baitira alabaina pertsona publikoari lotuak. Halatan, ongi bereizi behar dira elkarretarik hiritarrek eta subiranoak zeinek bere aldetik dituzten eskubideak<sup>9</sup>, bai eta lehenbizikoei meneko gisa dituzten eginbideak, gizon gisa gozatu behar duten eskubide naturaletik.

Onartzen da, beraz, bat-bederak, gizarte paktua dela kausa, bere ahalmenetik, bere ondasunetarik, bere libertatetik alienatzen duen guztia, komunitatearentzat munta duen partea bakarrik dela. Haatik onetsi behar da, modu berean, subiranoa bakarrik dela garrantzi horren jule.

Hiritar batek, subiranoak galdatzen dituen orduko egin behar ditu Estatuari egin diezazkiokeen zerbitzu guztiak; ordea, subiranoak bere aldetik ezin eman diezaieke menekoei komunitateari balia ez lekiokkeen katearik; horrelako nahikunderik ere ezin izan dezake, ezen arrazoinaren legean -naturelezaren legean bezala- deusik ez da kausarik gabe egiten.

Gorputz sozialari lotzen gaituzten obligazio eta hitz emanak, elkarren eretzekoak direlaketz bakarrik dira bete beharrekoak, eta izaera halakoa dute non haiek konplutuz ezin lan egin baitezakegu besteren fagoretan, ber denboran guhauren onetan ere ari izan gabe. Zergatik nahi orokorra beti arteza da, eta zergatik denek nahi dute beti bakoitzaren zoriona? Inork ez duelaketz bere burua bakoitz horren jabe egiten, eta ororentzat bozkatzean bere burua gogoan ez duen inor ez delaketz. Horrek frogatzen du eskubide berdintasuna eta honek sorrarazten duen justiziaren nozioa, bat bederak bere buruari ematen dion lehentasunari, eta beraz gizonaren naturalezari, darraizkiola; halaber frogatzen du, nahimen orokorra bere objektuan nola bere esentzian izan behar duen bezalakoa izateko, oroganik abiatuz, orori aplikatu behar zaiola, eta bere berezko arteztasuna galtzen duela zenbait objektu mugatu eta berezi hartzen duelarik helmugatatzat; zeren orduan, arrotz zaigunaz jujamendu ematerakoan, ez baitugu gidatzen gaituen zuzentasunezko printzipio egiazkorik.

Alabaina, baldin aipabidea ematen duena lehenagotik konbentzio orokor batean arauetatu izan ez den gertakari edo eskubide berezia bada, auzia sortzen da. Auzi horretan partikular interesatuek osatzen dute alderdi bata, eta publikoak berriz bestea, baina orduan ezin ikus dezaket zein legeri jarraiki behar zaion epaitzerakoan, ez eta zein jujek epaitu behar duen ere. Horretaz, bada, funsgabekeria litzateke nahimen orokorrak horretako espresuki hartu erabaki batean fidatu nahi izatea, ezen alderdi bataren konklusioaren arabera baizik ezin izan daiteke erabaki hura, eta beraz bestearentzat arrotz, eta partikularra, kasu horretan zuzenkontrakoa eta makur finkatua. Horrela, nola nahimen partikular batek ezin ordezkari baitezake nahi orokorra, hala-hala nahi orokorra izaeraz aldatzen da objektu partikularra duenean, orduan, nahi orokor gisa, ezin har baitezake erabakirik, ez gizon bati eta ez gertakari bati buruz. Atenasko populuak, adibidez, bere buruzagiak kargutan ematen zituelarik, edo kargutik kentzen, edo bati ohore egiten ziolarik, eta besteari gaztigu ematen, eta dekretu partikular asko eta askoren bidez gobernuaren akta guztiak oro batean, haien artean bereizkuntzarik egin

gabe, betearazten zituenean, populuak ez zuen gehiago, hitz garbitan mintzaturik, nahi orokorrik; ez ziharduen gehiago subirano gisa, magistratu gisa baizik. Hori guztia usaiako usteen kontra doala iduri lukeen arren, eman bekit neure ideien aurkezteko astia.

Halatan gogoan jar bedi, ez duela bozen kopuruak hala orokor egiten nahimena, nola bozak lotzen dituen interes komunak; ezen instituzio horretan bat-bederak besteei inposatzen dizkien baldintzak onartu behar ditu; interesaren eta justiziaren arteko akordio miresgarri horrek ematen die deliberamendu komunei zuzentasunezko izaera, horrelakorik ez baita agertzen arazo partikularrak eztabaidatzen direnean, zeren ez baita orduan interes komunik, jujearen araua eta alderdiarena lotzen eta berdinkatzen dituenik.

Printzipiora edonondik ere itzulirik, ondorio beretara heltzen gara: hots, gizarte paktuak hiritarren artean halako berdintasuna finkatzen du, non oro ber baldintzen pean obligatuak baitira, eta denek eskubide berak gozatu behar baitituzte. Halatan paktuaren izaeragatik, subiranotasunezko akta orok, erran nahi baitu nahimen orokorraren akta autentiko orok, hiritar guztiak molde berean obligatzen eta fagoratzen ditu, gisa horretan subiranoak nazioaren gorputza baizik ez baitu ezagutzen, eta hura moldatzen dutenetarik bat ere ez baitu bereizten. Zer da beraz propioki subiranotasunezko akta bat? Ez da goikoak beherekoarekin finkatu konbentzioa, baina gorputzak osagai dituen alderdietako bakoitzarekin eginikakoa: konbentzio legitimoa da, zeren oinarrian gizarte hitzarmena baitu; zuzena da, zeren denentzat bera baita; baliagarria ere da, zeren ororen oneziaz beste xederik ezin izan baitezake; eta konbentzio sendoa ere bada, zeren haren berme baitira indar publikoa eta botere subiranoa. Horrelako konbentzioen pean daudeno, menekoek ez dute inor obeditzen, beren nahiaren manua konplitzen dute soilik; eta galdatzen bada noraino hedatzen diren, alde batetik, subiranoaren eskubideak, eta, bestetik, hiritarrenak, haxe galdatzen da: ea noraino beren buruak elkarren aldera obliga ditzaketen hiritarrek, bakoitzak beste guztien aldera, eta denek bakoitzaren aldera.

Horrela ikusten da, guztiz absolutua, guztiz sagaratua, guztiz bortxaezina izanagatik, botere subiranoak ezin gaindi ditzakeela konbentzio orokorren mugak, eta gizon oro nahi bezala balia daitekeela konbentzio horiek utzi dizkioten ondasunez eta libertateaz; halatan subiranoak ez du inoiz meneko bati beste bati baino gehiago eskatzeko eskubiderik, zeren arazo hura, orduan, arazo partikular bilakatzen delarik, ez baitu hark gehiago eskurik hartan.

Bereizkuntza horiek onetsi ondoan, ez da batere egia gizarte hitzarmenean partikularren partetik egiazko ukamenik badela. Aitzitik, hitzarmen horri esker, haien egoera aitzinean zen baino biziki hobea da, eta alienatze baten orde trukatzeko bat abantailatsua egin dute, egoera kordokakor eta mengel baten lekuan, beste bat, hobea eta seguragoa, finkatuz, independentzia naturalaren orde, libertatea eskuratuz, besteri kalte egiteko ahalari uko eginez beren segurantzaren segurtatuz, bestek gaindi zezaketen beren indarraren lekuan, gizarte batasunari esker ezin garaituzkoa den eskubide bat izanez. Beren biziak ere Estatuari eskaini baitizkiote, haren gerizapean jarriak dituzte, eta gertatzen bazaie haren defendatzeko bizien irriskutan ematea, hark emana gibelera itzultzen dute, besterik ez. Beren bizien zaintzeko baliatzen zaienaren defendatzearen, ezin itzurizko gudukaldietan hiltzea irriskatuz ere, zer egiten dute, naturalezako egoeran ere maizago eta irrisku handiagoak harturik ez legiketenik? Beharra denean orok beren aberriarentzat gudukatu behar dute, hori hala da, baina inork inoiz ez du beretzat gudukan ari izan beharrik. Gure segurtasuna segur egiten duena defendatzen dugularik, segurtasun hura ken balekigu geure buruen zaintzeko hartu behar genituzkeen irriskuetarik batzuk harturik ere, ez ote gara halarik ere irabaztun ateratzen?

## V

### Biziaren eta heriotzaren gaineko eskubideaz

Gizabanakoek ez baitute beren bizien gainean eskubiderik, galdatzen da nolatan eman diezaioketen subiranoari, ez duten eskubide hori. Gaizki egina delakotz du galde horrek, erantzun-zail delako itxura. Bere biziaren zaintzeko, gizonak badu haren irriskutan emateko eskubidea. Errana izan ote da sekula, suaren aitzinean ihes egiteko bere burua leihotik behera bota duena, bere buruaz beste eginik hobendun dela? Krimen hori egotzi ote zaio sekula ekaitz batean hil izan denari, ekaitzaren mentura jakinik itsasoratu delakoan?

Gizarte hitzarmenaren helburua elkarrekin hitz hartu dutenen zaintzea da. Helburua nahi duenak hartako bideak ere nahi ditu, eta bide horietan nahitaez irrisku zenbait agertzen dira, galera batzuk ere bai. Nork ere nahi baitu besteen gustuz bizia atxiki, hark ere behar orduan besteentzat berea eman behar du. Hiritarra, haatik, ez da legeak har dezan nahi duen irriskuaren juje, eta Printzeak errana diolarik: on duk Estatuarentzat hi hil hadin, hil behar du; zeren baldintza horri esker baizik ez baita ordu arte segurtasunean bizi izan, hainbestenarekin haren bizitzea ez baita gehiago naturalezak egin ongia bakarrik, baina Estatuak baldintzapean eginikako emaitza ere.

Krimen egileei ematen zaien hiltzeko gaztigua ikusmolde horren berorren arabera kontsidera daiteke: eraile baten biktima ez izatearren onartzen dugu, eraile bilaka bagintez hilak izatea. Hitzarmen honetan, nork bere biziaren begiratzea, ez galaraztea, segurtatu nahi dugu, eta ez da zergatik pentsa halatan hitzarmen egile bihi batek orduan bere buruaren urkaraztea gogoan darabilela.

Gainera, gizarte zuzenbidea zaurtzen duen gaizkile oro, bere egitateen ondorioz aberriaren aldera jazarle eta traidore egiten da, haren legeak bortxatuz ez baita gehiago hango partaide, eta gerla ere egiten baitio. Orduan Estatuaren iraupena eta harena elkarrezinak dira, bietarik batek hil behar du, eta hobenduna hilarazten delarik hiritar gisa baino gehiago etsai gisa egiten da. Hainak gizarte hitzarmena urratu duelako frogak eta aldarrikapenak dira prozedurak eta epaia, adierazten dutelarik, beraz, ez dela gehiago hura Estatuako partaide. Ordea, nola honek, gizartean egonez bederen, partaidetzat jo baitu bere burua, handik kendua izan behar du, edo erbesteratuz paktuaren urratzaile gisa, edo hilez etsai publiko gisa; ezen horrelako etsaia ez da pertsona morala, gizona da, eta orduan gerla zuzenbideak garaituaren hiltzea onartzen du.

Baina, erranen da krimen egilearen kondenatzea akta partikularrra dela. Hala da. Horretaz, kondenatze hori ez dagokio subiranoari; berak erabili gabe besteri eman diezaiokeen eskubidea da. Ene ideiek orok elkar atxikitzen dute, baina ezin ager ditzaket denak batean.

Gisa guztiez suplizioen maiztasuna beti ahuleziaren seinalea da, edo gobernamenduaren nagikeriaren marka. Ez da gaiztorik, zerbaitentzat on ezin bihur daitekeenik. Exenpluagatik ere, ez da inor hiltzeko eskubiderik, perilik gabe bizirik ezin atxiki daitekeena baizik.

Barkamenaren emateko edo legearen arabeko gaztigua hobendunaren fagoretan kentzeko eskubidea, jujea eta legea baino gorago denak baizik ez du, erran nahi baitu, subiranoak bakarrik. Eta oraino: egiteko horietan honek duen eskubidea ez da hain garbia, eta haren erabiltzeko paradak arras bakanka baizik ez dira agertzen. Ongi gobernatua den Estatuan gaztigu guti ohi da, ez maiz barkatzen delakotz, baina krimen egile guti delakotz. Estatua ahultzen delarik krimen aniztasunak gaztigurik eza dakar. Erromako Errepublikaren denboran, ez Senatua, ez Kontsulak, ez dira sekula barkatzera entseiatu; populua bera ere ez, nahiz zenbaitetan bere jujamendua ezababatzen zuen. Ardurako barkamena, laster lege hausteez barkamen beharrik ez duketelako seinalea da,

eta bakoitzak dakusa horrek nora daraman. Baina bihotza marmarrean nabari dut, luma geldiarazi beharrez dabilkidalarik; utz diezazkiogun kontu horiek sekula huts egin ez duenari, eta barkamen beharretan inoiz gertatu ez dena mintza bedi haietaz.

## VI

### Legeaz

Gizarte paktuaren bidez, izatea eta bizia eman diogu gorputz politikoari; orain, legeen bidez, mugikortasuna eta nahimena eman behar dizkiogu. Ezen gorputz hori osatzen eta batzen den hatsarreko aktak ez ditu oraino deusetan haren iraunbideak mugatzen.

Ordenaren arabera eta on dena, gauzen naturalezaz izaten da hala, ez giza hitzarmenei esker. Justizia oro Jainkoaganik heldu da, hura da sorburu bakarra; baina hain goratik datorkigunaren hartzen bageneki, ez genuke ez gobernuren, ez legeren beharrik. Naski, bada arrazoinetik bakarrik jalgitzen den justizia unibertsala, baina justizia hori gure artean onartua izateko elkarri buruzkoa izan behar da. Gauzei gizatasunaren arabera behatuz gaztigu naturalik ez denaz gero, justiziaren legeak alferrikakoak dira gizonen artean; gaizto denaren ongia baizik ez dute egiten, bai eta zuzen denaren gaizkia ere, baldin, honek lege horiek beste guztien eretzearan errespetatzen dituen arren, inork ez baditu haren eratzeraz errespetatzen. Horrela bada, konbentzioak eta legeak behar dira eskubideen eta eginbideen elkarri lotzeko, eta justiziaren bere xedera berrekartzeko. Naturezako egoeran, hartan oro elkargoan baitira, ez dut zorrik deusik hitz eman ez diedanengana, eta baliatzen ahal ez zaidanaz baizik ez dut besterena dela aitortzen. Ez da horrela gertatzen, aitzitik, eskubide guztiak legearen arabera finkatzen dituen estatu zibilean.

Baina zer da, bada, legea? Hitz horri ideia metafisikoak eratxikitzen zaizkiono, elkar aditu gabe arrazoinatzen jarraikiko gara, eta naturalezaren legea zer den erranik ere, Estatuaren legea zer den ez da hobeki jakinen.

Jada errana dut objektu partikularrik duen nahi orokorrik ez dela. Alabaina, objektu partikular hori, edo Estatuaren barnean da, edo kanpoan. Baldin Estatutik kanpo bada, arrotz zaion nahia ez da orokor harentzat; eta objektua barnean bada, Estatuaren parte bat da. Orduan osotasunaren eta parte horren artean bi izaki berezi sortzen dituen erlazio bat moldatzen da, izaki bata parte hori baita, eta bestea, berriz, parte horretaz gabetua den osotasuna. Baina delako parte hori kendua izan zaion osotasuna ez da gehiago osotasuna, eta erlazio horrek diraueno ez da gehiago osotasunik, elkarren berdin ez diren bi parte baizik; horren guztiaren ondorioa da, bataren nahia ez dela bestearen eretzearan orokorra.

Baina populu osoak populu osoari buruz zerbait erabakitzen duelarik, bere burua baizik ez du kontsideratzen, eta orduan erlazorik sortzen bada, ikuspundu bateko objektu osoaren eta beste ikuspundu bateko objektu osoaren artean egiten da, osotasuna batere zatitan eman gabe. Orduan erabakia hartzen den gaia hain orokorra da nola baita erabakia hartzen duen nahia. Akta horri deritzat legea.

Legeen objektua beti orokorra izaten dela diodalarik, aditzera ematen dut menekoak gorputz gisa kontsideratzen dituztela legeek, eta egintzak abstraktuki; sekula ere ez dute egintza partikularrik kontuan hartzen, ez eta gizonik ere gizabanako gisa. Horrela pribilegioak izanen direla aldarrika dezake legeak, baina inori ere izendatuki ezin eman diezazkioke; legeak hiritar klaseak egin ditzake, bai eta erran ere zein ezaugarri doazkion klase bakoitzari, baina ezin izenda dezake urlia edo sandia klase horietan; errege gobernu bat, eta ondoretasunezko agente jarraipena, finka dezake, baina ezin izenda dezake erregerik edo errege familiarik; hitz batez, objektu indibidualei dagozkien betekizunak oro legearen eskutik kanpo daude.

Idea horri jarraikiz, berehala ikus daiteke, legeak nahi orokorraren egintzak baitira, ez dela gehiago galdatu behar nori dagokion legeen egitea, ez eta, Printzea Estatuko

partaide denaz geroz, hura legearen gainetik denentz ere, edo legea zuzenkontrakoa ahal datekeenentz, zeren inor ez baita zuzenkontrakoa bere buruaren aldera; halaber, ez da galdatzerik nolatan libroak eta legeen menpekoak garen, lege horiek gure nahien erregistroak baizik ez baitira.

Nola legeak nahimenaren unibertsaltasuna eta objektuarena ere bere barnean biltzen baititu, ikusten da gizon batek, nornahi ere izan dadin, bere baitarik manatzen duena ez dela legea, eta, halaber, subiranoak objektu partikular batez agintzen duena ere ez dela legea, dekretua baizik, hots, ez subiranotasunezko akta, magistraturazkoa baizik.

Legeek antolatzen duen Estatua Errepublikak deitzen dut, edozein administramolderen bidez antolatua izan dadin: ezen, orduan bakarrik gobernatzen du interes publikoak, eta zer baita da publikotasuna. Legitimo diren gobernamendu guztiak errepublikanoak<sup>10</sup> dira: adieraziko dut urrunago zer den gobernamendu hori.

Proprioki, elkartze zibilaren baldintzak baizik ez dira legeak. Legeen peko den populuak legeen egilea izan behar du; elkartzen direnei baizik ez dagokie gizartearen baldintzen arautzea. Baina nola arautuko dituzte? Bat-bateko inspirazio baten ondotik elkar harturik? Gorputz politikoak ba ote du organorik nahi horien adierazteko? Nork emanen dio akta horien eratzeke eta aitzinetik aldarrikatzeko behar den aurretikako ikusmena, edo behar orduetan nola moldatuko ditu? Legegintza sistema baten moldatzea hain egiteko zaila eta hain obra handia delarik, nola buru ematen dio jendaldeitsu batek, on zaiona bakanka baizik ez jakinik zer nahi duen ere ez baitaiki ardura? Berenaz populuak ongia nahi du beti, baina berenaz ez du beti ikusten. Nahi orokorra beti arteza da, baina hura gidatzen duen jujamendua ez da beti argitua. Diren bezala, batzuetan ager dakizkion komeni den bezala, ikusarazi behar zaizkio gauzak, eta bila dabilen bide ona erakutsi; nahi partikularren liluramendutik begiratu behar da, lekuak eta garaia begien aitzinean jarri, eta oraingo abantaila nabarien agradagarritasuna geroko makurbide izkutuen periraz orekatu. Partikularrek ongia ikusten dute eta bazterten: publikoak ongia nahi du eta ez ikusten. Denek gidariak berdin behar dituzte. Batzuek, nahiak arrazoinamenduaren arabera egokitzea behartu behar dira; besteari, zer nahi duen ikusten irakatsi behar zaio. Orduan, argi publikoei esker, konprenimenduaren eta nahimenaren batasuna agertzen da gorputz sozialean, eta hortik, halaber, alderdi bakoitzaren parte hartze egoki eta zuzena, osotasunak ere horrela indar handiagoa hartzen baitu. Horra nondik sortzen den legegearen beharra.

## VII

### Legegileaz

Nazioei dagozkien gizarte arau hobereenen aurkitzeko, gizonena ez bezalako adimendu bat izan behar litzateke, gizonen griña eta jaidura guztien berri -berak bihi bat senditu gabe- balekikeena, harekin zer-ikusirik izan gabe, gure naturaleza funski ezagut lezakeena, bere zoriona gutarik kanpo izanagatik, halere gureaz axola lukeena; azkenik, ospea denboraren joanean gerokotz urrun utzirik, mende batean lan eginez, lanaren fruituez beste mendean goza litekeena<sup>11</sup>.

Kaligulak egintzez egiten zuen arrazoinaketa bera zuzenbidez egiten zuen Platonek, bere erreinuari buruzko liburuan bila ibili zen gizon zibil edo errearen mugatzeko. Baina egia bada Printze handia gizon bakana dela, zer erran legegile handiaz? Lehenak aski du ereduaren segitzea; besteak proposatu behar du. Bata makina asmatzen duen mekanikaria da, bestea makina osatzen eta ibilarazten duen langilea. Gizartean sorreran, dio Montesquieuk, errepubliketako buruzagiek dute erakundea egiten, eta handik aitzina erakundeak ditu errepubliketako buruzagiak moldatzen.

Populu baten eratzeraz ausartatzen denak bere burua gai senditu behar du, nolabait errateko, giza naturalearen kanbiarazteko, gai oraino, berenaz osotasun perfektu eta bakartia den gizabanako bakoitza, izaera eta bizia emanen dion osotasun handiago baten

parte eginez, aldatzeko; gai, halaber, gizonaren osaeraren indartsuago egitearren, haren bestelakatzeko, eta naturalezatik hartu dugun izaera fisiko eta lokabearen orde izaera moral eta partzialaren emateko. Hitz batez, kendu behar dizkio gizonari bere berezko indarrak, haien orde arrotz zaizkion, eta besteen laguntzarik gabe baliatzen ahal ez dituen, beste batzuen emateko. Zenbatenaz baitira indar naturalak suntsituagoak eta hilagoak, hainbatenaz indar irabaziak handiago eta iraunkorragoak dira, eta hainbatenaz erakundea ere, sendoago eta perfektuago. Halako moldez non, baldin hiritar bakoitza deus ere ez bada, eta deus ere ez badagike besteak gabe, eta baldin osotasunak hartu duen indarra, gizabanako guztien indar naturalen batuketa bezain handia, edo handiagoa, bada, erran baitaiteke, perfekzioaren pundurik gorenean dela legegintza.

Legegilea, alderdi guztietarik, arras besteak ez bezalako gizona da Estatuan. Halakoa izan behar du jeinuz, halakoa ere da bere egitekoagatik. Egiteko hau ez dagokio magistraturari, ez eta subiranotasunari ere. Errepublika eratzen du baina ez da haren erakuntzaren parte. Eginkizun berezi eta besteak baino goragokoa da, deus ikustekorik ez duena giza inperioarekin. Ezen, baldin gizonak manatzen dituenak ez baditu legeak manatu behar, halaber legeak manatzen dituenak ere ez ditu gizonak manatu behar; bestela, haren legeek, haren griña eta jaiduren zerbitzuko izanik, injustiziak iraunaraz litzakete, eta sekula ez lezake eragotz ikusmolde partikularrek haren egitekoaren saildutasunaren zaurtzea.

Lykurgosek bere aberriari legeak eman zizkionean, lehenbizikorik erregegoari uko egin zion. Greziako hiri gehienetan arrotzen gomendiotan uzten ohi zen legeen finkatzeko ardura. Italiako Errepublika modernoak ohitura horri maiz jarraiki izan zaizkio; Genèvekoak ere hala egin zuen eta oneko gertatu zitzaion<sup>12</sup>. Erromak, bere adin ederrenean, tiraniaren krimen guztiak berriz sortzen ikusi zituen, eta hiltzeko zorian egon zen, ber jendeen eskuetan eman nahi izan zituelakotz lege agintaritzaz eta botere subiranoa.

Hala ere decemvir haiek berak ez ziren sekula entseiatu ezein legeren beren aginpide soilaz onarraraztera. Erromatarrek, ziotsaten populuari, proposatzen dizuegun ezer ezin sar daiteke zuen baimenik gabe legeetan, zeuok egin itzazue zuen zoriona egin behar duten legeak.

Legeak idazten dituenak ez du eskurik, beraz, eta ez du izan behar ere, legegintzan, eta populuak berak ere, nahi izanik ere, ezin utz dezake besteri emanezina den eskubide hori. Zeren oin paktuaren arabera nahi orokorrak baizik ez ditu obligatzen partikularrak, eta, populuaren bozkatzeko libeoaren aitzinera agertu arte, inola ezin segurtza daiteke nahi partikular bat nahi orokorraren arabera dela; jadanik errana dut hori, baina errepikatzea ez da alferrikakoa.

Horrela bateragaitz diruditen bi gauza aldi berean kausitzen dira legegintzan: giza indarrez goragoko egiteko bat, eta, haren obratzeko, deus ez den agintaritzaz bat.

Beste nekezia batek merezi du ohar gatzekion. Jende xeheri mintzatzeko, haren hizkuntza baliatzeko orde beren mintzaira erabiltzen duten jakintsuak ez dira ulertuak izaten. Ordea, mila ideia mota bada populuaren mintzairan ezin adieraz daitekeenik. Halaber, ikuspen orokorrak eta xede urrunegiak ez ditu bere helmenean; nola gizabanako bakoitzak ez baititu preziatzen haren interes berezia hunkitzen duten gobernuaren egitasmoak baizik, nekez hautematen ditu lege onak inposaturiko etengabeko hertsaduretan, haietarik atera behar dituen abantailak. Sortzen ari den populuak politikaren maxima sanoak dasta ahal ditzan, eta Estatu arrazoinaren oinarritzko erregelei jarraiki ahal dakien, ondorioa kausa bihurtzea ahalikakoa izan behar litzateke; halaber, erakundearen ekarpena izan behar duen izpiritu soziala erakundearen hastapeneko gidaria izan behar litzateke, eta, gizonak, legeen bidez bihurtu behar diren bezalakoak izan behar lukete legeak izan aitzin. Horrela, bada, legegileak ezin erabil

baitezake ez indarra eta ez arrazoinamendua, beharrezkoa da beste maila bateko beste agintaritzat bati dei egin diezaion, honek gai izan beharko baitu bortxatu gabe bultzatzeko, eta esplikazio eta adierazpenik eman gabe sinetsarazteko eta limurtzeko.

Horra zerk behartu dituen egundaino nazioen aita, Zeruari parte harraraztera, eta jainkoei beren giza zuhurtziaren ohorezki prestatzera, amoregatik-eta populuek, Estatuaren legeei naturalezarenei bezala jarraikirik eta zibitatearen moldakuntzan eta gizonarenean esku bera ikusirik, libertatean obedi dezaten eta manukorki lepoan ekar zorian publikoaren uztarria.

Gizon arrunten helmenetik gorago doan goi-goitiko arrazoin horren erabakiak hilkor ez diren ezpainetan ematen ditu legegileak, amoregatik-eta giza zuhurtziak<sup>13</sup> bere arrazoinetara biltzen ahal ez dituenak, jainkoaren beldurrez eta haren burupeagatik, abia daitezen bide horretarik. Baina edozein gizonek ezin mintzaraz ditzake jainkoak, ez eta bere burua sinesgarri egin ere haien hitzaren adierazlea dela dioenean. Legegilearen misioa frogatu behar duen egiazko mirakuilua, haren arimaren handitasunean datza. Edozein gizonek harrizko mahaiak zizela ditzake, edo orakulu bat eros, edo zenbait jainkorekilako harreman izkutuen jestuak alegia egin, edo hegaztin bat belarri xiloan mintzatzera hez, edo populuaren miraz edukitzeko beste bide batzuk kausi. Hori baizik egiten ez dakikeenak ergel zentzugabe andana bat ere biltzen ahalko du, baina ez du sekula inperiorik sorrarazten ahalko, eta haren obra bitxi funsgabea harekin batean laster suntsituko da. Lokarri etenkor eta iragankorra moldatzen du lilurazko ospeak, zuhurtziak bakarrik egin dezake sendo eta iraunkor. Oraino bizirik dagoen lege juduak, eta hamar mende honetan munduaren erdia gidatzen duen Ismaelen haurarenak ere, lege horien emaile izan ziren gizon handien etorrera aldarrikatzen dute gaur egun oraindik; eta, baldin filosofia urguiluz beteak eta itsutzen duen izpiritu alderdikariak, zorte oneko engainatzailatzat hartu baditu, politikari egiazkoak, aitzitik, miresten du haien erakundeetan, erakuntza iraunkorrak bideratzen dituen jeinu handi eta boteretsua. Ez da horretarik atera behar ondorio gisa, Warburtonek egiten duen bezala, politikak eta erlijioak eginkizun eta xede bera dutela gizonen artean, baizik ere nazioen sorburuan bata besteari tresna gisa balia dakiokeela.

## VIII

### Populuaz

Nola eraikuntza handi berri bat altxatu aitzin arkitektoak lurra miatzen eta surmatzen baitu, pisuaren atxikitze on izan denentz ikusteko, hala instituziogile zuhurra ez da berehala hasten berez onak liratekeen legeen idazten, aitzitik lehenago behatzen du legeak prestatzen dizkion populuak jasan ditzakeenentz. Horrengatik Platonek ez zien legerik eman nahi izan Arkadiar eta Zyreniarrei, baitzekien bi populuak aberats zirela eta berdintasuna ezin pairatuzkoa zitzaiela: horrengatik Kretan lege onak eta gizon gaitztoak izan ziren, Minosek bizioz betea zen populu bat hezi baitzuen.

Milaka naziok entzute handia izan dute lurrean, sekula ez baitzuket lege onik jasaten ahalko, eta egiten ahalko zuketene ere, iraun zuten arte guztian, arras denbora laburra izan baitzuten horretako. Populuak gizonak<sup>14</sup> bezala gaztean bakarrik dira manukor, zahartzearekin moldagaitz bilakatzen dira; behin azturak finkatu ondoan eta aitzin-iritziek erroak egin ondoan, perilos eta alferrikakoa da haiek hobetu nahi izatea: populuari pairaezinezkoa zaio haren gaitzen ezabatzeko inork minak hunki diezaizkion, hala nola medikuaren begitartea ikusi orduko daldaran jartzen baitira koraiarik gabeko eri burugabeak ere.

Eiki, nola, iraganaren oroitzapena galarazirik, eritasun zenbaitek gizonen gogoa arras nahas ahal baitezakete, halaber Estatuaren iraunaldian gertatzen dira batzuetan garai bortitzak, haietan iraulmenduek populuei egiten baitie zenbait gaitzaldik jendeei egiten dietena: orduan, iraganaren alderako higuinak ahanzturaren lekua hartzen du, eta gerla



zibilek sutan emana duten Estatua, errautsetarik berriz pizturik, eta herioaren besoen artetik ilkirik, gaztetasunaren indar-kemenez betetzen da. Hala izan zen Sparta Lykurgosen garaian, Erroma tarquiniarren ondotik; eta hala gertatu dira gure artean Holanda eta Suitza, tiranoak haizatuak izan direnaz geroztik.

Baina bakan dira gertakari horiek: salbuespenak, beren kausa ohiko bidetik ibili ez den Estatuaren izaera berezian dutenak beti. Ber populuan ere ezin gerta daitezke bi aldiz, zeren barbaro deno baizik ezin libra baitezake bere burua populu batek, baina hezurdura zibila higatua delarik, horrelakorik ezin egin dezake gehiago. Orduan nahasmenduek suntsi ahal dezakete, baina iraulmenduek berriz indarrean ezin jar dezakete, eta estekan daukaten burdinak hautsiak diren bezain laster, puskaka erortzen da eta desagertzen. Ez du engoitik libratzailea behar, nagusia baizik. Populu libreak, gogoan eduki maxima hau: libertatearen jabe behin egin daiteke, baina hura galdu ondoan ezin eskura daiteke berriro.

Nazioek, gizonek bezala, epe bat behar dute zohitzeko, eta haiek legeen menean eman aitzin, denbora hura iragan dadin igurikatu behar da<sup>15</sup>; baina populu baten zohitasuna ez da beti ezaguterraza, eta zohialdia goizegi eteten bada obra guztia huts egin daiteke. Honelako populua sortzetik beretik hezgarri da, beste halakoa hamar menderen buruan ez da hala. Errusoak ez dira sekula zibilizatuko, goizegi horretaratu zituztelakotz. Errusiako Piotrek jeinu imitatzailea zuen, ez, sortzen eta ezdeusetarik dena egiten duen egiazko jeinua. Egin zituenetan, gauza batzuk onak ziren, gehienak, haatik, desegokiak. Haren populua barbaro zela ikusi zuen, ez zuen ikusi ordea zohitugabea zela erabide zibilizatuarentzat. Zibilizatu nahi izan zuen, horretara apailatu behar zelarik bakarrik. Alemanak edo ingelesak izateko gisan moldatu nahi izan zituen, lehen-lehenik erruso izateko gisan moldatu behar zirelarik; horrela, ziren ez bezalakoak zirela sinetsaraziz, eragotzi zien bere menekoei, izan zitezkeen bezalakoak sekula izatea. Hala-hala egin zuen frantses irakasle batek, haur bat haurrean denbora batez besteak bainoago izateko gisan moldatu zuelarik, handik aitzina ez baitzen sekula deus ere izan haur hura. Errusiako Inperioak Europa menean jarri nahiko du, eta bera meneratua izanen da. Menekoak edo auzoak dituen tartariarrak nagusituko zaizkio, bai eta guri ere. Iraultmendu hori huts eginezina zait. Europako errege guztiek batean lanean dihardute lasterrago gerta dadin.

## IX

### Jarraipena

Nola naturalezak gizon ongi eginaren irazkiari mugak emanak baitizkio, horiek iraganik edo giganteak edo nanoak egiten baititu, Estatuaren tailu egokienaz denaz bezainbatean ere, badira muga batzuk, Estatu batek izan dezakeen hedadurari dagozkionak, ez dadin zabalegia izan ongi gobernatua izateko, eta ez tipiegia bere buruz eta bere indarrez bizi ahal izateko. Edozein gorputz politikotan bada iragan behar ez lukeen muga bat, hartan baitu indar maximum edo gehiena, baina handituz-handituz joanik, haatik, maiz hastantzen da hartarik. Zenbatenaz hedatzenago baita gizarte lokarria, hanbatetaz lazoago egiten da; halatan, gehienetan Estatu tipiak, arauka, sendoago dira handiak baino.

Mila arrazoinak funtsatzen dute maxima hori. Lehenbizikorik, distantzia handietan nekeago egiten da administratzea, hala nola palanka luzeago delarik, pisua ere arabera pisuago egiten baita. Dituen mailak aniztu arau ere karioago egiten da; ezen lehenik hiri bakoitzak badu bere administrazioa, populuaren gain baita haren ordaintzea, herrialde bakoitzak ere berea, berriz ere populuak ordaindua, gero probintzia bakoitzak, eta hauen gibeletik oraino gobernu handiek, satrapiek, errege-ordetzek, beti eta garestiago baitira goiti joan arau, eta beti populu gaizoaren kaltetan; azkenik dena lehertzen duen goreneko administrazioa ere hor da. Hainbeste karga izateak pausarik gabe lehertzen

ditu menekoak. Maila desberdin horiek izanki ez dira hobeki gobernatuak, beren gainetik bat bakarrik balute baino. Halatan doi-doia zerbait gelditzen da ustegabekoentzat eta kasu ohiz kanpokoentzat, eta horretara jo behar delarik, Estatuak hondatzeko punduan egoten da.

Bada besterik ere; gisa horretan gobernamentuak kemen eta zalutasun gutiago du legeen errespetarazteko, jendea egin laidoen eta irainen debekatzeko, abusuen zuzentzeko, eta bazter tokietan pitz daitezkeen jazarraldien gibelatzeko. Bestalde, populuak sendimendu hotzagoak ditu inoiz ikusten ez dituen bere buruzagientzat, haren begietan mundu zabala bezalakoa den bere aberriarentzat, eta gehienak arrotz-tzat dauzkan beste hiritarrentzat. Lege berak ezin dirateke egoki, klima arras desberdinetan bizi diren eta gobernamentu mota berak jasaten ahal ez dituzten hainbeste probintzia ohitura desberdinetakoentzat. Lege desberdinek nahasmendurik eta asaldadurarik baizik ez dute ekartzen ber buruzagien menean eta komunikazio etengabea bizi diren populuen artera; hauen artean ezkontzak egiten dira edo jendeak bata-bestearen herrira iragaten dira, eta, nola aztura desberdinak baitituzte, ez dakite sekula haien ondarea haiena ote den egiazki. Administrazio gorenaren egoitzan bildu behar duten eta elkar ezagutzen ez duten anitz eta anitz gizonen artean, ehortziak dira talenduak, ez jakinak bertuteak, ez gaztigatuak bizioak. Arazoetan itoak diren buruzagiek ez dute deus beren begiz ikusten, mandatariek gobernatzen dute Estatuak. Urruneko aitzindari anitzek ukatu edo desafiatu nahi duten agintaritzak orokorraren indarrean atxikitzeko ahitzen da egintza eta arta publikoa, deus ere ez baita gehiago gelditzen populuaren zorionaren egiteko, eta, beharrean gertaturik, doi-doia zerbaixka haren zaintzeko; gisa horretan erortzen da eta bere pisuak leherturik hiltzen, duen osakerarentzat handiegi den gorputza.

Beste alde batetik, Estatuak gutieneko oinarri bat behar du sendo izateko, bai eta jasan beharko dituen iharrausaldiei, eta bere burua oso atxiki beharrak sortu nekeari buru egiteko ere: ezen populu guztiek badute halako indar zentrifugo bat, haren bidez, Descartesen zirimolak bezala, bata-bestearen aurka jotzen baitira, eta auzoen bizkar zabaltzeko joera baitute. Halatan ahul direnak laster itoak izateko perilean dira, eta, inork ez dezake bere burua galtzetik begira, non ez duen beste guztiekin oreka bat aurkitzen, konpresioa orotan bertsua egiten duena.

Horrela ikusten da badirela Estatuarentzat hedatzeko arrazoinak eta hertsitzeko arrazoinak ere, eta ez da talendurik tipiena politikariarentzat, Estatuaren zaintzeko, batzuen edo besteen artean proportziorik abantailatsuenaren aurkitzea. Erran daiteke jeneralean lehenbizikoak, kanpotikakoak eta erlatiboak izanik, besteen peko direla, hauek barnekoak eta absolutuak baitira; osaera sano eta sendoa da xerkatu behar den lehen gauza, eta gobernamentu on batetik sortzen den kemenean gehiago fidatu behar da eremu zabal handi batek eskaintzen dituen baliabideetan baino.

Halatan ikusi izan dira Estatu batzuk hain hedatuak, non konkistatzeko beharra haien osakerari josia zen parte bat baitzen, eta irauteko ere beti eta handiago izatea beharrezkoa baitzitzaien. Menturaz zorioneko behar horretaz pozik zeuden, baina handitasunaren mugarekin batean itzurezinezko eroraldia ere seinalatzen zien hark.

X

Jarraipena

Gorputz politiko bat bi gisatako izarien arabera neur daiteke; hots, eremuaren hedaduraren arabera, eta populuaren kopuruaren arabera, eta, Estatuari bere egiazko handitasunaren emateko, bada harreman egoki bat bi izari mota horien artean. Gizonek dute Estatuak egiten, eta lurrak ditu gizonak hazten; harreman egokia, beraz, bizitzailen hazteko aski lur denean, eta lurrak haz ahal dezakeen bezainbat bizitzaille denean gertatzen da. Populu kopuru jakin batentzat proportzio horretan datza indar maximum

delakoa; ezen, baldin lur gehiegi bada, haren zaintzea garesti da, haren lantzea eskasa, haren ekarria soberakinekoa; hori izanen da ondoko gerla defentsiboen kausa; baldin lur aski ez bada, Estatua auzoen nahiaren menekoa da falta duenaren aurkitzeko; horra gerla ofentsiboez izanen duten hurrengo kausa. Bere egoeragatik gerlaren eta merkataritzaren arteko alternatiba baizik ez duena populu ahula da berez; auzoen peko da, gertakarien peko da, haren iraupena ere laburra eta segurtasunik gabekoa da. Edo besteak meneratzen ditu eta bere egoera bestelakutzen du, edo meneratua da eta fitsik ez da. Tipikeriari edo handikeriari esker baizik ezin dirauke.

Ezin finka daiteke zenbaki zehatzetan noiz gertatzen diren lurraren hedadura eta gizonen kopurua elkarren eretzeari harreman egokian, sobera alde handiak gertatzen baitira tokiak eta jendeen arabera: lurrak nolakoak diren eta emankorrak direnentz, zer ekartzen duten, zer ondorio duten haietan klimaren gora-beherek, bai eta tokiko bizitzaileek ere nolako jitea duten, batzuek herri aberatsetan guti kontsumatzen baitute, eta besteek lur agorretan anitz. Bestalde kontuan hartu behar da oraino, emazteen ernalkortasuna handia ala tipia den, eta zer izan dezakeen herriak jendaketa gutiago edo gehiago fagoratzten duenik, eta horretan bere erakunde bidez zenbatetarainoko eragina izateko esperantza izan dezakeen legegileak; honek, haatik, ez du bere iritzia ikusten duenaren arabera finkatu behar, aitzinetik asmatzen duenaren arabera baizik, eta, halaber, ez du bizitzaileen mementoko egoera hain gogoan hartu behar, nola naturalki geroan izan beharko duena. Azkenik, biga bostetan gertatzen da tokiko berezitasunek behartzen baitute, edo bidea ematen, iduriz behar litzatekeen baino lur gehiagoren hartzera. Halatan mendi herrietan anitz hedatzen ahal da, ezen haietan ekoizpen naturalek, erran nahi baitu, oihanek eta bazkagiek, lan gutiago eskatzen dute, eta hango emazteek, esperientziak erakutsi bezala, behereetakoek baino haur gehiago ekartzen dute; bestalde, hango lur zabal aldapatsu bati alor ordoki hertsia dagokio, hau baita landare kontuetan kontuan hartzeko den bakarra. Aitzitik, itsas hegian, arroketan eta ia agorrak diren toki hondartsuetan, tinkatzen ahal dira jendeak, ezen han arrantzak lurraren emaitzak ordezkatzeko dituzte, eta hango gizonak itsas ohoinei buru egiteko bilduagoak izan behar dute, eta errazago da, koloniei esker, handik jende soberakinaren kentzea.

Populu baten eratzeko baldintza horiei beste bat gaineratu behar zaie, besteetarik bihi bat ezin ordezkari ez badezake ere, hau gabe guztiak alferrikakoak gertatzen baitira: bakeaz osoki gozatzea. Ezen Estatu bat ordenatzen den mementoak, batailoia moldatzen den mementoak bezala, gorputza ahulenean uzten du: orduan du ihardukitzeko ahalmen gutienik, orduan da suntsierazena. Nahasmendu handienetan hobeki ihardu lezake Estatuak, perillaz arranguratzeko orde, bakoitzak bere erronka gogoan duen horrelako hartzialdietan baino. Kinka horretan gerta bedi gerlarik, goseterik edo jazarketarik, Estatua huts egin gabe uzkailea da.

Anitz gobernamentu sortu dira horrelako galernen erdian, baina orduan gobernamentu horiek berek dute Estatua suntsitu. Horrelako nahasmendu denborak ekartzen edo hautatzen dituzte beti usurpatoreek, ikara publikoaz baliaturik, hotzean populuak sekula onetsiko ez lituzkeen lege hondatzaileen indarrean emateko. Eraketaren mementoa ezaugarri segurenatarik bat da, legegile baten lanaren tirano batenetik bereizteko.

Zein populu da legegintzan aritzeko gai? Hona: jatorrizko, interesezko edo hitzarmenezko loturak jadanik izanki, legeen egiazko uztarria oraino lepoan izan ez duena, superstizio eta ohitura barna finkaturik ez duena; bat-bateko inbasio baten beldur ez dena eta auzoen arteko eztabaidetan sartu gabe, haietarik bakoitzari buru egiteko, edo batzuen laguntzari esker besteen gibelarazteko gai dena, kide bedera beste guztiez ezagutua duena, eta gizonak dakarkeen baino karga handiagorik inori emateko beharrik ez duena, beste populu guztiak gabe bizi daitekeena, eta beste ezein populuk bizitzeko

behar ez duena<sup>16</sup>; ez aberats ez pobre ez dena, eta bere burua hazten ahal duena; azkenik, populu zahar baten tinkotasunarekin batean populu berriaren manukortasuna duena. Legegintza obra zail egiten duena, ez da hainbeste eraikitzeko dena, nola desegiteko eta suntsitzeko dena; eta bakan gertatzen bada burutan ateratzea, naturalezaren soiltasuna gizartearen beharrekin molde egokian uztartua aurkitzeko ezintasunagatik da. Nekez, egia da, kausitzen dira baldintza horiek guztiak beterik. Halatan Estatu guti ikusten dugu ongi eratua denik.

Bada oraino European herri bat legegintzako gaitasuna duena, Kortsikako uhartea da. Populu bihotzoi horrek bere libertatearen erdiesteko eta zaintzeko erabili duen bertute eta hisiak merezi luke zenbait gizon zuhurrek haren zaintzen irakats diezaion. Somatzen dut egun batez uharte tipi horrek Europa harrituko duela.

## XI

### Legegintza sistema desberdinez

Ororen onezia zehazki zertan datzan xerkatzen bada, hori izan behar bailitzateke legegintza sistema guztien helburua, bi objektu nagusitan biltzen ahal dela ikusiko da: libertatea eta berdintasuna. Libertatea, zeren partikular batek pairatzen duen edozein dependentzia Estatuaren gorputzari kendurikako indarra baita; berdintasuna, hura gabe libertateak ez baitu irauterik.

Jada errana dut zer den libertate zibila; berdintasuna denaz bezainbatean, ez da hitz honetan aditu behar botere eta aberastasun mailak arras berdinak direla; haatik, bortxatzerik gabekoa izan bedi boterea, eta legearen eta karguaren bertutez bakarrik erabilia; eta, aberastasunari dagokionaz, ez bedi hiritarrik aski aberats izan beste baten erosteko, eta bihi bat ere ez aski pobre bere buruaren saltzera behartua izateko. Horrek, handien partetik, ondasunetan eta hartzekoetan izaria izan dezaten suposatzen du, eta xumeen partetik zikoizkerian eta gutizietan neurria daukaten<sup>17</sup>.

Berdintasun hori pratikan gertaezinezkoa den espekulaziozko ameskeria omen da. Baina makurra ezin itzurizkoa bada, ondorioa ote da batere zuzendu behar ez dela? Preseski beren berezko oldeaz gauzek berdintasunaren hausteko joera dutelakotz zaindu beharra du hura legearen indarrak.

Baina erakunde on guztien xede orokor horiek, herri bakoitzean, aldatuak eta egokituak izan behar dira tokiko gizarte egoeraren arabera eta bizitzaileen jitearen arabera, eta hauetarik sortzen diren harremanak kontuan edukiz eman behar zaio populu bakoitzari erakunde sistema berezi bat, berez hoberena ez bada ere, egina den Estatuarentzat egokiena datekeena. Adibidez lurra gogor eta agor ote da, edo herria bizitzaileentzat hertsiegia? Itzul zaitezte industria eta arteen aldera, haien ekoizpenak eskas dituzuen jangaiekin trukaturiko baitituzue. Edo, aitzitik, ordoki aberatsetan eta malda emankorretan bizi ote zarete? Lur aberats batean jendea eskas duzue? Gizonak ugaltzen dituen laborantzaz arta har ezazue, eta ken edo iraitz, jende apurra eremuko zenbait gunetan bilarazirik herria aldebat hustuko duten arteak<sup>18</sup>. Itsas bazter zabal eta erosoan bizi zarete? Itsasoa ontziz bete ezazue, merkataritza eta itsasketa sendoak egin, bizitze dirdiratsua eta laburra izanen duzue. Itsasoak zuen hegietan arroka ezin hurbilduak bustitzen ote ditu? Egon barbaro eta iktiofago; lasaikiago biziko zarete, hobeak izanen beharbada, eta hain segur zoriotsuago. Hitz batez, ororentzat balio duten maximez landa, populu bakoitzak badu bere barnean zenbait kausa, maxima horiek gisa berezi batean ordenatzen dituenik, eta haren legegintza harena bakarrik egiten duenik. Horrela haraitzina hebreoek, eta berrikitanago arabeek, erlijioa izan dute xede nagusia, atenastarrek letrak, Kartagok eta Tyrok merkataritza, Rodasek itsasturitza, Spartak gerla, eta Erromak bertutea. Legeen izpiritua-ren idazleak<sup>19</sup> anitz eta anitz adibidetan erakutsi du zein artez bideratzen duen instituzioa legegileak xede bakoitzaren arabera.

Noiz da Estatuaren eraketa egiazki sendo eta iraunkorra? Noiz ere komeni dena hain ongi konplitzen baita, ezen naturalezak finkatu harremanak eta legeak beti bat baitatoz, haiek hauek indartzen, laguntzen edo zuzentzen baizik ez dituztelarik. Baina legegileak objektua gaizki hautatzen badu, eta gauzen berezkotasunetik sortzen den printzipioaren orde beste bat hartzen badu, batak menekotasuna xedatzen duelarik, eta besteak libertatea, batak ondasunak, besteak jendeketa, batak bakea, besteak konkistak, orduan, legeak piskanaka ahultzen ikusiko ditugu, eta eraketa andeatzen; halatan Estatua etengabeki asalaturik egonen da, naturaleza garaitezina bere inperioaz berriz jabeturik, suntsitua eta aldatua izan arte.

## XII

### Legeen sailkapena

Guztiaren ordenatzeko edo gauza publikoari ahalik eta formarik hoberenaren emateko, erlazio desberdinak kontsideratu behar dira; lehenbizikorik, gorputz osoak bere buruarekin dihardueneko egintza, erran nahi baitu osotasunak osotasunarekin duen harremana, edo subiranoak Estatuarekin duena. Harreman hori, geroxeago ikusiko dugun bezala, arteko mailetako terminoenaz moldatua da.

Harreman horiek arautzen dituzten legeak lege politikoak deitzen dira, eta oinarritzko legeak ere deritze, arrazoinik ere baita azken deitura horren emateko, lege horiek prestuak direlarik. Ezen, Estatu bakoitzean manera on bat baizik ez bada haren ordenatzeko, hura kausitu duen populuak begiratu behar du. Baina ordena finkatua txarra bada, zergatik oinarritzkotzat har on-izatea eragozten duten legeak? Gisa guztiez populu batek bere legeak alda ahal ditzake, hoberenak ere bai; zeren bere buruari kalte egitea plazer badu, nork du honela egitetik gibelatzeko eskubidea?

Bigarren erlazioa partaideek beren artean edo gorputz osoarekin dutena da, lehen ikuspegiari buruz ahal bezain ilaun izan behar baitu harreman horrek, eta bigarrenari buruz ahal bezain tinkia, halako moldez non hiritar bakoitzak beste guztiei buruz independentzia osoan izan behar baitu, eta zibitateari buruz dependentzia bete-betean; hori beti ber bideak baliatuz egiten da, zeren Estatuaren indarrak baizik ez baitu estatukideen libertatea egiten. Bigarren harreman horretarik sortzen dira lege zibilak.

Gizonaren eta legearen artean hirugarren erlazio mota bat kontsidera daiteke, hots desobediantzaren eta gartziguaren artekoa; harengatik sorrazten dira lege kriminalak, funtsean mota bereziko legeak baino gehiago beste lege guztien zigorrak direnak.

Hiru lege mota horiei laugarren bat gaineratzen zaie, orotarik garrantzitsuena; ez marmolan, ez brontzean, zizelatzen ez dena, baizik ere hiritarren bihotzetan. Hark bere egiazko konstituzioa ematen dio Estatuari, egun guztiez indar berriak hartzen ditu, beste legeak zahartzen edo itzaltzen direlarik pizten edo ordezkatzeko ditu, populua eratua izan zeneko izpirituan atxikitzen du, eta piskanaka agintearen indarra ohituraren indarraz ordezkatzeko du. Bizimoldeez eta azturez mintzo naiz, eta oroz gainetik iritziaz; gure politikariek parte hau ez dute ezagutzen, baina hartarik doa beste parte guztiek beren helburuetan kausitzea; legegile handiak ere segetuan hartaz arta edukitzen du, nahiz erregelamendu partikularrez bakarrik arduratzen dela dirudien, baina erregelamendu horiek arku-uztaiak baizik ez dira, eta sortzeko luzeago diren bizimoldeek, berriz, arku-giltza kordokagaitza moldatzen dute.

Lege mota horien artean, gobernamenduaren formaosatzen duten lege politikoak dira ene gaiari dagozkion bakarrak.

Bigarren liburuaren akabantza.

## HIRUGARREN LIBURUA

Gobernamendu era desberdinez mintzatu baino lehenago, entseia gaitezen, oraindik arras ongi adierazia izan ez den hitz horren zentzu zehatzaren finkatzera.

I

Gobernamenduaz orokorki harturik

Irakurtzailea abisatzen dut, kapitulu hau emeki irakurtua izan behar dela, eta ez naizela ni, kasu ematen ez duenari klarki mintzatzeko artearen jabe.

Egintza libro orok bi kausa ditu, biak behar baitira haren gauzatzeko, bata morala da, eta egintza mugatzen duen nahia da, bestea fisikoa, eta egintza obratzen duen potentzia da. Zer bati buruz abiatzen naizelarik, lehenik hartaraino joateko nahia behar dut; bigarrenik zangoek ekarri behar naute. Gizon herbal batek laster egin nahi badu, edo gizon zalu batek laster egin nahi ez badu, biak tokiaren gainean egonen dira. Gorputz politikoak eragile berak ditu; hartan ere molde berean indarra eta nahia bereiz daitezke, honek potentzia legegilea deitura duelarik, eta besteak potentzia exekutiboa. Deus ez da egiten, eta ezin egin daiteke, haiek gabe.

Potentzia legegilearen jabea populua dela, eta hura baizik ezin izan daitekeela, ikusia dugu. Aise da ikustea, alderantziz, gorago finkatu printzipioen arabera, potentzia exekutiboaren jabea ezin izan daitekeela legegile edo subiranoa den multzo orokorra, ezen potentzia exekutiboa legearen eremutik kanpoan gorpuzten da, eta, beraz, subiranoaren aktak oro legeak direnaz gero, subiranoaren eremutik at diren akta partikularretan.

Indar publikoak eragile berezi baten beharra du. Horrek bilduko du, eta nahi orokorrrak emanikako norabideen arabera ibilaraziko; horrek bideratuko du Estatuaren eta subiranoaren arteko komunikazioa, molde horretan gorputzaren eta arimaren batasunak gizona baitan dagiena pertsona publikoan eginen baitu. Horra zertako den gobernamendua. Gaizki da, batzuetan egiten den bezala, hura subiranoarekin nahastea, zeren honen ministroa baizik ez baita .

Zer da bada gobernamendua? Menekoek eta subiranoak elkarren arteko harremanetan duten gorputz arartekari bat, haren kargua baita legeen obratzea, eta libertatearen, hala zibilaren nola politikoaren, zaintzea.

Gorputz horretako partaideak magistratu deitzen dira, edo errege, erran nahi baitu gobernari ; gorputz osoari, berriz, printze <sup>20</sup> izena ematen zaio. Horretaz, arrazoin osoa dute, populu batek bere burua bere buruzagien azpiko egiten duen akta hitzarmena ez dela diotenek. Berez komisio bat baizik ez da, enplegu bat, hartan buruzagiek, subiranoaren aitzindari soil gisa, honen izenean, honek haien gomendiotan utziriko botereak baliatzen baitituzte. Haatik, plazer duelarik botere horiek muga ditzake subiranoak, edo alda, edo berriz bere eskuetan har, ezen gizarte gorputzak bere izatez ezin aliena dezake horrelako eskubidea, hala egin baleza, elkartearen helburuei ezin bizkarra eman bailiezaieke.

Gobernamendua edo goreneko administrazioa erraten diot potentzia exekutiboaren ariketa legitimoari, eta printze edo magistratu deritzat, administrazio horretaz ardura duen gizon edo gorputzari.

Arteko indarrak gobernamenduan daude, haien erlazioen bidez moldatzen baita osotasunak osotasunarekin edo subiranoak Estatuarekin duen erlazioa. Azken hau, proportzio jarraiki baten bi muturren arteko ratioa hartuz irudika dezakegu, haren banaz besteko proportzionala gobernamendua delarik. Gobernamenduak subiranoaganik hartzen ditu populuari egiten dizkion aginduak, eta Estatua oreka egokian izan dadin, oro kontuan hartuz eta elkar konpentsatuz, berdin izan behar dute gobernamenduak berez duen potentziak edo dagokion matematikako zatidurak, eta, alde batetik subirano

eta bestetik meneko diren hiritarrek duten potentziak edo dagokien matematikako zatidurak.

Are gehiago dena, hiru termino horietarik baño ere ezin alda daiteke, proportzio hori berehala hautsi gabe. Subiranoak gobernatu nahi badu, edo magistratuak legeak egin nahi baditu, edo menekoek obeditu nahi ez badute, erregelari nahasmendua nagusituko zaio, indarra eta nahia ez dira gehiago batera ibiliko, eta Estatua, deseginik, despotismoak edo anarkiak beretuko dute. Azkenik, nola ratio bakoitzean banaz besteko proportzional bat baizik ez baita, halaber Estatu batean, gobernamendu mota bat baizik ez da on eta egoki denik. Ordea, nola mila gertakarik aldaraz baititzakete populu bati dagozkion ratioak, populu desberdinei ez ezik, populu ber-bati ere on gerta dakizkioke garai desberdinetan, gobernamendu desberdinak.

Bi muturren artean izan daitezkeen erlazioen berri emateko, jende kopurutik abiatuko naiz, ratioa horrela adierazerrazago baita.

Demagun Estatuan hamar mila hiritar badirela. Multzoan eta gorputz gisa baizik ezin kontsidera daiteke subiranoa. Aitzitik partikular bakoitza, meneko den aldetik, gizabanako gisa kontsideratua da. Horrela bada, hamar mila, baten eretzean den bezalakoa da subiranoa, menekoaren eretzean. Horrek erran nahi baitu, Estatuko partaide bakoitzak, aginpide subiranoaren hamar milagarren partea baizik ez duela, alta osoki haren peko jarria delarik. Populua ehun mila jendez osatua bada, menekoaren egoera ez da aldatzen, eta bat-bederak berdin jasaten dulegeen inperioa; haatik, lege horien idazterakoan, menekoaren bozaren eragina, orain ehun milarenean murriztuz, hamar aldiz guttiagokoa da. Orduan, menekoa beti bat delarik, subiranoaren ratioa hiritarren kopuruaren arabera handitzen da. Hortik ondorio hau: Estatua zabaldu arau, libertatea murriztuz doala.

Ratioa handitzen dela diodanean, berdintasunetik hasantzen dela aditzera ematen dut. Hala-hala zenbatenaz handiago baita geometroen moduan ulertzen den ratioa, hainbatenaz tipiago da adiera arrunteko ratioa; lehen zentzuan, kopuruan kontsideratzen den ratioa esponentearen arabera izartzen da, eta bestean, identitatean kontsideratuz, antzekotasunaren arabera.

Ordea, zenbatenaz urruntzenago baitira nahi partikularrak nahi orokorretik, erran nahi baitu bizimoldeak eta azturak legeetarik, hainbatenaz handiago izan behar du indar zapaltzaileak. Beraz, zenbatenaz jendetsuago baita populua, hainbatenaz indartsuago izan behar du gobernamenduak, ona izateko.

Beste alde batetik, nola Estatua handitzen delarik, aginpide publikoa eskutan dutenek hartaz abusatzeke aukera eta ahal gehiago baitute, zenbatenaz gobernamenduak indar gehiago behar baitu populuak eskudantzia handiegia har ez dezan, hainbatenaz indartsuago izan behar subiranoak ere, gobernamenduaren gainean esku atxikitzeke. Ez naiz hemen indar absolutu batez mintzo, bai ordea Estatuaren alderdi desberdinek elkarren eretzean duten indarrak.

Ratio bikoitz horretaz kontu edukiz, subiranoaren, printzearen eta populuaren artean den proportzio jarraikia ez da ideia arbitrarioa, gorputz politikoaren naturalezari darraion ondorio ezinbestekoa baizik. Halaber, kausa beragatik, nola ratio muturretarik bat den populua, meneko gisa, mudaezina eta bat baita, ratio bikoiztua handitzen edo tipitzen den aldi guztietan, ratio bakuna molde berean handitzen edo tipitzen da, ondorioz banaz bestekoa ere aldaturik gertatzen baita. Horrek erakustera ematen du, ez dela gobernamendu eramolde bakar eta absoluturik, baina, aitzitik, izan daitekeela handitasun desberdineko Estatu bezainbat naturaleza desberdineko gobernamendu.

Baldin sistema horretaz burlatuz erran baledi, banaz besteko proportzional horren aurkitzeke eta gobernamenduaren gorputzaren moldatzeko, aski dela, diodanaz, jende kopuruaren erro karratuaren ateratzea, nik ihardets nezake, kopuru hori adibide gisa

baizik ez dudala hartzen, aipatzen ditudan ratioak ez direla jende kopuruan bakarrik izartzen, baina gehienetan egintza kopuruan ere, hau kausa anitzek elkar gurutzaturik moldatzen baita, eta, nolanahi den, ele laburragoz mintzatzeko geometriaren hitzak erabili ditudan arren, jakinean naizela hala ere, geometriako zehaztasunak ez duela tokirik kopuru moraletan.

Nolakoa baita gorputz politikoa izari handitan, halaxe da izari tipitan, haren barnean den gobernamendua. Pertsona morala da, ahalmen batzuen jabe dena, subiranoa bezala aktiboa, Estatua bezala pasiboa. Horrelako beste ratio batzuen arabera zatika daiteke, horrela proportzio berri bat sortzen baita ondorioz, eta honetarik beretik, auzitegien mailakatzearen arabera, beste proportzio bat ere oraino, harik-eta ezin zatituzko banaz besteko batera heldu arte, erran nahi baitu buruzagi bakar edo goreneko magistratu bat izan arte, progresio horren barnean haren irudikatzeko, baitiokegu, zatikien sailaren eta zenbakien sailaren arteko batasuna dela.

Hitz biderkaketa poxelugarri horretan aitzina buru hausten ibili gabe, aski izan bekigu gobernamenduaren Estatuko gorputz berritzat hartzea, eta populutik eta subiranotik desberdina izanki, horien bien arteko artekari dela kontsideratzea.

Bada diferentzia funtsezko hau bi gorputzen artean: izan, berez eta bere buruz badelarik Estatua, gobernamendua, aldiz, subiranoaren bidez baizik ez da, hots hari zor dio izatea. Horrela besteen gaineratik den printzearen nahia ez da, edo ez luke izan behar, nahimen orokorra edo legea baizik; halaber, printzearen indarra, haren baitan biltzen den indar publikoa baizik ez da; printzea egintza absolutu eta independenterik bere baitarik egin beharrez hasi bezain laster, osotasunaren barneko tinkotasuna ahultzen hasten da. Azkenik, gerta baledi printzeak subiranoaren nahia baino aktiboago litzatekeen nahi partikularrik izatea, eta honen konplitzeko eskuetan duen indar publikoa erabil baleza, halako gisaz non bi subirano, bata zuzenbidezkoa eta bestea faktuzkoa, bailirateke orduan, berehala desegin liteke gizarte batasuna, eta suntsi gorputz politikoa.

Hala ere, gobernamenduaren gorputzak, izaterik eta Estatuaren gorputzetik bereizten duen bizi egiazkorik izan dezan, eta halaber haren partaide guztiak, elkarrekin, eta hura eratua izan zen helburuen arabera joka daitezen, ni berezi bat izan behar du, eta haren partaideen artean ere sendikortasun komun bat, indar bat, eta gorputz horren iraupena bilatzen duen nahimen bat izan behar da. Horrelako izaera bereziak manatzen du izan daitezen biltzarreak, kontseiluak, erabakitze eta trinkatzeko botere bat, eskubideak, tituluak, eta printzearenak bakarrik diren, eta magistratuaren kargua nekeago izan arau ohoragarriago egiten duten pribilegioak ere. Azpiko osotasun honen osotasunean ordenatzeko moduan dautza zailtasunak, zeren berea sendotuz ez baitu azpikoak erakuntza orokorra andeatu behar, eta bereizi behar baitu beti, iraupena segurtatzen dion indar berezia, Estatuaren iraupena segurtatzen duen indar publikotik. Hitz batean errateko, beti prest egon behar du populuaren fagoretan gobernamenduaren sakrifikatzeko, baina ez gobernamenduaren fagoretan, populuaren.

Bestalde, gobernamenduaren gorputz artifiziala beste gorputz artifizial baten obra izanagatik, eta haren bizia ere mailegatua eta besteren mende jarria bezala izanagatik, indar handiago edo gutiagorekin ihardun dezake, eta lasterrago edo emekiago, eta osasuna ere, horrela erran badaiteke, sendoago edo ahulago izan dezake. Azkenik, eratua izan zen helburuari aldebat bizkarra eman gabe, hartarik gutiago edo gehiago hastan daiteke, moldatua den maneraren arabera.

Diferentzia horietarik guztietarik sortzen dira gobernamenduak Estatuaren gorputzarekin izan behar dituen erlazio desberdinak, Estatua aldarazten duten ratio akzidental eta berezien arabekoak. Zeren, ardura, berez hoberentzat jo daitekeen gobernamendua den okerrean izan baitaiteke, baldin parte den gorputz politikoaren huts eta makurren arabera aldatuak izan ez badira haren ratioak.



## II

Gobernamendu era desberdinak moldatzen dituen printzipioaz

Diferentzia horien kausa orokorraren aurkezteko, printzea eta gobernamendua elkarretarik bereizi behar dira hemen, hala nola gorago Estatua eta subiranoa elkarretarik bereizi baitituz.

Magistratu gorputzak partaide kopuru handiagoa edo tipiagoa izan dezake. Errana dugu, populua jendetsuago, eta subiranoak menekoen eretzean duen ratioa handiago dela, eta analogia nabari batez ber gauza erran dezakegu gobernamenduak magistratuen eretzean duenaz.

Gobernamenduaren indar osoa, haatik, Estatuarena izanik beti, ez da aldatzen; hortik ondorio hau: zenbatenaz indar gehiago enplegatzen baitu bere partaideekin, hainbatenaz indar gutiago gelditzen zaio hari populu osoarekin erabiltzeko.

Beraz, zenbatenaz gehiago baitira magistratuak, hainbatenaz ahulago da gobernamendua. Maxima honek funts handia baitu, entseia gaitezen haren hobeki argitzera.

Magistratuaren pertsonaren baitan hiru nahimen, izaeraz desberdinak direnak, bereiz daitezke. Lehenbizikorik, gizabanakoaren nahimen propioa, bere abantaila bereziaren aldera aldebat itzulia; bigarrenekorik, magistratuen nahimen komuna, printzearen abantailari bakarrik dagokiona, eta gorputz nahimena dei dezakeguna; hau, gobernamenduaren eretzean orokor izanik, partikular da, ordea, gobernamendua parte den Estatuari buruz; hirugarrenekorik, populuaren nahimena, edo nahimen subiranoa, zein orokor baita, hala osotasun gisa kontsideratua den Estatuaren eretzean, nola osotasunaren parte gisa kontsideratua den gobernamenduari buruz.

Legegintza akatsik gabekoa denean, nahimen partikular edo indibidualak ez du den mendreneko tokirik behar hartan; gobernamenduak berez duen gorputz nahimenak arraz azpikoa izan behar du, eta, beraz, nahimen orokor edo subiranoak, alderantziz, nagusi, eta beste guztientzat arau emaile bakarra, izan behar du.

Ordena naturalean, aitzitik, nahimen desberdin horiek bildu eta kontzentratu arau indartsuago egiten dira. Horrela nahimen orokorra beti ahulena da, gorputz nahimenak bigarren tokia du, eta nahimen partikularra da ororen lehen: halatan, gobernamenduan, partaide bakoitza, lehenik, den hura bera da, gero magistratu, eta azkenik hiritar. Gizarte ordenak eskatzen duen alderantzizko mailakatzea, hain zuzen.

Demagun gobernamendua osorik gizon bakar baten eskuetan dela. Orduan, nahimen partikularra eta gorputz nahimena ezin hobeki bateratuak dira, eta beraz, honek izan dezakeen intentsitate gradu gorena du. Ordea, nola nahimenaren tinkotasunari eta intentsitateari lotua baita indarraren baliatzea, eta nola gobernamenduaren indar absolutua ez baita aldakorra, gobernamenduetan indartsuena, bakar batena da.

Aitzitik, gobernamendua aginte legegilearekin bat egin dezagun; halaber, subiranoa printze egin dezagun, eta hiritar guztiak magistratu. Orduan, nahimen orokorrarekin bat egin duen gorputz nahimena, hura bezain ahul eta aktibitate gutikoa izanen da, eta nahi partikularra indar bete-betean utziko du. Horrela, beti indar absolutu bera izanik, gutieneko indar erlatiboa edo aktibitatea izanen du gobernamenduak.

Erlazio horiek ezin jar daitezke eztabaidan, eta beste kontsiderazio batzuek ere egiaztatzen dituzte. Ikusten da, adibidez, magistratu bakoitza aktiboago eta eragileago dela bere gorputzean, hiritar bakoitza berean baino, eta beraz, horren ondorioz, nahimen partikularrak anitzez eragin handiagoa duela gobernamenduaren egintzetan subiranoarenetan baino; zeren magistratu bakoitzak gobernamenduan eginkizun zerbait baitu kasik beti, hiritarrek, aitzitik, bereber harturik, ez duelarik subiranotasunari doakion eginkizun bihirik. Bestalde Estatua hedatuz doalarik, haren egiazko indarra ere handitzen da, hedapenaren arabera ez eginik ere. Baina, nola orduan Estatua den

bezalakoa gelditzen baita, magistratuen kopurua biderkatuz ere, gobernamenduak ez du horrengatik egiazko indar handiagorik biltzen, zeren indar hori, beti hein berean egoten den Estatuarena baita. Horrela, gobernamenduaren indar erlatiboa, edo iharduera, gutiagotuz doa, haren indar absolutua, edo egiazkoa, handiago ezin izan daitekeelarik. Segur da, bestalde, hartan jende gehiagok parte hartu arau, luzeago gertatzen dela arazoen konponketa, eta, zuhurtziaz kontu handiegi eginez, ez zaiola fortunari aski leku uzten. Gisa horretan, batzuetan aukerak galtzen dira, bai eta, halaber, deliberatzeko denbora luzeegia pasatuz, maiz deliberamenduaren fruitua ere.

Frogatu berria dut nola magistratu gehiago izan arau gobernamendua ahulduz doan, bai eta, aitzinago, nola populua jendetsuago izan arau, indar zapaltzaileak handiago izan behar duen ere. Horren ondorioz, magistratuek gobernamenduekin duten ratioak, menekoek subiranoarekin dutenaren alderantzizkoa izan behar du. Hots, zenbatenaz handitzenago baita Estatuak, hainbatenaz bilduago izan behar du gobernamenduak; hainbestetaraino non, populua emendatuz doalarik, buruzagien kopurua ere araberan tipitzen baita.

Dena den, gobernamenduaren indar erlatiboaz baizik ez naiz mintzo hemen, ez haren zuzentasunaz. Zeren, aitzitik, zenbatenaz gehiago baitira magistratuak, hainbatenaz gorputz nahimena hurbiltzenago zaio nahimen orokorrari; aldiz, magistratu bakarra denean, gorputz nahimen hori ez da, lehen erran dudan bezala, nahi partikularra baizik. Halatan alde batetik irabazten ahal dena galtzen da bestetik, eta, gobernamenduak beti proportzio lotuan eta erreziprokoan baititu indarra eta nahia, Estatuarentzat abantailatsuena den ratioa noiz edo zein pundutan moldatzen duten jakitean datza legegilearen artea.

### III

Gobernamenduen sailkapenaz

Aurreko kapituluan ikusi dugu zergatik elkarretarik bereizten diren gobernamendu mota edo erak partaideen kopuruaren arabera; ikustekoa da oraino kapitulu honetan sailkapen hori nola egiten den.

Lehen-lehenik, subiranoak populu osoaren edo populuaren parte handienaren gomendiotan utz dezake gobernamendua, halako gisaz non hiritarretan partikular baino magistratu gehiago baita. Gobernamendu era honi Demokrazia deritza.

Edo, gobernamendua jende guti batzuen eskuetan bil dezake subiranoak, halako moldez non magistratu baino hiritar soil gehiago baita; gobernamendu era hau Aristokrazia deitzen da.

Azkenik, gobernamendua osorik magistratu bakar baten eskuetan bil dezake, beste guztiek harenganik harturik beren boterea. Hirugarren era hau maizkoena da, eta Monarkia edo errege gobernamendua erraten zaio.

Konturatu behar da, gobernamendu mota horiek guztiak, edo lehenbiziko biak bederen, zer bakoitzetik gehiago edo gutiago izanez alda daitezkeela, aski aldaera handiekin gainera; zeren demokraziak populu guztia bil baitezake, baina gutiago ere, haren erdia gutienik duen ber. Aristokrazia ere, populuaren erditik zenbaki tipienaraino, edozein kopurutan bildua izan daiteke. Erregetza bera ere partekatua izan daiteke. Konstituzioak hala finkaturik, bi errege izan zituen beti Spartak, eta erromatar inperioak batzuetan zortzi enperadore izan zituen aldi berean, bizkitartean ezin erran baitzitekeen Inperioa zatikatua zela. Halatan bada pundu bat non gobernamendu era bakoitzak ondokoarekin bat egiten baitu, eta ikusten da hiru deitura soilen pean, Estatuak hiritar duen bezainbat era desberdin izan dezakeela gobernamenduak.

Errateko gehiago ere bada: nola gobernamendua, ikuspegi zenbaiten arabera beste parte batzuetan zatika baitaiteke, bata molde batean administratua, bestea bestean, hiru era

konbinatuetarik era nahasi edo misto anitz sor daiteke, haietarik bakoitza era soil den bezainbatean biderkakorra izanik.

Egundainotik gobernamendu era hoberenaz eztabaida usuak izan dira, sekula ere kontuan hartu gabe, haietarik bakoitza kasu zenbaitetan hoberena dela, eta beste batzuetan txarrena.

Baldin Estatu desberdinetan magistratu gorenen kopurua hiritarren kopuruaren alderantzizko ratioan izan behar bada, ondorio hau dugu: gobernamendu demokratikoa orokorki Estatu tipientzat da egokia, aristokratikoa kaizu erdikoentzat, eta monarkikoa handientzat. Erregela hau zuzenean darraio printzipioari, baina nola konta salpuespenak sor ditzaketen gora-behera guztiak?

#### IV

##### Demokraziaz

Legea egiten duenak badaki inork baino hobeki nola obratua eta interpretatua izan behar duen. Iduri luke beraz ezin izan daitekeela konstituzio hain onik nola baita botere exekutiboa botere legegileari loturik daukana. Ordea, horrexek berak du gobernamendu hori zenbait pundutan eskas egiten, hain zuzen bereizirik egon behar luketen gauzak ez baitaude hala, eta subiranoak eta printzeak, pertsona bakarra izanik, nolabait errateko, gobernamendurik gabeko gobernamendu bat moldatzen baitute.

Ez da on, egiten dituenak konpliaraz ditzan legeak, eta populuaren gorputzak bere arreta objektu partikularretan ezarriz, ikusmolde eta xede orokorretarik urrun dezan. Deusik ere ez da hain perilosik nola baita interes pribatuek arazo publikoetan duten eragina, eta gobernamenduaren lege abusua gaitz tipiagoa da, ikusmolde partikularrei huts egin gabe darraien legegilearen korrupzioa baino. Orduan Estatua bere muinean hunkia eta aldatua baita, erreforma guztiak ezinezkoak dira. Gobernamenduaz inoiz abusurik ez legikeen populuak ez lezake independentziaz ere abusurik egin; beti ongi goberna lezakeen populuak ez luke gobernatua izateko beharrik.

Hitza adieraren zorrotasun betean harturik, izan, ez da inoiz izan egiazko demokraziarik, eta ez sekula ere izanen. Ordena naturalaren kontra doa kopuru handiak gobernatzea, eta kopuru tipia gobernatua izatea. Populua arazo publikoez aritzeko etengabea bildurik egotea ezinezkoa da, eta aise da ikustea, horretarako batzordeak molda balitza, administratzeko era ere alda litekeela.

Alabaina printzipio gisa aitzina dezaket, gobernamenduaren eginkizunak auzitegi batzuen artean partekatuak direlarik, kopuru tipienekoek izaten dutela goiz edo berant aginpide handiena, arazoen konpontzeko duten erraztasunagatik beragatik ere gertatzen baita horrela.

Gainera, zenbat gauza, bateragaitz denik, ez du suposatzen gobernamendu horrek! Lehenbizikorik Estatu bat arras tipia, hartan populua errazki bil bailiteke, eta hiritar bakoitzak beste guztiak errazki ezagut; bigarrenekorik auzien aniztasuna eta eztabaida mingarriak eragozten dituen azturen lañotasuna; ondotik jendeen erronketan eta ondasunetan berdintasun handia, hura gabe eskubide eta aginte berdintasunak luzaz ezin iraun baitezake; azkenik handiostasun eta luxu guti; ezen, edo handiostasuna joritasunaren ondorioa da, edo beharrezko egiten du; luxuak, biak, pobrea nola aberatsa, usteltzen eta korronpitzen ditu, bata ukantzaren bidez, bestea bekaizkeria dela medio; halaber, ilaunkeriaren eta handinahikeriaren peko egiten du aberria; Estatuari bere hiritar guztiak kentzen dizkio, bata-bestearen azpikoak egiten dituelarik, eta denak ospearen.

Horra zergatik autore famatu batek printzipio gisa bertutea eman dion Errepublikari, ezen baldintza horiek guztiek tokirik ez dute bertuterik gabe. Baina, bereizketa beharrezkoak egin gabetarik, idazle jeinutsu eder horrek maiz zuzentasunean huts egin du, batzuetan argitasun eskasa izan du, eta ez du ikusi, aginpide subiranoa denetan bera

izanik, ongi eraturiko Estatu orotan obratua izan behar duela printzipio horrek, gutiago edo gehiago, egia da, gobernamentu era nolakoa den.

Gainera dezagun ez dela gobernamendurik hala barneko nahasmenduei eta gerla zibilei emanik, nola baita gobernamendu demokratikoa edo gobernamendu popularra, zeren beste bihirik ez baita, hain indartsuki eta hain jarraituki eraz aldatzeko joera duenik, eta era berean irauteko halako koraia eta begirantza eskatzen duenik. Hiritarrak konstituzio horretan izan behar du oroz gainetik indarra eta finkotasuna, biziko egun bakoitzean bere bihotzaren bihotzean Poloniako Dietan Palatinu<sup>21</sup> bertutetsuak zioen hau errepikatuz: *Malo periculosam libertatem quam quietum servitium.*<sup>22</sup>

Baldin jaingo populurik balitz, bere burua demokratikoki goberna lezake. Hain perfektua den gobernamendua ez da egoki gizonentzat.

V

Aristokraziaz

Hemen baditugu bi pertsona moral, arras desberdinak, gobernamendua eta subiranoa, eta, beraz, bi nahimen orokor, bata hiritarrei buruz itzulua, bestea administrazioa partaideei buruz bakarrik. Halatan, nahiz gobernamenduak bere barneko polizia berak nahi bezala antola ahal dezakeen, subiranoaren izenean baizik ezin mintza dakioko populuari, erran nahi baitu populuaren beraren izenean; hori ez baita sekula ahantzi behar.

Lehen gizarteak aristokratikoki gobernatuak izan ziren. Familiaburuek arazo publikoez beren artean deliberatzen zuten. Gazteak, gogor egin gabe, esperientziaren burupearen aitzinean makurtzen ziren. Hortik datoz apaiz, zahar, senatu, edo geronto deiturak. Ipar Amerikako salbaiek egungo egunean oraino horrelako gobernamendua dute, eta arras ongi gobernatuak dira.

Baina instituzioek sortu desberdintasunak naturalezakoari gaina hartu zion arau, aberastasuna edo ahalmena<sup>23</sup> adina baino preziatuago izan zen, eta aristokrazia hautuzkoa izan zen. Azkenean, aitaren ondasunekin batean ahalmena ere emanik haurrei, patrizio familiak izan ziren, eta gobernamendua ondorezkoa egin zen, hogeit urteko senatoreak ikusi baitziren horrela.

Hiru aristokrazia mota bada; naturalezako, hautespenezkoa, ondorezkoa. Lehena populu lañoek bakarrik dagokie; hirugarrena gobernamenduetan txarrena da. Bigarrena hoberena da: aristokrazia bera da.

Azken honek, bi botereen bereizketaz gainera, beste abantaila bat ere badu: bere partaideak hautatzen ditu; ezen gobernamendu popularrean hiritar guztiak magistratu sortzen dira; alderantziz, gobernamendu aristokratikoak zenbaitetara mugatzen du magistratuen kopurua, eta bozez hautatzen ditu<sup>24</sup>; hautabide horri esker, onestasunak, argitasunak, esperientziak, eta hobespen eta estimu publikoa dakarten beste arrazoi guztiek, bermatzen eta segurtatzen dute zuhurki eta prestuki gobernatua izatea.

Gainera, biltzarrak errazkiago egiten dira, arazoak hobeki eztabaidatzen, eta ordena handiagoan eta lasterrago trinkatzen; eta atzerrian ere, kontuanago harrarazten dute Estatuaren hitza senatore ohoragarri batzuek, mesprexatzen, edo ezagutzen ez den multzo handi batek baino.

Hitz batez, zuhurrenek multzo handiaren gobernatzea da ordena hoberena eta naturalena, baldin-eta segurtamenik bada haren onetan eginen dutela eta ez berenetan; ez dira mailak eta bideak biderkatu behar, ez eta hogeit mila gizonekin egin behar, ehun gizon hautatuk are hobeki egin dezaketena. Haatik, ohartu behar da handik hara nahimen orokorrari gero eta gutiago jarraikiz hasten dela gorputz interesa indar publikoaren gidatzen, eta beste joera ezin itzurizko batek kentzen diela legeei potentzia exekutiboaren parte bat.

Egokitasun bereziak aipatuz, derragun ez dela Estatua hain tipi izan behar, ez eta populua ere hain laño eta arteza, non lekeen konplitzea, nahimen publikoari berehala bailerraikioke, hala nola gertatzen baita demokrazia on batean. Halaber ez da hain nazio handirik behar, non gobernatzeko barreiatuak dauden buruzagiak, zeinek bere departamenduan subiranoaren arazoetan erabakiak harturik, beren gain eman ondoan, azkenik nagusi jar bailitezke.

Aristokraziak gobernamendu popularrak baino zenbait bertute gutiago eskatzen du, beraz. Ordea, beste batzuk eskatzen ditu, bere-bereak dituenak, hala nola aberatsen aldetik izaria eta pobreen aldetik kontentamendua. Ezen iduri du berdintasun erabatekoa gehiegizkoa dela. Spartan ere ez zen horrelakorik begiratu.

Gobernamendu era horrek ondasunei dagokien desberdintasun zerbait ekartzen badu, ez da, Aristotelesek zioenaren aurka, lehentasuna beti aberatsei ematen zaielakotz, baina ardurenik arazo publikoen administrazioa, astia horretan gehienik eman dezaketenen gomendiotan uzten delakotz. Alderantziz, munta handia du kontrako hautapen batek erakutsi diezaion artetan populuari, hautatzeko tenorean, arrazoi funtsezkoagoak direla gizonen merezimenduak haien aberastasunak baino.

## VI

### Monarkia

Honaino, Estatuko potentzia exekutiboa jasorik daukan, eta lekeen indarrak batu duen pertsona moral eta kolektibotzat jo dugu printzea. Orain, potentzia horri behatu behar diogu, pertsona natural baten eskuetan, hots, egiazko gizon baten eskuetan, bildurik dagoelarik, eta dakigularik, lege, honek baizik ezin erabil dezakeela potentzia hura. Pertsona horri erraten zaio monarka edo errege.

Beste administrazioetan ez bezala, haietan izate kolektibo batek banako bat ordezkatzeko baitu, honetan, alderantziz, banako batek izate kolektiboa ordezkatzeko du, halako moldean non printzea moldatzen duen unitate morala denbora berean unitate fisikoa baita, honen baitan berez bildurik kausitzen direlarik, legeak bestetan nekez biltzen dituen fakultateak.

Halatan, populuaren nahia, eta printzearen nahia, Estatuaren indar publikoa, eta gobernamenduaren indar partikularra, denak eragile berari darraizkio, mekanikaren beso guztiak buru berak ibilarazten ditu, oro helburu berari buruz aitzina doaz, elkar ezeztatzen duten elkarren aurkako mugimenduek ez dute tokirik, eta ezin asma daiteke osaera mota bihirik, hain indar gutiz hain eragin handia duenik. Arkhimedesek, ur hegian lasai jarriarik, indarrik egin gabe ontzi handi bat uretan ibilarazten duelarik, gogorarazten dit, bere gabinetetik bere Estatu zabalak gobernatzen dituen, eta mugitzen ez delako itxuran, oro ibilarazten dituen, monarka trebe bat.

Ordea, indar gehiago duen beste gobernamendurik ez bada, halaber ez da besterik, nahi partikularrari, halako aginpiderik, eta besteen gainean halako eskurik, ematen dionik; ezen, segurki hala da, oro helburu berari buruz aitzina doaz, baina helburu hori ez da zorian publikoa, eta administrazioaren indarra Estatuaren kalteko gertatzen da beti.

Errege absolutu izan nahi dute erregeek, eta horretako biderik segurena, populuei beren buruaren maitaraztea dutela oihustatzen zaie urrundik. Maxima hori arras ederra da, eta gisa batez egia ere. Zorigaitzez gorteetan ez du trufa baizik bilduko orain bezala geroan ere. Populuaren amodiotik datorren potestatea handiena da; ordea, baldinzkatua eta joankorra da eta ez die sekula gogoia beteko printzei. Errege hoberenek ere, plazer dutelarik gaizto izateko ahala izan nahi dute, nagusi izaten berdin jarraikiz, haatik: predikari politiko batek erranik ere errege horiei, populuaren indarra haiena dela, eta haien interes handiena dela populua aberats, jendetsu eta indartsua izan dadin, badakite hori ez dela egia. Zer da haien interes pertsonala? Lehenbizikorik, populua ahul eta erromes izatea, eta haiei buru egiteko ahalik sekula ez izatea. Aitor dut, menekoak beti

arras manukor egonen direla suposatuz gero, printzearen interesa litzatekeela populua ahaltsua izan dadin, amoregatik-eta ahal hori bereturik, printzea bera ere beldurgarri irudi dakien auzoei; baina nola interes hori bigarren mailakoa eta azpikoa baita, bai eta egiten diren bi suposizioak elkargaitz ere, berez doan gauza da, berehalakoan probetxu handiena ematen dien maxima hobesten dutela printzeek. Hori da Samuelek hebreoei erakusten ziena, eta Machiavellok ere nabarmenki ikusarazi duena. Honek irakaspen handiak eman dizkie populuei, erregeei ematen zizkielako itxuran. Machiavelloren Printzea errepublikazaleen liburua da<sup>25</sup>.

Ratio orokorrak ikertzean, monarkia Estatu handientzat baizik ez dela egoki aurkitu genuen, eta ber gauza aurkitzen dugu monarkia bera ikertzean. Zenbatenaz administrazio publikoa jendetsuago baita, hainbatenaz printzeak menekoekin duen ratioa tipiago egiten da, eta berdintasunari hurbilago, halako moldez non demokrazian ratio hori batekoa baita, erran nahi baitu berdintasuna bera dela. Ratio hori handituz doa gobernamentua hertsitzen bada, eta bere handiengan da gobernamentua pertsona bakar baten eskuetan delarik. Orduan distantzia handiegia da populuaren eta printzearen artean, eta Estatuak eskas ditu lokarriak. Haien moldatzeko arteko ordenak behar dira, bai eta, haien betetzeko, printzeak, handi-mandiak eta noblezia ere. Ordea, deus horrelakorik ez zaio komeni Estatu tipi bati, harentzat guztiz galgarri baitira arteko maila horiek guztiak.

Gaitz da Estatu handi bat ongi gobernatua izatea, anitzez gaitzago, ordea, gizon bakar batek ongi egitea, eta orok dakite zer gertatzen den erregeak ordezkioak hartzen dituelarik.

Badu monarkiaren gobernamenduak akats funtsezko eta ezin kenduzko bat, gobernamendu errepublikanoa hura baino egokiagotzat beti joaraziko duena. Honetan, boz publikoak gizon argi eta gai direnak altxatzen ditu, ia beti, lehen tokietara, eta ohorezki betetzen dituzte beren karguak; aldiz, monarkietan toki horietara heltzen direnak, maizenik deus ere ez dira, gaizkile kiskil, xpihari girgil eta nahastekari xirtxil batzuk baizik; errege gorteetan toki ohoragarrien eskuratzeko balio duten haien talendu ttipiek, kargu horietan jarri orduko, publikoaren begietan haien funsgabekeriaren agerian emateko baizik ez dute balio. Printzea populua baino makurrago dabil hautu horietan, eta ministerioan egiazko merezimenduko gizona hain bakan da abantzu, nola baita gobernamendu errepublikanoetan buruzagi ergela. Halatan, kargudun panpinatu horiek abantzu hondaturiko monarkia batean, zorizko zorionez, gobernatzeko sortua den gizon horietarik batek eskutan hartzen badu arazoan kudeantza, harritzeko da zenbat lan egiten duen, eta garai hori handik aitzina oroitzarri gelditzen da herrian.

Estatu monarkiko bat ongi gobernatua izan dadin, gobernatzen duenaren ahalmenen araberako neurriak izan behar lituzke handitasunean edo hedaduran. Errazago da konkistatzea, kudeatzea baino. Palanka aski handi batekin eri batez mundua kordokaraz daiteke, baina haren atxikitzeak Herkulesen lepo-bizkarrak behar dira. Estatu bat doi bat handi delarik, printzea ia beti harentzat tipiegi da. Estatua delarik, aitzitik, buruzagiarentzat tipiegia, arras bakanka gertatzen baita, modu berean gaizki gobernatua izaten da, zeren buruzagiak, bere ikuspegi handiei jarraikirik, populuen interesak ahanzten baititu, eta soberantzan dituen talenduen abusuaz hala dohakabez betetzen ditu populuak, nola buruzagi gogo-hertsia egiten baititu falta dituen talenduen eskasiaz. Erresumek erreinaldi bakoitzean printzearen ahalmenen eta helantzaren arabera hertsia edo zabalago izan behar lukete; aldiz, senatu baten talenduek izari finkoak dituztenaz gero, Estatuak beti muga berak izan ditzake administrazioa horrengatik gaizkiago joan gabe.

Gizon bakarraren gobernamenduaren akats nabarmenena da ez dela hartan, beste bi gobernamendu eretan batere etenik gabe gauzatua den bezalako segida jarraikirik.

Erregea hil ondoan, beste bat behar da; hautu denborak, haatik, arteko garai gaiztoak dira, ortzi aroa dakarte, eta azpikeria eta ustelkeria ageri ohi da orduan, non ez derakusten hiritarrek esku-zabaltasuna eta gobernamendu horretan ohi ez den zintzotasuna eta zuzentasuna ere. Nori ere baitio Estatuak bere burua saldu, hainak gero hura saltzen ohi du, eta halakoak ahulenen bizkar kitatzen ohi du ahaldunek bortxaz hartu dioten diruaren zorra. Gaitz da bestela gertatzen. Horrelako administrazioan, goiz edo berant, oro salgai gertatzen dira, eta erreinualdi arteetako desordena baino gaiztoago da oraino erregeen denboran gozaturiko bakea.

Zer egin dute gaitz horien aitzintzeko eta eragozteko? Koroak ondoretasunezkoak egin dituzte familia zenbaitetan, eta ondoretza hurrenkada bat finkatu dute, erregea hiltzean liskarrik ez dadin sor. Hots, hautatu beharraren makurra errege-ordetzaren okerraz ordainkatuz, itxurako bakea hobetsi dute administrazio zuhurra baino, eta errege egokien hautuez kalapitaz ibili baino irriskatu nahiago izan dute zenbait haur, zenbait munstro edo zenbait buruments, buruzagi izan dadin; ez dute gogoan erabili nola alternatibaren irriskuei bidea irekitzen diena bere buruaren kontra jokatzeko menturan bete-betean sartzen den. Zentzuz betea zen Denis gaztearen hitz hau, aita egitate ahalke egingarri zenbaitengatik erasian galdu ziolarik: Horrelako eredurik erakutsi diata?, ihardetsi baitzion: A, zure aita ez zen errege!

Besteen manatzeko hezia izan den gizonari arrazoinamena eta jujamena urritzen ohi zaio. Horrela gertatzen da. Diotenaz, egin ahalak egiten dituzte printze gazteei errege izateko artearen irakasteko; ez dirudi, ordea, irakaskuntza horretarik probetxurik batere duten. Hobeki legikete obeditzeko artea lehenik irakats baliezaiete. Historiak ospatu dituen errege handienak ez dira errege izateko heziak izan; ez da sekula zientzia horretaz hain guti jabetzen nola gertatzen baita sobera ikasi ondoan, eta hobeki ikasten da obedituz ikasiz baino. Nam utilissimus idem ac brevimus bonarum malarumque rerum delactus, cogitare quid aut volueris sub alio Principe aut volueris <sup>26,27</sup>.

Koherentzia falta horren ondorioa da errege gobernamenduaren aldakortasuna eta jarraikitasunik eza, batzuetan egitarau baten, eta, besteetan, beste baten arabera aritzen baita, noiz nola, eta nolakoa den, karguak eskutan dituen erregearen, edo haren orde errege lanetan dabilzan jendeen nortasuna; gisa horretan, gobernamendu horrek ezin atxiki dezake luzaz xede finkorik eta jokabide segidazkorik. Aldakortasun horrek Estatua maximaz maxima eta proiektuz proiektu sigi-sagaka ibilarazten du, ez baita horrelakorik gertatzen printzea beti bera den beste gobernamenduetan. Halatan ikusten dugu orokorki, gorteetan besteetan baino amarrukeria gehiago izanik, senatuetan, berriz, zuhurtzia gehiago badela, eta errepublikek molde jarraikiago eta hobeki zaindu batean bilatzen dituztela helburuak, ez baita horrela gertatzen monarkietan, haietan ministerioaren barnean gertatu aldakuntza bakoitzak jokabide berri bat ekartzen baitu Estatuan ere, zeren ministro guztiek, eta ia errege guztiek ere, duten maxima komuna, gauza orotan aitzinekoaren alderantzizkoaren egitea baita.

Inkoherentzia horretarik beretik errege politikariek maiz derabilten sofisma baten konponbidea ere ateratzen da; ezen, batetik, gobernamendu zibila eta etxekoa, eta, halaber, printzea eta etxeko jauna ere konparatzen dituzte, jadanik zuzendu dugun huts bat egiten baitute horrela, baina, bestetik, horretaz gainera, magistratu hori, behar lituzkeen bertute guztien jabe ere egiten dute frankoki, eta beti izan behar lukeen bezalakoa dela suposatzen dute. Suposizio horri esker, beste edozein baino hobea da errege gobernamendua, zeren ezbairik gabe indartsuena baita, eta, beraz, hoberena izateko ere deus ere ez baitu eskas, nahimen orokorraren arabera koroagoa litzatekeen gorputz nahimena baizik.

Baina, baldin, Platonek<sup>28</sup> dioen bezala, berezko erregea berez hain pertsonaia bakankakoa bada, zenbat aldiz elkar adituko dute naturalezak eta fortunak, koroaren

horrelako bati jantzarazteko? Eta baldin errege hezkuntzak nahitaez korronpitzen baditu haren bidez moldatzen direnak, zer igurika daiteke errege izateko bata-bestearen ondotik heziak izan diren gizon batzueganik? Beraz, bere burua engainatu nahi du errege gobernamentua eta errege on batena nahasten dituenak. Gobernamentu horren den bezala ikusteko, printze hertsu eta gaiztoen eskuetan dagoelarik kontsideratu behar da; ezen edo halakaturik jarriko dira errege alkian, edo erregetzak halakatuko ditu.

Zailtasun horiei ohartu zaizkie gure autoreak, baina ez dituzte kontuan hartu. Sendabidea, diote, murriztu eta oldartu gabe obeditzea da. Jainkoak bere hasarre saildian ematen ditu errege gaiztoak, eta zerutikako gaztigu gisa jasan behar dira. Eiki ele horiek oneragarriak dira, baina banago ez ote liratekeen toki egokiagoan predikatu batean politikazko liburu batean baino. Zer erran, mirakuluak hitz ematen dituen, eta eria pazientziadun eta pairatsua izatera sustatzeaz beste arterik ez duen medikuaz? Orok dakigu, hor delarik, gobernamentu txarra pairatu behar dela; ona nola aurki, horra baina kontua.

## VII

Gobernamentu mistoez

Hitz garbitan mintzatuz, ez da gobernamentu bakunik. Buruzagi bakar batek, magistratu batzuk bere pean behar ditu; eta halaber gobernamentu popular batek ere, buruzagia behar du. Horrela potentzia exekutiboaren partekamoldean, kopuru handitik tipia gora doan mailakatze bat bada, diferentzia honekin hala ere: zenbaitetan kopuru handia tipiareneko da, eta beste zenbaitetan, berriz, kopuru tipia handiaren.

Beste zenbait alditan parean dira; edo gobernamentua osatzen duten alderdiak elkarrenpeko direlaket, hala nola Ingalaterrako gobernamentuan, edo alderdi bakoitzaren agintea, inorenpeko ez izanik ere, inperfektua delaket, hala nola Polonian. Azken era hau txarra da, zeren batasunik ez baita gobernamentuan, eta Estatuak lotura eskasa baitu bere barnean.

Zein da hobe, gobernamentu bakuna ala gobernamentu mistoa? Politikariek biziki erabili dute gai hori, eta aitzinago gobernamentu mota oroz ari izanez egin dudana ihardespenean bera eman dakioke galdeari.

Gobernamentu bakuna, bakun izateagatik beragatik, berez hobereana da. Baina potentzia legegileak potentzia exekutiboa aski peko ez duenean, erran nahi baitu printzetik subiranora ratio handiago delarik populutik printzera baino, proportzio eskasura hori gobernamentua zatikatuz konpondu behar da; ezen orduan parte horiek guztiek ez dute menekoen gainean aginpide tipia, eta beren arteko zatikadurak, oro batean harturik, ahulago egiten ditu subiranoaren aitzinean.

Makur beraren eragozteko magistratu arartekariak ere ematen dira, haien egiteko bakarra haxe baita, gobernamentua bere betean utzirik, bi potentzien artean orekaren atxikitzea eta bakoitzaren eskubideen begiratzea. Orduan gobernamentua ez da mistoa, mugatua baizik.

Ber bideak baliatuz alderantzizko makurra ere eragotz daiteke, gobernamentua laxoegi denean, auzitegiak sortuz bilduago izan dadin. Demokrazia guztietan egiten da. Lehen kasuan, ahultzeko zatikatzen da gobernamentua, bigarren kasuan, sendotzeko; ezen indarra eta ahulezia, berdin, neurri gorenean, kausitzen da gobernamentu bakunetan; gobernamentu mistoek, aldiz, izariko indarra ematen dute, bi muturren artekoa, hots.

## VIII

Nola ez den edozein gobernamentu edozein herrirentzat egoki

Libertatea ez baita klima guztietako fruitua, ez da populu guztien helmenean. Zenbatenaz gogoanago erabiltzen baita Montesquieuk finkaturiko printzipio hori, hainbatenaz nabariago da haren egitasuna. Zenbatenaz auzitanago jartzen baita, hainbatenaz parada gehiago ematen da frogari berrien bidez haren hobeki finkatzeko.



Munduko gobernamentu guztietan pertsona publikoak kontsumatzen du, eta ez du deus ekoizten. Nondik bildu du kontsumatu ekaia? Partaideen lanetik. Partikularren soberakinek dituzte publikoaren beharrak asetzen. Horretarik ondorio hau: estatu zibilak ezin iraun dezake, jendeen beharren asetzekoa baino gehiagokorik ez badakar gizonen lanak.

Soberantza hori, haatik, ez da munduko herri guztietan berdin. Estatu zenbaitetan handi handia da, beste batzuetan hala-holakoa, bestetan hutsaren pareko, bestetan negatiboa. Gauza anitzi lotua da, hala nola klimaren emankortasunari, lurak eskatzen duen lan motari eta ekartzen dituen ekoizpenei, bizitzaileek duten indarrari eta haien kontsumatu beharraren nolakotasunari, bai eta gisa bereko beste zenbait osakini.

Bestalde, gobernamentu guztiak ez dira izaera berekoak; batzuk besteak baino gastatzaileago dira, eta diferentzia horiek beste printzipio honetan funtsatzen dira: zenbatenaz kontribuzio publikoak beren iturburutik urrunago baitoaz, hainbatenaz garestiago dira. Zama hori ez da zerga kopuruen arabera pisatu behar, ateratzen diren eskuetara berriz itzultzeko ibili behar duten bidearen arabera baizik; joan-etorria laster eta segura delarik, anitz pagaturik edo guti, ez du axolarik; populua beti aberats da, eta finantzak beti egoera onean. Aitzitik, populuak den gutiena emanik ere, guti hura gibelera berriz ez badatorkio, beti emanez eta emanez ahitzen da; azkenean Estatuak ez da sekula aberats, eta populua beti erromes.

Halatan zenbatenaz populutik gobernamenturako bidea luzeago baita, hainbatenaz legarrak pisuago dira: horrela demokrazian da populua gutienik zamatua, aristokrazian, berriz, kargatuago da, eta monarkian du pisurik pisuena jasan behar. Monarkia nazio jori, aberatsei baizik ez dagokie, aristokrazia handitasunean eta aberastasunean doi batean dohatuak diren Estatuak, demokrazia populu tipi eta pobreei.

Alabaina, zenbatenaz gogoanago erabiltzen baita gai hori, hainbatenaz diferentzia handiagoa aurkitzen da estatu libreoen eta monarkikoen artean: lehenbizikoetan dena probetxu komunarentzat baliatua da; besteetan, berriz, indar publikoak, alde batetik, eta indar partikularrek, bestetik, elkar mugatzen dute, elkarren kaltetan emendatzen direlarik. Azkenik, despotismoak, menekoen zorionaren egiteko gobernatu beharrean, noharroin eta miserable egiten ditu gobernatu ahal izateko.

Horra beraz klima bakoitzean kausa natural batzuk, haien arabera igar baitaiteke klimaren indarraren eraginez zer gobernamentu era behar litzatekeen toki horietan, bai eta erran ere, zer bizitzaile mota egoki litzatekeen. Lanarenik ematen ez duten leku agor eta gogorrek landugabe eta larre egon behar dute, bizilagunak gabe, edo jende basez baizik ez jendeztatuak. Gizonen lanak behar den doi hura baizik ez dakarren lekuetan populu barbaroek bizi behar dute, haietan inolako politikarik ezin era baitaiteke. Lanaren ekarria eta mozkina hala-holakoa baizik ez den lekuak populu libreentzat dira egoki. Lur nasai eta emankorrek lan gutiz anitz ekartzen duten tokiak monarkikoki gobernatu behar dira, printzearen handiostasunak ditzan menekoen soberantzaren soberakinak kontsuma; ezen hobe da soberakin horiek gobernamentuak gasta ditzan partikularrek nolanahika xahutzea baino. Salbuespenak badirela badakit; baina salbuespen horiek araua are hobeki finkatzen dute, zeren haien ondorioz, goiz edo berant, gauzak naturalezaren ordenan berriz jartzen dituzten iraulmenduak gertatzen baitira.

Bereiz ditzagun beti lege orokorrak, haien efektua eta ondorioak aldarazten dituzten kausa berezietarik. Eguerdialde guztia errepublikaz estalia balitz, eta iparralde osoa Estatu despotikoez, hala ere berdin egia litzateke, klimaren ondorioz hobeki dagokiela despotismoa herri beroei, barbaria herri hotzei baino, eta politika ona herrialde epelei baino. Halaber badakusat printzipioa ontzat emanez ere, haren aplikazioa eztabaidan jartzen ahalko dela, hala nola erraten ahalko baita badirela herri hotz batzuk hagitz

emankorrak direnak eta hegoaldeko herri batzuk arras zikorak. Baina ez da hor zailtasunik, gauzari bere itzuliguru eta alderdi guztietan behatzen ez dionarentzat baizik. Ezen, jadanik errana dudan bezala, lanak, indarrak, kontsumadura, etabar kontuan hartu behar dira.

Jo dezagun izari bereko bi lurretarik bata bost ematen duela, eta besteak hamar. Lehenbiziko lurrean bizitzaileek lau jaten badute, eta bigarren lurrekoek bederatzi, lehen lurrean soberakina 1/5ekoa izanen da, eta bigarrenean 1/10ekoa. Halatan, soberakin horien ratioa emaitzen ratioen alderantzizkoa baita, hamar ematen duen lurrari konparatuz soberakin doblea ekartzen du bost bakarrik ematen duen lurrak.

Baina ezin mintza daiteke emaitza dobleaz, eta ez dut uste inor ausartatuko den herri hotzetako emankortasuna eta herri beroetakoa orokorki parean ematera. Hala ere eman dezagun emaitzetan berdintasuna badela; pareka ditzagun horrela Ingalaterra eta Sizilia, Polonia eta Egipto. Hegoalderago Afrika eta Indiak izanen ditugu, eta iparralderago ez dugu ezer gehiago izanen. Emaitza berdintasun horrentzat zer diferentzia dugu laborantzian? Sizilian aski da lurraren karrakatzea; Ingalaterran berriz zenbat arta lurraren lantzeko! Emaitza berarentzat beso gehiago behar denean, haatik, soberakinak nahitaez tipiago izan behar du.

Gogoan har, horretaz landa, jende kopuru berak anitzez gutiago kontsumatzen duela herri beroetan. Osasunez sendo izateko hurriki jatea eskatzen du hango klimak: han, beren sorterrian bezala bizi nahi diren europar guztiak uxadaz eta indigestioz hiltzen dira. Asiarren ondoan, dio Chardin-ek, gu piztia haragijaleak gara, otsoak. Zenbaitek diote, haien herriko lurrak gutiago lantzen direlaket emanak direla persiarrek janurriari, baina nik, aitzitik, uste dut, hango bizitzaileek janari gutiagorekin aski dutelaket dela jangai gutiago han. Jaterakoan duten neurri eta xuhurtasuna herriko gosetearen ondorioa balitz, segitzen du, pobreek bakarrik guti jan lezaket, ordea denek guti jaten ohi dute; halaber, probintzia bakoitzean gutiago edo gehiago jan liteke tokiko lurren emankortasunaren arabera, baina erresuma guztian janurritasun bera aurkitzen da. Beren bizimoldea goraipatzen dute, baderasatelarik aski dela haien larruaren koloreei behatzea, zeinen giristinoek baino hobeak dituzten ohartzeko. Alabaina persiarrek ez dituzte kolore nahasiak; larrua eder, mehe eta leuna dute; aldiz, haien meneko diren eta europarren moduan bizi diren armeniarrek latz eta gorristatua dute eta gorputza ere, gizen eta pisu.

Ekuatoreari hurbildu arau, gero eta jangai gutiagorekin bizi dira populuak. Ez dute ia haragirik jaten; irrisa, artoa, kuskusa, arto xehea, kazabea, horra haien usaiazko hazkurria. Badira Indietan milioika gizon, egunean sos batena ere ez baitute jaten. Europar berean, diferentzia nabarmenak badira janguraren aldetik iparraldeko eta eguerdialdeko populuen artean. Aleman baten afariak zortzi egun iraunen dio espainol bati. Gizonak jale handiago diren herrietan, luxua ere jaten diren gauzei buruz itzulia da. Ingalaterran, mahaia haragiz mukuru betez erakusten da; Italian, liliz eta azukrez asetzen zaituzte.

Jantzietako luxuak ere horrelako diferentziak eskaintzen ditu. Sasoi aldarte labur eta bortitzak dituzten klimetan, jantziak soilago eta hobeak izaten dira; arropak edergailu baizik ez diren herrietan, ordea, dirdira preziatzenago da baliagarritasuna baino, eta jantzia bera luxua da. Napolin egun guztiez ikusiko dituzue gizonak Posillipon, jaka urreztatua soinean, eta jostura bereziko jantzietan ibiltzen. Gauza bera da eraikidurentzat; aireak egin zaurien beldurrik ez denean, dena edertasun eta handitasunaren arabera egiten da. Parisen, Londresen, bizitoki beroak eta erosoak nahi dituzte. Madrilen solasgela ederrak dituzte bizitokietan, baina ez leiho-berina hesten denik, eta arratoin habiak diren etzangietan oheratzen da.

Jatekoak anitzez hazkuritsuago eta gozoago dira herri beroetan; horra hirugarren diferentzia bat bigarrenean ere eraginik izan dezakeena. Zergatik hainbeste baratzekari jaten da Italian? On, hazgarri eta zaporetsu direlaketz. Frantzian, baratzekariak urez baizik ez baitira hazten, ez dute haiek ere hazten, eta mahainetan kasik ezdeuskeriatzat hartuak dira. Alta ez dute lur gutiago behar, eta Italian bezainbat lan ematen du haien hazteak. Esperientzia egina da, Barbariako gariek, Frantziakoak bezain onak ez izanagatik, irin gehiago ekartzen dutela, eta Frantziakoek, berriz, Iparraldekoek baino gehiago. Hortik inferentziaz ondorio hau atera daiteke, ekuatoretik iparbururaino horrelako mailakatze bat badela, alde bererantz doana. Ordea, ez dea desabantaila nabaria uzta beretik hazkurri gutiago ateratzea?

Kontu horien guztien gainetik beste bat oraino gainera dezaket, haiei darraikiena eta indar ematen diena: herri beroek herri hotzek baino bizitzaile gutiagoren beharra dutela, eta jende gehiago haz lezaketela. Horrek bi soberakin mota dakartza, despotismoaren abantailatan direnak. Bizitzaile kopuru beraz mintzatuz, zenbatenaz eremua zabalagoa baita, hainbatenaz zailago izanen dira jazarraldiak; zeren ezinezkoa baita orduan laster eta isilean elkar aditzea, eta erraza baita gobernamentuarentzat proiektuen eragozte eta komunikabideen moztea; alderantziz, zenbatenaz populu jendetsu bat leku berean tinkatuago baita, hainbatenaz nekezago usurpaziorik egin dezake gobernamenduak subiranoaren kaltetan; ezen, printzeak bere kontseiluan bezain aise deliberatzen dute jendeen buruzagiek beren ganbaretan, eta soldadoak beren biltokietan bezain laster biltzen da jendaldea plazetan. Gobernamendu tiranikoaren abantaila da, beraz, urrun-urrunetik aritzea eta eragitea. Bermatzeko baliatzen dituen puntu batzuei esker haren indarra berretzen da urrun dagoenean, hala nola palankekin gertatzen baita<sup>29</sup>. Populuaren indarrak, aitzitik, bildurik eta bat eginik baizik ez du eraginik, hedatu arau, lurruntzen da eta galtzen, hala nola, emeki-emeki, bihiz bihi bezala, lotzen baitzaio sua lurrean barbanakatua den bolborari ere. Gutienik jendeztatuak diren herriak dira tiraniarentzat egokienak: basapiztia ankerrak basamortuetan baizik ez dira nagusi.

## IX

Gobernamendu on baten seinaleez

Beraz, galdatzen denean zein den absolutuan gobernamendurik hoberena, erantzunik eta mugarik gabeko galdea egiten da; edo, horrela erran nahiago izanez geroz, zenbat konbinazio gerta baitaiteke populuen egoera absolutu eta erlatiboetan, hainbat erantzun egoki du galde horrek.

Haatik, galde egiten balitz zein seinaletarik ezagutzen den populu jakin bat ongi ala gaizki gobernatua den, orduan beste kontu bat litzateke, eta galdeari, egiazki egokiro ihardets ahal lekieke.

Altabada ez zaio egokiro ihardesten, zeren bakoitzak bere eran erantzun nahi baitio. Menekoek sosegu publikoa goraipatzen dute, hiritarrek partikularren libertatea; batak ukantzaren segurtasuna hobesten du, besteak pertsonen segurantzak; batak gobernamendu hoberena gogorrena dela dio, besteak eztena; honelakoak krimenak gaztiga daitezen nahi du, eta halakoak, aitzinetik eragotz daitezen; honi eder zaio auzoak haren beldur izan daitezen, besteak nahiago du kasurik egin ez diezaioten; bata pozten da dirua ongi ibilki delarik, besteak populuak ogia izan dezan eskatzen du. Puntu horien eta beste horrelakoen gainean ados jarrikeria ere, zer aitzinamendu litzateke? Zenbaketa moralek ez baitute neurri zehatzik, seinaleaz ados izanik ere, nola bat etor haiei baliorik ematerakoan?

Harrigarri zait eni, arras sinple den seinale bat ez baita ezagutzen, edo horren ez aitortzeko fede gaiztoa ageri baita. Zer da elkarkuntza politikoaren azken xedea? Partaideen osasun sendotasuna eta ondasun joritasuna. Eta zer da sendoki eta joritasunean bizi direlako seinalerik segurena? Haien kopurua edo jendetza. Ez joan

beste norabait hainbeste eztabaida ekarri duen seinalearen bila. Besteak oro berdin direla, kanpotikako mediorik gabe, arrotzik herrikotu gabe, koloniarik gabe, hiritarrak emendatzen eta lurberrian jartzen direnean gobernamentua nahitaez denik hoberena da. Populua gutitzen eta iraungitzen bezala denean gobernamentua denik gaiztoena da. Kalkulariak, orain zuen egitekoa da: konta, izariak har, konpara<sup>30</sup>.

X

Gobernamentuaren abusuak, eta gaizkoatzeko haren joerak

Nola nahimen partikularra, gelditu gabe, nahimen orokorraren kontra aritzen baita, hala gobernamentua ere subiranotasunaren kontra jarraituki bermatzen da. Bermantza hori berretu arau, konstituzioa gero eta makurragora aldatzen da, eta nola ez baita printzearen nahimenari ihardukitzen dion, eta hura bezainbat den, beste gorputz nahimenik, goiz edo berant gertatzen da, printzeak subiranoa zapaltzen baitu azkenean, eta gizarte hitzarmena hausten. Horra hor, zahartzeak eta heriotzeak gizonaren gorputza suntsitzen duten bezala, gorputz politikoa sortzetik beretik suntsitzera daraman berezko eta ezin kenduzko bizioa.

Bi egoera orokorrek daramate gobernamentua desagitera; hots, hertsitzen denekoak, edo Estatua desagiten denekoak.

Gobernamentua hertsitzen da kopuru handitik tipira pasatzen denean, erran nahi baitu demokraziatik aristokraziara, eta aristokraziatik erregetzara. Berez horretara ekarria da<sup>31</sup>. Baldin kopuru tipitik handira gibelera balihoa, zabaltzen eta laxatzen dela erran liteke, baina zentzuz kontrako aitzinamendu hori ezinezkoa da.

Alabaina gobernamendu batek ez du inoiz eraz kanbiatzen, non ez den haren erresorta hain higatua, ezen ahulduegiz ezin atxiki baitezake gehiago bere era. Haatik, zabalduz are gehiago laxa baledi, bere indarra aldebat gal lezake, eta oraino gutiago lirauke. Erresortak indar galtzen duen arau, goititu eta tinkatu behar da, beraz, bestela atxikitzen duen Estatua honda liteke.

Estatuaren desagintzaren kasua bi moldetan ager daiteke.

Lehenik agertzen da, printzeak ez duenean gehiago Estatua legeen arabera kudeatzen, eta botere subiranoa usurpatzen duenean. Orduan aldakuntza ohargarria gertatzen da; ez baita gobernamentua hertsitzen, Estatua baizik, erran nahi baitut Estatu handia desagiten dela eta beste bat hartan eratzen dela, gobernamenduko partaideez soilik osatua, deus ere ez baita gehiago hura gaineratiko popularentzat nagusia eta tiranoa baizik. Horrela gobernamenduak subiranotasuna usurpatzen duen ordutik beretik, gizarte hitzarmena etena da, eta hiritar soil guztiek, beren libertate naturalean berriz eskubide osoz sarturik, bortxaz obeditu behar dute, ez eginbidez edo zordun izanez.

Kasu bera gertatzen da, halaber, noiz ere gobernuakideek gorputz gisa elkarrekin erabili behar luketen boterea bakoitzak bere aldetik usurpatzen baitu; hori ez baita lege urraketa arinagoa, eta are desordena handiagoa baitakar. Orduan kasik magistratu bezainbat printze bada, eta Estatua, gobernamentua bezain zatikatua delarik, edo hiltzen da, edo eraz kanbiatzen.

Estatua suntsitzen denean, gobernamentuaren abusuak -edozein izan dadin- anarkiaren izen komuna hartzen du. Bereizketak eginez, demokrazia oklokrazia bilakatzen da, eta aristokrazia oligarkia; gainera nezake erregetza tirania bilakatzen dela, baina azken hitz hori nahasgarri da, eta argitu behar da.

Zentzu arruntean, indarkeriaren bidez, justiziaz eta legeez konturik egin gabe, gobernatzen duen erregea da tiranoa. Adiera hertsian, eskurik gabe errege aginpidea hartzen duen partikularra da. Horrela aditzen zuten grekoek tirano hitza. Legitimoak ez ziren printze gaiztoentzat eta onentzat berdin erabiltzen zuten<sup>32</sup>. Halatan tiranoa eta usurpatore arras sinonimo diren bi hitz dira.

Gauza desberdinei deitura desberdinen ematearren, tirano erraten diot errege aginpidea usurpatzen duenari, eta despota botere subiranoaren usurpatzaileari. Legeen arabera gobernatzeko, legeen kontra gobernamenduan jartzen dena da tiranoa; despota, aldiz, bere burua legeen gainetik ematen duena da. Horrela tiranoa ez da baitezpada despota, baina despota, ordea, beti da tirano.

## XI

Gorputz politikoen heriotzeaz

Halakoa da hobekienik eraturik dauden gobernamenduen joera berezko eta ezin itzurizkoa. Sparta eta Erroma hil badira, zein Estatuk izan dezake beti irauteko esperantza? Erakuntza iraunkorra moldatu nahi badugu, ez gaitezen entseia haren betiereko egitera. Helburuetara ongi heltzeko, ez has ezinaren garaitzeko zinetan, eta ez uste izan, giza eginek ez duten sendotasuna eman ahal dakiekeela giza obrei.

Gorputz politikoa, hala nola giza gorputza, sortu orduko hiltzen hasten da, eta bere baitan bere heriotzearen kausak dakartza. Baina nola batak hala besteak osaera sendoago edo ahulago izan dezakete, eta honen arabera luzeago edo laburrago bizirik egon ahal daitezke. Gizonaren gorputz osaera naturalearen obra da, Estatuarena artearena da. Ezin luza ditzakete gizonak beren biziak; haien esku da, haatik, Estatuari den osaerarik hoberena emanik, haren ahal bezainbat iraunaraztea. Hobekienik moldatuak ere akabantza segura du, baina besteri baino berantago helduko zaio, baldin ustegabeko ezbehar batek haren galtzea hartako denbora baino lehenago ez badakar.

Bizi politikoen printzipioa aginpide subiranoan datza. Potentzia legegilea, Estatuaren bihotza da, potentzia exekutiboa, berriz, haren burua, horrek baititu parte guztiak mugiarazten. Burua ezindurik eta paralisaturik gerta daiteke, giza banakoa oraino bizi izanik. Buruments gelditurik ere bizi da gizona: baina bihotzak bere egitekoan huts egin orduko, animalia hila da.

Estatuak ez dirau legeei esker, botere legegileari esker baizik. Atzoko legeak ez du gaur egungo behartzen, baina isiltasuna onarpen isiltzat jotzen da, eta subiranoak legeak ingargabetzen ez dituenean, alta egin ditzakeelarik, etengabeki konfirmatzen dituela kontsideratzen da. Behin nahi zuela erran duen guztia handik aitzina beti nahi du, bestelakorik adierazten ez dueno.

Zergatik, bada, hainbeste errespetatzen dira lege zaharrak? Horrengatik berorrengatik. Pentsatzen bide da nahimen zaharren bikaintasunak dituela hain luzaz atxiki ahal izan; alabaina subiranoak denbora horretan guztian onekotzat jo izan ez balitu, mila aldiz indargabetuko zituen. Horra zergatik ahulduz joan gabe, legeek, aitzitik, beti indar berria hartzen duten Estatu ongi eratuetan; aspaldikotasunari dagokion uste onak egun bakoitzean are errespetagarriagoak egiten ditu; aitzitik, legeak zahartzearekin ahultzen diren leku guztietan, froga dugu ez dela gehiago botere legegilerik, eta Estatua ez dela gehiago bizi.

## XII

Nola indarrean egoten den aginpide subiranoa

Subiranoak beste indarrik ez baitu potentzia legegilea baizik, legeen bitartez baizik ez dihardu, eta legeak nahimen orokorraren akta autentikoak baizik ez baitira, populua bildurik dagoenean baizik ezin ihardun dezake. Populua bildurik! erranen da, zer ameskeria! Ameskeria da egun, baina ez zen hala duela bi mila urte. Gizonen naturaleza aldatu ote da?

Ahal denaren mugak gauza moraletan ez dira guk uste bezain hertsia. Gure ahuleziek, gure bizioek, gure aurriritziek dituzte hertsitzen. Arima flakoek ez dute gizon handien baitan sinesten; esklabo ezdeusek trufazko irriñoa dute libertate hitza entzutean.

Egina izan denaz kontu eginik beha diezaiogun egin daitekeenari; ez naiz Greziako errepublika zaharrez mintzatuko, baina Erromako errepublika Estatu handia zela

iruditzen zait, eta Erromako hiria, hiri handia. Azken zentsuaren arabera, Erroman lauhun mila hiritar armadun baziren, eta, azken zenbaketaren arabera, lau milioi hiritar baino gehiago baziren Inperioan, menekoak, arrotzak, emazteak, haurrak, esklaboak, kontuan hartu gabe.

Zenbat nekezia ez daiteke asma hiriburu horretako eta haren inguruetako populu guztiz jendetsuaren maiz bilarazteko! Bizkitartean, aste guti iragaten zen Erromako populua bildu gabe, berdin, behin baino gehiagotan. Subiranotasunari zihoazkion eskubideak ez ezik, gobernamentuaren zegozkionak ere, partez, eskutan zeuzkan. Zenbait arazoz iharduten zuen, auzi batzuk trinkatzen, eta hiritar izaten zen bezain ardura, magistratu izaten zen populu hura herriko plazan.

Nazioen lehenbiziko denboretara itzul bagintez, gobernamendu zahar gehienek, monarkikoen ere bai, hala nola frankoenek eta mazedoniarrenak, horrelako biltzarrek bazituztela ikus genezake. Nolanahi ere den, dudatan jarrezinezko datu horrek berak zailtasun guztiei ihardesten die. Denetik izan daitekeenaren ondorioztatzea jokabide ona zait.

### XIII

#### Jarraipena

Ez da nahikoa populu bilduak lege gorputz bati onespina emanaz, Estatuaren konstituzioa finka dezan; ez da nahikoa populu horrek gobernamendu osaera betikotz establi dezan, edo magistratuen hautapena behin betikotz segurta dezan. Ustagabeek ezinbestekoak egin ditzaketen ohiz kanpoko biltzarrez landa, epe finkoetakoak ere izan behar dira, deusek ezin gibelatzen, eta ezin ken ditzaketenak, eta hain finki jarriak non erran egunean, legeaz, gomitat berezirik hartu gabe, haietara deitua baita populua.

Haatik, datagatik beragatik bakarrik legezkoak diren biltzar horietaz lekora, beste biltzarrek oro deslegitimotzat joko dira, bai eta haietan eginen diren guztiak ere, ezdeustzat edukiko, non ez duten biltzeko deia horretarako izendatuak izan diren magistratuek, behar bezalako erak errespetatuz, bidaltzen. Ezen biltzeko ordena bera ere legeak eman behar du.

Legezko biltzarrei dagokien maiztasuna hainbeste gora-beheraren arabera da, non ezin eman baitaiteke hartaz erregela zehatzik. Hauxe bakarrik erran daiteke orokorki: zenbatenaz gobernamenduak indar handiago baitu, hainbatenaz maizago bere burua erakutsi behar duela subiranoak.

Erranen didate, hori hiri bakar baten kasuan dela egoki; baina zer egin, ordea, Estatuak hiri bat baino gehiago duelarik? Aginpide subiranoa partekatuko ote da, ala hiri bakar batean bildu beharko ote da, eta gaineratikoak honen peko jarri?

Ez bataren eta ez bestearen egiteko ihardesten dut. Ezen lehenbizikorki aginpide subiranoa bakun eta bat da, eta ezin parteka daiteke suntsitu gabe. Bigarrenekorik, ezin izan daiteke hiri bat, ez eta nazio bat ere, legitimoki beste baten peko, zeren alde batetik, gorputz politikoaren esentzia obediartzaren eta libertatearen arteko adostasunean baitatza, eta, bestetik, meneko eta subirano hitzak, hiritar hitz bakar horrek biltzen dituen korrelazio beretan baitaude.

Ihardesten dut oraino, beti gaizki dela hiri bat baino gehiago zibitate batean bateratzea, eta horrelako bateraketa egin nahi bada, ez dela handik datozen makur naturalarik itzurtzen dela uste izan behar. Ez da Estatu handien abusuek baliatu behar, Estatu tipiak bakarrik nahi dituenaren kontra argudiatzeko; baina nola aski indar eman Estatu tipiei, handiei buru egiteko? Haraitzinean Greziako hiriek errege handiari iharduki zioten, eta berrikitanago Holandak eta Suitzak Austriako etxeari.

Hala ere Estatuak zedarri egokietara murriztea ezinezkoa bada, beste aterabide bat oraino gelditzen da; ez onar hartan hiribururik, bilaraz aldizka hiri guztietan gobernamendua, eta halaber juntaraz haietan herriko estatuak.

Eremu guztia berdinki jendezta, zabal orotan eskubide berak, ekar orotan bizia eta frankotasuna, horrela izanen da Estatua ber denboran indartsuena eta ahal den hobekienik gobernatua. Gogoan atxiki hirietako harresiak landetako etxeen ondarkinez eginak direla. Hiriburuan altxatzen ikusten dudak jauregi bakoitzean, iruditzen zait herri bat osorik etxola miserabletan emana ikusten dudala.

#### XIV

##### Jarraipena

Populua gorputz subirano gisa bildua den bezain laster, gobernamentuaren jurisdikzioa osoki gelditua da, potentzia exekutiboa arte horretan etena da, eta azken hiritarraren pertsona, lehen magistratuarena bezain sagaratu eta bortxaezina da, zeren, non ere baita ordezkaturik dagoena, hantxe ordezkariarik ez baita. Erroman komizio deitu biltzarretan gertatu ziren jazaraldi gehienak erregela horren ez jakitetik edo ez betetzetik sortu ziren. Kontsulak populuaren presidentak baizik ez ziren orduan, tribunak hizlari<sup>33</sup> soilak ziren bakarrik, Senatua deus ere ez zen.

Printzeak, bera bainoagoko bat onartzen, edo onartu behar duen arteko garai horiek beti perilosak izan dira harentzat, eta populuaren biltzar horiek, gorputz politikoaren babesgarri, eta gobernamentuaren bridagarri direnek, betidanik buruzagiak ikaratu dituzte; halatan, denbora guztian egin ahalak egiten dituzte hauek, artak, eragozpenak, zailtasunak eta promesak, biderkatuz, hiritarren haietarik gibelarazteko. Hauek zikoitz, koldar, herabeti, libertatez baino deskantsuz goseago direnean, ez dute luzaz ihardukitzen gobernamentuaren egin ahaleko egin ahalen aitzinean; horrela, bada, nola kontrakarreko indarra berretzen baita, aginpide subiranoa azkenean ahitzen da, eta zibitate gehienak garaia gabe erortzen dira eta eihartzen.

Baina aginpide subiranoaren eta gobernamendu arbitrarioaren artetik, erdiko botere bat sartzen da batzuetan, aipatu behar dena.

#### XV

##### Deputatuez eta ordezkariez

Hiritarren kezka nagusia ez denean gehiago zerbitzu publikoa, eta beren odol-izerdien bidez baino diruaren bidez zerbitzatu nahiago dutenean, Estatua erreka jotzeko punduan da jadanik. Gudura atera behar ote da? Tropak pagatzen dituzte eta etxan egoten dira. Alferkeriaren eta diruaren bortxaz, azkenean, soldadoak badituzte aberriaren meneratzeko, eta ordezkariak ere, haren saltzeko.

Merkataritzaren eta arteen alderako kezkak, irabaziaren gose biziak, nagikeriak, eta aisetasunen preziazteak diru bihurtarazten ditu pertsonaren zerbitzuak. Mozkinaren parte bat uzten da, gero haren nahi bezala berretzeko esperantzan. Dirua emazu eta laster burdinak izanen dituzu. Finantza hitza esklabo hitza da; zibitatean ez da ezaguna. Egiaz libro den Estatu batean hiritarrek dena eskuz egiten dute, deus ere ez diruz. Ez diote pagatuz beren eginbideari ihes egin nahi, aitzitik beren eginbideen egiteko pagatu nahiago lukete. Arras urrun naiz ideia arruntetarik; uste dut libertateak diru zergak kontrakoago dituela neke zergak eta lan behartuak baino.

Zenbatenaz hobeki eratua baita Estatua, hainbatenaz egiteko pribatuek baino toki handiago dute egiteko publikoek hiritarren izpirituan. Areago dena, egiteko pribatu anitzez gutiago ohi da orduan, zorion komuna handiago izanik, gizabanakoak hartarik zati handiagoa hartzen baitu, eta ez baitu, beraz, hainbeste ihardunbide partikularretan ibili beharrik zorion bila. Zibitate ongi kudeatuan orok laster egiten dute biltzarretara; gobernamendu txarra denean, aitzitik, inork ez du urratsik egin nahi haietara joateko, inork ez duelakotz interesik hartzen hantxe egiten direnetan, eta badakitelakotz nahimen orokorra ez dela nagusituko hantxe; azkenik, ihardunbide pribatuek ez diotelakotz beste deusi ere tokirik uzten. Lege onek hobeak ekartzen dituzte, eta txarrek txarragoak. Noiz

ere inork, Estatuaren arazoak direla-eta, baitio: zer zaizkit niri?, kontua atera Estatuarenak egina duela.

Aberriaren alderako amodioaren epeltzeak, interes pribatuak sorturiko iharduerak, Estatuaren zalak, konkistek, gobernamentuaren abusuak, asmarazi dute, nazioaren biltzarretara deputatuen edo populuaren ordezkarien igortzeko bidea. Horri Heren Estatuaren deituraren emateko ausartzia badute zenbait herritan. Gisa horretan bi ordenaren interes partikularra lehen eta bigarren tokian emana da, eta interes publikoa hirugarrenean baizik ez da.

Subiranogoa ez daiteke ordezkaria, ezin aliena daitekeen arrazoin ber-beragatik; nahimen orokorrak du oroz lehen hura mamitzen, eta ez da nahimena ordekatzerik: den bezalakoa da edo bestelakoa; ez da bien artekorik. Populuaren deputatuak, beraz, ezin dirateke haren ordezkariak; haren komisarioak baizik ez dira; ez dezakete deusetan ere azken hitza izan. Populuak berak ontzat emana ez duen legea indargabea da; ez da lege bat. Populu ingelesak libro dela uste du; arras makurrean da ordeak; parlamentuko kideak hautatzen dituen denboran baizik ez da libro; haiek hautatuak diren bezain laster esklabo da, deus ere ez da. Libro den arte labur horietan nola usatzen duen ikusirik merezi du, segurki, libertatea gal dezan.

Berria da ordezkarien ideia; gobernamentu feodalki eman digu, hots, giza espeziea behehitua eta gizonaren izena desohoratu den gobernamentu zuzengabeko eta zentzugabeko batetik datorkigu. Errepublikak zaharretan eta monarkietan sekula ez du ordezkari izan populuak. Hitz hori ez zuten ezagutzen. Ohargarria da, tribunuak sagaratutzat zeuzkaten Erroman, ez zutela pentsatu ere haiek populuari zegozkion egitekoak beren gain har eta usurpa ahal zitzaizketela, eta halako jendalde handiaren erdian, berak ere ez zirela sekula beren buruz plebiszito baten onarrazteraz entseiatu. Alatabada, gogoan eman hainbeste jende izateak zer nahasmendua sortu behar zuen batzuetan, ezen, Grakhotarren denboran gertatu zen, hiritarren parte batek teitatuak gaintarik ematen baitzuten bere iritzia.

Zuzenbidea eta libertatea ororen gaintetik diren lekuan, sortzen dituzten makurrak eta eneiak deus ez dira. Populu zuhur horrek oro izari egokian ematen zituen: liktoreak uzten zituen, tribunuak berak egitera menturatuko ez zirenen egitera; ez zen beldur liktoreek ordezkatu nahi izan zezaten.

Zenbaitetan tribunuek nola ordezkatzeko zuten esplikatzeke, aski da pentsatzea gobernamentuak subiranoa nola ordezkatzeko duen. Legea nahimen orokorraren adierazpena baizik ez izanik, argi da potentzia legegileari dagozkionetan populuak ezin ordezkaria daitekeela, baina potentzia exekutiboari dagozkionetan ordeak, potentzia hori legearen alde ematikako indarra baizik ez baita, populuak ordezkaria izaten ahal da, eta izan behar du. Halatan gauzei hurbil-hurbiletik behatuz, arras nazio guti aurkituko da legerik duenik. Nolanahi den, nola tribunuek ez baitzuten den gutieneko botere exekutiborik, segur da populu erromatarra ez zutela sekula beren karguei zegozkien eskubideen bidez ordezkatu ahal izan, Senatuaren eskubideak bidegabeki baliatuz baizik.

Grekoen artean, populuak berak egiten zuen, egin behar zuen guztia; denbora guztian plazan bildurik zegoen. Toki goxo batean bizi zen, ez zen ondasun gose, esklaboek egiten zizkieten bere lanak, haren ardurarik handiena libertatea zen. Ordeak, ber abantailak ez izanik gehiago, nola bestetan ber eskubideak gordak? Horko eguraldi gogoragoek behar<sup>34</sup> gehiago sortzen dizkizute, ez da urtean sei hilabetez herriko plazan egoterik, zuen mintzaira gogorak ezin adituak dira kanpo zabalean, atxikiago zarete zuen irabaziei libertateari baino, eta anitzez beldurrak miseriaren, esklaboaren baino.

Zer! Libertateak menekotasunari esker baizik ez dirauela? Beharbada. Bi alderdietako ghegiekeriek elkar hunkitzen dute. Naturalezan ez den guztiak badu bere itzala, eta



gizarte zibilak gaineratiko guztiek baino gehiago. Badira zorigaiztoko egoera batzuk, haietan nork bere libertatea besterenaren kaltetan baizik ezin atxiki baitezake, eta hiritarra ezin baitateke guztiz libro, esklaboak arras-arras esklabo ez bada. Horrelakoa zen Spartako egoera. Zuek, populu modernoak, ez duzue esklaborik, baina esklabo zarete; zuen libertatea da esklaboen libertatearen ordainbidea. Hobespen horretaz zeuen buruak laudatzen dituzue; nik koldarkeria gehiago kausitzen dut hartan, gizatasun baino. Ez dut horretaz guztiaz aditzera eman nahi, esklaboak izan behar direla, ez eta, alderantzizkoa frogatu dudana geroz, esklabotzako eskubidea legitimoa dela ere. Libro direla uste duten populu modernoek ordezkariak zergatik dituzten, eta populu zaharrek zergatik ez zituzten, horra zer adierazten dudan soil-soilik. Edozein modutan ere, ordezkariak hautatzen dituen populua, handik aitzina ez da gehiago libro; ez da batere. Dena ongi ikertu ondoan, zibitatea oso tipia ez bada, ez dut ikusten nola balia ditzakeen subiranoak bere eskubideak gure artean. Tipi-tipia izanik, haatik, ez ote da menderatua izanen? Ez. Erakutsiko dut urrunxeago<sup>35</sup> nola elkargarri diren, populu handiek duten kanpoko potestatea, eta populu tipiek duten ordena segur eta kudeantza erraza.

## XVI

Gobernamenduaren erabidea ez dela hitzarmena

Botere legegilea ongi finkatu ondoan, botere exekutiboa ere, halaber finkatu behar da; zeren akta partikularrez baizik aritzen ez den hau, esentziaz bestea ez bezalakoa izanik, naturalki hartarik bereizia baita. Subiranoak, subirano gisa harturik, botere exekutiboa izaten ahal balu, zuzenbidea eta faktua, legez behar litzatekeena eta egiazki gauzatua dena, hain nahasiak eta bat eginak lirateke, non ez baikenekike zer dagokion legeari, eta zer ez, eta indarkeriak gaina har bailiezaioke haren kontra eratu zen gorputz politikoari.

Hiritar guztiak gizarteko hitzarmenaren bidez berdin izanik, orok mana ahal dezakete orok egin beharra dutena, eta, alderantziz, inork inor ezin behar dezake berak egiten ez duenaren egitera. Haatik, gorputz politikoaren biziarazteko eta ibilarazteko beharrezko den eskubide hori bera da, hain zuzen, subiranoak, gobernamendua eratzen duenean, printzeari ematen diona.

Zenbaitek erran izan dute eraketa horretako akta, populuaren eta honek hautatzen dituen buruzagien arteko hitzarmena dela, hitzarmen horretan, alderdiek finkaturik baileukate zer baldintzatan obligatzen dituzten beren buruak, alderdi batak manatzera, eta besteak obeditzera. Onartuko da, segur izan nahi dut, hitz hartzeko bide bitxia dela hau! Baina ikus dezagun aburu hori zutik ahal doakeen.

Lehenik, aginpide gehiena alienaezina den bezala aldaezina ere da; haren murriztea, haren sunsitzea da. Zentzugabekoa da, eta kontradiktorioa, subiranoak bere buruari gainekorik eman diezaion; bere burua nagusi baten obeditzera behartzen duenak, behartze horrengatik berrorengatik, bere burua libertate betean uzten du.

Bestalde, bistan den gauza da, akta partikularra litzatekeela populuak horrelako edo halako jenderekin eginikako hitzarmena. Horretaz, horrelako hitzarmena ezin izan daiteke ez legea, ez subiranotasunezko akta, eta beraz, deslegitimoa litzateke.

Halaber ikusten da oraino, alderdi hitz hartuak naturalezako egoeran leudekeela, eta bermerik batere ez luketela elkarri emanikako hitzei buruz. Edozein modutan ere egoera zibilak horrelakorik ez du onartzen. Demagun gizon bat, beste gizon bati erran liezaiokeena: Ene ondasun guztiak ematen dizkizut baldintza honetan: nik utzi horretarik, zuk plazer izanen duzuna gibelera eman beharko didazu. Gizon horren erranari dagokion akta hitzarmena ote da? Bada, horixe bera gertatzen da, indarra eskutan duena beti obratzearen nagusia delarik.

Estatuan hitzarmen bat baizik ez da: elkartzeko hitzarmena; honek gaineratiko beste guztiak eragozten ditu. Ezin asma daiteke hitzarmen publikorik, lehenbiziko hitzarmen hura bortxa ez lezakeenik.

## XVII

### Gobernamenduaren erabideaz

Zein ideiaren pean kontzebitu behar da gobernamendua eratzen duen akta? Lehenik ohartaraziko dut akta konplexua dela, eta beste bi aktak osatzen dutela, bata legearen finkatzeari baitagokio, eta bigarrena legearen obratzeari.

Lehenbizikoaren bidez, subiranoak deliberatzen du, gobernamendu bat, modu horretakoa edo hartakoa, eratuko dela; eta argi da akta hori legea dela.

Bigarrenaren bidez, gobernamendu eratua beren gain izanen duten buruzagiak izendatzen ditu populuak. Ordea, izendapen hori akta partikularra denaz gero, ez da bigarren lege bat, lehenbizikoaren jarraiera, eta gobernamenduari dagokion egiteko bat baizik.

Gobernamendurik izan baino lehenago nola gobernu aktarik izan daitekeen, eta, subirano edo meneko baizik ez den populua, zenbait egoeratan, nola printze edo magistratu bihur daitekeen, horra konprenitzen neke dena.

Horrela aurkitzen da gorputz politikoaren berezko zer estonagarri horietarik bat, halakoei esker, iduriz kontradiktorio eta elkargaitz diren operazioak elkargarri egiten baititu. Kasu honetan subirotasuna demokrazia bat-batean bihurtzen da; molde horretan, batere aldakuntza agerikorik gabe, eta orok ororekin duten erlazio berri bat sortuz bakarrik, magistratu egiten dira hiritarrak, eta akta partikularretarik akta orokorretara iragaten dira, bai eta legearen egitetik haren obratzera ere.

Erlazio aldaketa hau ez da praktikan aitzinekorik gabe den sotilkeria espekulatiboa: Ingalaterrako Parlamentuan egun oroz gertatzen da, han zenbaitetan behereko biltzarra, arazoez hobeki mintzatzeko, komite zabal bihurtzen baita, horrela piska bat lehenago gorte subiranoa zena besterik gabe komizio bilakatzen delarik; halatan, komite zabalean trinkatu arazoez kontuak ematen dizkio bere buruari Komunen Biltzar gisa, eta horrela jadanik beste gisaz zuritu dituen auziez berriz beste gisa batean deliberatzen du.

Honelakoa da gobernamendu demokratikoaren berezko abantaila, nahimen orokorraren akta soil batek era baitezake. Horren ondotik, behin-behineko gobernamendu hau, edo kargutan egoten da, halakoa bada onartu den forma, edo legeak manatu bezalako gobernamendua eratzen du subiranoaren izenean. Horrela, oro arauen arabera eginik daude. Ezinezkoa da, beste modu legitimo batez eta aitzinetik finkatu printzipioei uko egin gabe, gobernamendurik eratzea.

## XVIII

### Gobernamenduaren usurpazioen eragozteko bidea

XVI. kapitulua konfirmaturik, argitasun horiei guztiei ondorio hauek darraizkie: gobernamendua eratzen duen akta ez dela hitzarmena, legea baizik; potentzia exekutiboa eskutan daukatenak ez direla populuaren nagusiak, haren mandatariak eta zerbitzariak baizik; honek kargu hori plazer duenean eman edo berdin ken ahal diezaiekeela; ez dutela hitzarmenik egiteko eskurik, obeditzean baitatza haien egitekoa; eta, Estatuak eskutan harrarazten dizkien karguak beren gain hartuz, hiritar gisa duten eginbidea betetzen dutela soil-soilik, baldintzen eztabaidatzeko eskubide mikorik izan gabe.

Ondoretasunezko gobernamendua eratzen duenean, izan dadin monarkikoa familia batean eginik, edo aristokratikoa hiritar ordena batean eraturik, populuak ez dio bere buruari obligaziorik sortzen; administrazioari erabide behin-behinekoa ematen dio, berak besterik manatzeko gogoia izan arte iraunen duena.

Egia da aldakuntza horiek beti irriskuz beteak direla, eta gobernamendu eratua ez dela sekula hunki behar, onezia publikoarekin elkarrezina gertatzen denean baizik; baina maxima politiko bati dagokio zuhurtzia hori, ez zuzenbideko erregela bati. Nola Estatua

ez baita aginpide militarren jeneralei ematera behartua, halaber ez du aginpide zibilaren buruzagiei emateko obligaziorik ere.

Egia da, egin beharreko urrats guztiak kontu handienaz konplitu behar direla kasu horietan, akta bidezko eta legitimoa dena nahasmendu sedizios batetik bereizteko eta populu oso baten nahia dena fakzio baten oihuetarik desberdintzeko. Orduan bereziki ez zaio eman behar bidegabekeriako kasuari zuzenbidearen arabera zuzenez ezin uka dakiokeen baino gehiago. Horretaz baliatzen da printzea, abantaila abantailatsu bat ateraz, populuaren kaltetan bere potestatearen atxikitzeke, inork usurpatua duela ezin erran dezakeelarik. Ezen, alegia bere eskubideak baizik erabiltzen ez balitu bezala, erraz zaio printzeari eskubide horien handitzea, eta bake publikoaren estakuruan, ordena onaren berriz ekartzeko xedea luketen biltzarren eragozteke. Halatan, haustera uzten ez duen isiltasuna edo eginarazten dituen bidegabekeriak baliatzen zaizkio, beldurrez isilik daudenen aitormen mutuaren haren alde balitz bezala hartzeko, eta mintzatzeko ausartzia dutenen zigortzeko. Horrela entseiatu ziren hastean urte batentzat hautetsiak izan ziren, eta urte bat gehiago kargutan egon ziren decemvir delako haiek boterearen betikotz atxikitzen, komizioei gehiago biltzea debekatuz. Indar publikoaz jabetu ondoan, munduko gobernamendu guztiek bide erraz horretaz baliatuz usurpatzen dute goiz edo berant aginpide subiranoa.

Zorigaitz horren eragozteke on dira lehenago aipatu ditudan epeko biltzarreak, bereziki deialdi berezirik gabe egiten direnean, zeren orduan printzeak ezin eragotz baititzake bere burua denen begietan lege hausle eta Estatuaren etsai agerrarazi gabe.

Gizarte hitzarmenaren iraupenaz beste helbururik ez duten biltzar horien irekidura, sekula ezin bazter daitezkeen, eta berex bozkatzeko diren bi proposamen hauekin egin behar da:

Lehena: Ea subiranoak oraingo gobernamendu era hau atxiki nahi duenentz.

Bigarrena: Ea populuak gobernamenduaren administrazioa orain kargutan direnen gain utzi nahi duenentz.

Hemen erakutsi dudala uste dudana ontzat emanez, ez da Estatuan inolako oin legerik, gizarte paktua bera ere ez, ezin kenduzkoa denik; zeren, haren urratzeko denak ados jarrikerik hiritar guztiak biltzen balira, ez baita dudarik paktua legitimoki urratua litzatekeela. Are gehiago, Grotiusek dio estatukide bakoitza haizu dela Estatuari uko egitera, eta, herritik joanez, bere libertate naturalaren eta bere ondasunen berriz eskuratzen<sup>36</sup>. Absurdua litzateke, hiritar bakoitzak, bakarrik, bere alde egin dezakeena, hiritar guztiek, bildurik, egin ahal ez balezate.

Hirugarren liburuen akabantza

## LAUGARREN LIBURUA

### I

Nahimen orokorra ezin suntsituzkoa dela

Orok batean gorputz bakarra moldatzen dutela kontsideratzen duteno nahi bakarra dute bildurik dauden gizonak, eta nahi hori ororen ongi-izateari eta iraupen komunari buruz itzulia da. Orduan Estatuaren berezko tresna guztiak sinple eta sendoak dira, haren maximak klar eta argiak dira, ez du interes nahasirik, kontradiktiorik, ongi-izatea non dagoen nabarmenki agertzen da, eta zentzu piska bat aski da hari ohartzeko. Bakea, batasuna eta berdintasuna, sotilkeria politikoen etsaiak dira. Gizon artez eta soilak, beren soiltasunagatik engainatzen neke dira; engainuek eta estakuru apainduak ez dituzte beldurtzen; ez dira aski finak bairatuak izateko. Munduan den populurik zorientueneko<sup>37</sup> baserritarrek ikusten direlarik Estatuaren arazo eta auzien haritz baten pean eztabaidatzen eta trinkatzen, eta beti perestuki ibiltzen, nola ez mespretxa beste nazioen finkeriak, beren buruen famatzeko eta miserable egiteko, hainbeste arte eta misterio baitarabilte?

Horrela gobernatua den Estatuak arras lege guti behar du, eta lege berrien egiteko beharra nabaritu arau, orok dute behar hori ikusten. Lege berria proposatzen duen lehenbizikoak ez du erraten denek jadanik senditu dutena baizik, eta ez da hitz ederretan edo jokutrietan hasi beharrik, besteek ere hark bezala egingen dutela segur izan ondolan, bakoitzak egitera deliberatu duena legeetan emana izan dadin.

Izpiritu arrazoinakariak makurrean ematen dituen haxe da: haste-hastetik gaizki moldatuak izan diren estatuak bakarrik ikusirik, segur dira gisa horretako kudeantza batek haietan tokirik ez duela. Irri egiten dute, pentsatzen dutelarik, izpiritu maltzur abil batek edo mintzatzaile trebe batek, zer zozokeriak sinetsaraz ahal liezazkiokeen Parisko edo Londresko populuari. Ez dakite Berngo populuak Cromwell xilintxategian<sup>38</sup> sarraraziko zukeela, eta Genèveko jendeek, berriz, Beauforteko dukea disziplinar<sup>39</sup>.

Ordea, gizarte lokarria laxatzen eta Estatu ahultzen hasten direnean, eta, interes partikularrek pisu handiagoa harturik, elkarte tipiak elkarte handiengan eraginik izaten hasten direlarik, interes komuna mudatzen da eta kontrakoak izaten ditu, ez da gehiago ahobatezkotasunik, nahimen orokorra ez da gehiago ororen nahimena, liskarbideak agertzen dira, auziak altxatzen, eta aholku hoberenak ere eztabaidak pizten ditu.

Estatuak, erreka jotzeko punduan egonez, itxurazko forma liluragarri eta hutsal batean baizik ez dirauenean, eta gizarte lokarria bihotz guztietan etena izanik, interes arruntenak ahalkegabeki interes publikoaren izen sagaratu hartzen duelarik, nahimen orokorra mututzen da, eta hiritarrei dagokien moduan zinezko hitzez mintzatzeko orde, estaturik sekula izan ez balitz bezala, motibo gorde isilkako zenbaitek gidaturik ematen dute denek iritzia, eta faltsuki jokatu, legeak balira bezala bozkaratzen dira interes partikularraz beste helbururik ez duten dekretu zuzengabeak.

Horrek erran nahi ote du nahimen orokorra suntsitua eta korronpitua izan dela? Ez, beti bera da, garbi eta mudaezina; ordea, gaina hartzen dioten beste batzuen menpean dago. Bakoitzak ikusten du, bere interesa interes komunetik apartatuz ere, ez duela hartarik arras bereizten ahal; gaizki publikoan duen partea, haatik, deus ere ez zaio beretu gogo duen ongi eskusiboaren ondolan. Ongi partikular hori salburik ateratzen den ber, ongi orokorra ere beste edozeinek bezain biziki nahi du halakoak, hala manatzen baitu haren interes propioak ere. Bere boza dirutan saldurik ere, ez du bere baitan nahimen orokorra ezeztatzen, lipar batez baztertzen soilik. Galdearen oinarria aldatzean, eta galdatua zaionari ez dagokion zerbait ihardestean datza haren hutsa. Halatan bozkatzerakoan Estatuarentzat on da errateko partez, badio: Horrelako edo halako gizon edo alderdiarentzat on da aburu hori nagusi dadin. Horrengatik biltzarretan ordena

publikoari komeni zaion jokabidea, ez da hainbeste nahimen orokorraren begiratzea, baizik ere aldi oro iritzia galdatzen zaiola eta beti ihardesten duela segurtatzea.

Banuke oraino anitz errateko hemen, batetik, subirotasunezko aktetan bozkatzeko eskubideaz, eskubide hori inork ezin ken baitiezaieke hiritarrei, eta, bestetik, iritzi emateko, proposatzeko, gaien zatikatzeko eta eztabaidatzeko eskubideaz ere, eskubide hau bere partaideen eskuetan bakarrik izan dadin bermatzen baita gobernamendua. Ordea, gai garrantzi handiko horrek idazlan berezi bat eska lezake, eta dena ezin erran dezaket idazlan honetan.

## II

### Bozez

Aitzineko kapituluan ikus daiteke nola arazo orokorrez aritzeko moduak aski segurki erakusten duen zertan dauden azturak eta gorputz politikoaren osasuna. Zenbatenaz iritziak ahobatezkotasunari hurbiltzenago baitzaizkio biltzarretan, hainbatenaz nahimen orokorra nagusiago da; aitzitik, eztabaida luzeek, tira-birek, eta nahasmenduek, interes partikularrak gainaren hartzen ari direla eta Estatua ahulduz doala darakuste.

Hori ez da hain nabarmen bizpahiru ordenak eratzen dutelarik gorputz politikoa, hala nola Erroman, han patrizioak eta plebeiuak baitziren, eta haien arteko liskarrek luzaz nahasi baitzituzten komizioak, errepublikaren garairik ederrenetan ere; baina salbuespena itxurazkoago da egiazkoa baino, ezen, orduan, gorputz politikoaren berezko bizioagatik, nolabait errateko, bi Estatu dira batean; bi multzoez egia ez dena, egia da bakoitzaz, zein bere gisa hartzen delarik. Eta ekaitz garai ortzitsuenetan ere, beti baketsuki eta boz gehiengo handiz onartzen ziren populuaren plebiszitoak, Senatuua auzian sartzen ez zenean. Hiritarrek interes bakarra izanik, nahimen bakarra zuen populuak.

Zirkuluaren beste muturrean, ahobatezkotasuna berriz agertzen da, noiz ere menpekotasunean erori hiritarrek ez baitute ez askatasunik, ez nahimenik. Orduan beldurrak eta lausengukeriak bozak oihu bihurrazten ditu; ez da engoitik deliberatzen: edo adoratzeko da, edo madarikatzeko. Horrelakoa zen enperadoreen denboran Senatuak iritziaren emateko zuen modu mespretxagarria. Batzuetan jestu irri egingarriak egiten ziren: Tazitok kontatzen du, nola, Othonen garaian, Vitellio higuinzazko eleen pean lehertzen zuten denbora berean, egundainoko abarrotsa ere egin zuten senatoreek, amoregati-eta, sekula hura nagusitu balitz azkenean, jakin ahal ez zezan haietarik bakoitzak zer erran zuen.

Gogoeta horietarik sortzen dira bozen kontatzeko modua eta iritzien konparatzeko manera arautu behar duten maximak, kontuan hartzen delarik bestalde nahimen orokorra ezagutzen erraz denentz, eta Estatua ahultzen ari denentz.

Lege bat baizik ez da bere izaeragatik ahobatezkotasuna eskatzen duenik. Gizarte-paktua da; ezen elkarketa zibila munduko aktarik nahizkoena da; gizon oro libro eta bere buruaren nagusi sortua baita, inork, inolako estakururengatik, ezin menara dezake, berak onespenerik eman gabe. Esklabo baten semea esklabo dela deliberatzea, sortzean gizon ez dela deliberatzea da.

Baldin, beraz, gizarte paktuaren finkatzerakoan kontrakoak badira, haien kontrakotasunak ez du hitzarmena indargabetzen, haiek hitzarmen horretan partaide izatea debekatzen du soilik; arrotzak dira hiritarren artean. Behin Estatua eratuz geroz, tokian bizitzeak du onespenera adierazten; lurraldean bizi denak bere burua horko subiranotasunaren menpe jartzen du<sup>40</sup>.

Hatsarreko hitzarmen horretarik kanpo, gehiengoaren bozak beste guztiak behartzen ditu beti; hitzarmenaren jarraipena da. Baina, galde egiten da: nola izan daiteke gizon bat ber denboran libro eta harenak ez diren nahien bidetik ibiltzera bortxatua? Nola

oposizioan direnak denbora berean libro eta onartu ez dituzten legeen peko ere izan daitezke?

Ihardesten dut gaizki egina dela galdea. Hiritarrak lege guztiak onartzen ditu, haren iritziaren aurka bozkatu direnak eta legeren bati urrakorik egitera menturatuz gero zigorra ekar diezaioketenak ere bai. Estatukide guztien nahi finko, kordokagaitza, nahimen orokorra da; haren bidez dira hiritar eta libro<sup>41</sup>. Populuaren biltzarrean lege bat proposatzen denean, galdatzen zaiena ez da, zuzenki mintzatuz, ea proposamena onartzen ala gaitzesten duten, baina, proposamen hori, haiena den nahimen orokorraren arabera denentz. Bakoitzak bere boza emanez bere iritzia ematen du horretaz, eta bozen kontatzetik ateratzen da nahimen orokorraren adierazpena. Enearen kontrako den iritzia nagusitzen delarik, horrek deus ez du erakusten uste okerrean nengoela baizik, eta nahimen orokorra zela uste nuena ez zela hala. Ene iritzi partikularra nagusitu izan balitz ere, ez nukeen nahi nuena eginen, beste zerbait baizik. Orduan nintzen libro ez izanen.

Horrek suposatzen du, egia da, nahimen orokorraren ezaugarri guztiak gehiengoan daudela oraino; hartan ez daudenean gehiago, edozein modutan ere, ez da gehiago libertaterik.

Erakutsi dut lehenago nola deliberamendu publikoetan nahimen partikularrak nahimen orokorrari nagusi ahal dakizkiokeen, eta eman ditut bide egokiak abusu horren eragozteko; berriz aipatuko ditut geroago. Nahimen horren deklaratzeko behar den boz kopuru proportzionala denaz bezainbatean ere erran dut zein printzipiori jarraikiz muga daitekeen. Boz baten aldeak berdintasuna hausten du, kontrako batek ahobatezkotasuna hausten du; baina berdintasunaren eta ahobatezkotasunaren artean badira boz partekamen desberdinak, haietarik bakoitzean finka baitaiteke boz kopuru muga hori, gorputz politikoaren egoeraren eta beharren arabera.

Bi maxima orokorrek lagunt dezakete proportzio horien egokiro finkatzera: lehenaren arabera, zenbatenaz deliberamenduak garrantzizkoagoak baitira, hainbatenaz ahobatezkotasunari hurbilago izan behar du iritzi irabaztunak; bigarrenaren arabera, zenbatenaz aipu den auziak presa handiago baitu, hainbatenaz hertsia izan behar du iritzien partekamenean eskatua den boz aldeak; orduan berean, batere luzatu gabe hartzeko diren deliberamenduetan, boz baten alde aski izan behar da. Lehen maxima, legeentzat bereziki komeni da, bigarrena, berriz, tratuentzat. Nolanahi ere den, bien arteko konbinazioan finkatzen dira erabakien hartzeko gehiengo egokienak eratzen dituzten proportzioak.

### III

#### Hautesbideez

Magistratu eta printzeen hautesbidea denaz bezainbatean, hori, jadanik erran bezala, akta konplexua baita, bi bide badira; bozketa eta zortea. Bata eta bestea erabiliak izan dira errepublika desberdinetan, eta gaur egun oraino bien arteko nahasketa korapilatsu bat ikusten da Veneziako dogoaren hautesteko moduan.

Zortearen bidezko hautapena, dio Montesquieuk, demokraziaren izaeran da. Ados naiz, baina nolaz? Zortea, dio jarraikian, inor mintzen ez duen hautesbidea da; hiritar bakoitzari aberriaren zerbitzatzeko esperantza zerbait uzten dio. Ez dira horiek arrazoinak.

Kontuan hartzen bada buruzagien hautespena gobernamenduari dagokion egitekoa dela, eta ez subiranoari doakiona, ikusiko da zergatik berezkoago duen zortea demokraziak, ezen, zenbatenaz gutiagotan biderkatzen baitira aktak, hainbatenaz hobe da administrazioa.

Egiazko demokrazietan, magistratugoa ez da abantaila bat, baina karga pisu bat, justiziagatik partikular bati beste bati baino berezikiago bizkarrean eman behar ez

zaiona. Legeak bakarrik eman diezaioke horrelako zama zorteak hautatuko duenari. Ezen orduan baldintza berak dira ororentzat, eta nola hautua ez baitoa ezein giza nahitarik, ez da legearen unibertsaltasuna hausten duen aplikapen partikularrik.

Aristokrazian printzeak printzea hautatzen du, eta gobernamenduak bere indarrez irauten du; hor dira bozak egoki.

Veneziako dogoaren hautesteko baliatua den moldeak bereizkuntza hori ez du ahultzen, indartzen baizik. Molde nahasi hori egoki da gobernamendu misto batentzat. Ezen makurrean da Veneziako gobernamendua egiazko aristokraziatzat jotzen duena. Populuak ez du tokirik batere gobernamenduan, hala da, baina noblezia bera da populu han. Barnabote gaizo andana bat sekula ez da inolako magistraturari hurbildu, eta haren noblezia guztia Exzelentzia titulu banoan eta kontseilu handian parte hartzeko eskubidean datza soil-soilik. Nola Genèveko gure kontseilu orokorrean bezainbat jende baita hango kontseilu handian, hango kide ilustratuek ez dute gure hiritar soilek baino pribilegio gehiago. Bi errepubliken artean diren desberdintasun handiak bazterrean emanik, ez da dudarik Genèveko burgeseria Veneziako patriziatuaren parekoa dela, Genèven sortu bizitzaileak hango hiritarren eta populuaren irudikoak direla, eta gure laborariek han leihorrean bizi diren menekoen eitea dutela. Edozein modutan so eginik ere errepublika hari, haren handitasunaz kontu egin gabetarik, hango gobernamendua ez da gurea baino aristokratikoago. Diferentzia guztia honetan datza: guk bizi guztiko buruzagirik ez dugunaz geroz, ez dugula zortearen behar bera.

Nola bizimoldeetan eta talenduetan, hala maximetan eta fortunari, oro berdin liratekeen egiazko demokrazia batean, zortearen bidezko hautesbideek alderdi makur guti lukete, eta hautua ia garrantzirik gabekoa litzateke. Jadanik errana dut, ordea, egiazko demokraziarik ez dela.

Bozketa eta zortea, biak batean, erabiliak direlarik, lehenbizikoaren bidez, talendu bereziak eskatzen dituzten karguak bete behar dira, hala nola kargu militarrik; beste hautabidea, onestasuna, justizia eta zentzua aski diren karguentzat egoki da, hala nola judikatura karguentzat, zeren ongi eratua den estatu batean hiritar guztienak baitira dohain horiek.

Ez zorteak, ez bozketak ez dute tokirik gobernamendu monarkikoan. Monarka, eskubidez, printze eta magistratu bakarra da, berak bakarrik hauta ditzake bere laguntzaileak. Frantziako Erregearen kontseiluen biderkatzeko, eta haietako partaideen bozez hautatzeko proposamena egin zuelarik de Saint-Pierre abadeak, ez zen ohartzen gobernamendu eraren aldaketa proposatzen zuela.

Aztertu behar nuke oraino bozak nola biltzen eta ematen diren populuaren biltzarrean, baina beharbada sail horretan erromatarrek izan zuten jokabidearen historiaren egiteak argikiago konpreniaraziko ditu finka ditzakedan maxima guztiak. Irakurtzaile zentzudunarentzat ez da deusetan desohoragarri, berrehun mila gizonez osaturiko kontseilu batean auzi publikoak nola zuritzen ziren doi bat xeheki ikustea.

#### IV

Erromako komizioez

Ez dugu lehen denborako Erromaz monumentu segurik; are gehiago badirudi, hartaz erraten diren gauza gehienak ipuinak<sup>42</sup> direla; orokorki, populuen analetan, jakingarriena den parte falta dugu gehienik, erran nahi baitu hatsarreko eraikipenari dagokiona. Esperientziak egun guztiez erakusten digu, zein kausaz sortzen diren inperioetako iraulmenduak, baina nola populurik ez baita gehiago moldatzen, konjekturaz eta aieruz baizik ez dezakegu esplikatu nola moldatuak izan ziren.

Finkaturik aurkitzen ditugun usantzek sorburu zerbait izan zutela segurtatzen dute bederen. Sorburu horretarik datozen tradizioak, itzal handieneko autoreak berme dituztenak, eta are arrazoin sendoago batzuek konfirmatzen dituztenak, arras segurtzat

jo behar dira. Lurreko populurik indartsuenak eta libroenak gainekorik gabeko bere boterea nola erabili zuen ikertzerakoan, horiek izan ditut neure gidariak.

Erroma sortu ondoan, errepublika jaio berria, erran nahi baitu albanutarrez, sabinatarrez eta arrotzez osatua zen hiriaren sortzailearen armada, hiru klasetan zatitua izan zen, zatidura hirukoitz horretarik tribu izena hartu baitzuen klase bakoitzak. Tribu bakoitza hamar kuriatan partitua izan zen, eta kuria bakoitza dekuriatan, buru gisa kurioak lehen aipatueta, eta dekurioak besteetan, jartzen zirela.

Horretaz landa, tribu bakoitzetik ehun zaldunez osatu talde bat moldatu zen, zenturia zeritzana: horretarik ikus daiteke burgu batean beharrezko ez diren zatikatze horiek, hastapenean, militarrik bakarrik izan zirela. Badirudi, haatik, handirasunezko instinktu batek bultzatzen zuela Erromako hiri tipia munduaren kapitalari zegokion eramolde baten aitzinetik aukeratzera.

Lehen partekatze horretarik makur bat sortu zen handik luze gabe. Alabaina, albanutarren<sup>43</sup> eta sabinatarren<sup>44</sup> tribuak egoera bertsuan egoten zirelarik, arrotzen<sup>45</sup> tribua, berriz, jende berriak beti etorritik, handituz zihoan, eta laster beste biak baino kopurutsuagoa izan zen. Serviok gaitz perilos horri eman zion erremedioa partekamenaren aldatzea izan zen, eta horrela arrazen arabera zatiketaren orde, hau deuseztatu baitzuen, beste bat egin zuen tribuek hirian okupatzen zituzten lekuen arabera. Hiru tribu bereizteko partez lau bereizi zituen, eta bakoitza Erromako mendiska batean izanik, mendiska haien izenak hartu zituzten. Horrela orduko desorekari amaiera eman zion, eta geroan ere horrelakorik gerta zedin eragotzi zuen. Eta zatiketa hori lekuzkoa ez ezik, jendezkoa ere izan zedin, debekatu zien bizitzaileei hiriko parte batetik beste batera iragatea, horri esker arrazak ez baitziren nahasi.

Bestalde, lehenagoko hiru zaldun zenturiak doblatu zituen, eta, lehenagoko deiturak atxikiz, beste hamabi sorrarazi zituen haiei gaineratzeko. Molde soil eta abil horretan zaldunen gorputza eta populuarena arras elkarretarik bereizirik eman zituen, populua marmarrean hasarazi gabe.

Lau tribu hiritar horiei beste hamabost gaineratu zizkien Serviok, baserritar tribuak zeritzenak beste hainbeste kantoinamendutan partekatuak ziren baserriko jendez osatuak zirelakoan. Ondotik, berriz beste hainbeste tribu berri sortu zuten, eta Erromako populua azkenean hogeita hamabost tributan zatikatua izan zen, kopuru hori atxiki baitzen Errepublikaren akabantza arte.

Hiriko tribuen eta baserriko tribuen arteko bereizketa horretarik ondorio bat izan zen, guztiz ohargarria eta parekorik ez duena, hari zor izan baitzion Erromak aztaren eta ohituen iraupena, eta inperioaren hedamena. Uste luke batek, hiriko tribuek indarra eta ohoreak laster beretu zituztela, eta baserritar tribuak gutietsirik mespretxagarri egin zituztela; alderantziz gertatu zen. Jakina da, lehen erromatarrei baserritar bizimodua laketa zitzaiela. Hiriaren eratzaile zuhurrarengatik heldu zitzairen gustu hori, arteak, ofizio bereziak, jokutria, fortuna eta esklabogoa hirian bazterturik, armazko eta baserriko lanak libertatearekin bateratu baitzituen hark.

Horrela Erromako jende entzutetsu guztiak baserrian bizi baitziren, eta lur lanetan aritzen baitziren, Errepublikak behar zituen laguntzak ere han bakarrik bilatzeko ohitura hartu zen. Gizarte egoera hori patriziatu ohoragarriena baitzen, orok goersten zuten: baserritarren bizimodu soil eta lantsua hobetsia zen Erromako burgesen bizitze alfer eta zilina baino, eta hirian proletari malurusa baizik izanzen ez zena, baserrian laborari izanki hiritar errespetatua zen. Ez da arrazoinik gabe, zioen Varronek, gure arbaso bihoztunek baserrian jarri baitzuten, erromatarrek gerla denboran defendatzen eta bake denboran hazten zituzten gizonen mindegia. Pliniok garbiki erraten du osatzen zituzten gizonengatik ohoratuak zirela baserriko tribuak; alderantziz, hirira igortzen ziren, desohorezki, gaitzetsi nahi ziren koldarrak. Appio Klaudio sabinatarra Erromara etorri



zelarik, ohoratua izan zen, eta haren izena hartu zuen tribu baserritar bateko kide egin zen. Azkenik libertuak hiritar tribuetan sartzen ziren, sekula ere ez baserrikoetan, eta ez da izan errepublikaren denbora guztian libertu horietarik baño ere, hiritar eginagatik, magistratura batera heldu izan denik.

Jokabide hori oso-oso ona zen, baina hain izan zen aitzinera bultzatua, non azkenean aldaketa bat izan baitzen, bai eta dudarik batere gabe abusuak ere egiteko moldeetan.

Hasteko, zentsoreek, hiritarrak tribu batetik bestera arbitrarioki iraganarazteko eskubidea hartu izan ondoan, baimena eman zien gehienei, berek nahi zuten tribuan izenaren emateko. Baimen horrek segurki ez zuen onik, eta zentsurari indar handia kendu zion. Bestalde, nola handi-mandiek eta ahaltsuek beren izena tribu baserritarretan ematen baitzuten, eta libertuek, berriz, hiritar egin ondoan jendailarekin gelditurik, hiriko tribuetan, azkenean, ez zuten gehiago ez eremurik, ez leku berezirik izan tribuek, eta hain nahasiak gertatu ziren non bateko eta besteko kideak elkarretarik ezin bereiz baitzitezkeen erregistroen bidez baizik. Horren ondorioz, tribu izenaren ideia ondasun errealean sailetik ondasun pertsonalen sailera pasatu zen, edo, hobeki erranik, abantzu lilurakeria bihurtu zen.

Gertatu zen oraino, hiriko tribuek, biltokiari hurbilago izanik, komizioetan ere indar handiago izan baitzuten, eta Estatua saldu baitziren tribu horietako kanaileriaren bozen erosteko ahalge ez zirenei.

Hiriaren eratzaileak tribu bakoitzeko hamar kuria moldatu baitzituen, hiriaren barnean bizi zen erromatar populu guztia, hogeita hamar kuriaz osaturik gelditu zen, bakoitzak bazituelarik bere tenpluak, bere jainkoak, bere aitzindariak, bere apaizak, eta compitalia zeritzen bere bestak ere, hauek geroago baserritar tribuetan egingen ziren paganalia delakoen irudikoak baitziren.

Serviok bere partekatze berria egin zuenean, hogeita hamarreko kopuru hori ez baitzitezkeen lau tribuen artean zatika, ez zuen haietan aldakuntzarik ekarri nahi izan, eta gisa horretan tribuetarik berex ziren kuriek beste zatiketa mota bat ekarri zieten Erromako jendeei. Ez zen, haatik, kuriarik aipatu tribu baserritarretan, ez eta haiek osatzen zuten populuan ere, zeren, nola tribuak erakuntza zibil bilakatu baitziren osoki, eta nola jokabide berri bat sartu izan baitzen gudari taldeen eratzeko, Romuloren zatiketa militarrek alferrekoak gertatu baitziren. Halatan, hiritar guzti-guztiak tribu batekoak izanagatik, anitz baziren kurietan sartuak ez zirenak.

Serviok aurreko biekin deus ikustekorik ez zuen hirugarren zatiketa bat egin zuen oraino, hau izan baitzen, jarraiki zitzaizkion ondorioengatik, orotarik garrantzizkoena. Serviok, beraz, erromatar populua sei klasetan sailkatu zuen, ez jendakiaren arabera, ez tokiaren arabera, ondasunen arabera baizik. Halatan, lehen klaseetan aberatsak sartzen ziren, azken klaseetan, berriz, pobreak, eta erdikoetan, hala-holako fortuna zutenak. Sei klase horiek ere, zenturia deitu ziren beste ehun eta laurogeita hamahiru gorputzetan partekatuak izan ziren, eta halako gisaz banatuak izan ziren, ezen lehen klaseak bakarrik zenturien erdiak biltzen baitzituen, eta azkenak, berriz, klase bat soilik osatzen baitzuen. Horrela gizon gutienik zuen klaseak zenturia gehienik zuen, eta azken klasean, aldiz, zenturia bat bakarrik kontatua zen orotara, Erromako bizitzaileen erdiak biltzen zituen arren.

Populua haren ondorioez gutiago jabe zedin, Serviok alegia itxura militarra eman zion zatiketa horri: bigarren klasean bi armazain zenturia sartu zituen, eta laugarrenean, bi gerla-tresna zenturia. Klase bakoitzean, azkenekoan izan ezik, gazteak eta zaharrak bereizi zituen, erran nahi baitu alde batetik armen hartzera behartuak zirenak, eta bestetik adinagatik lege horretaratuak ez zirenak. Bereizkuntza horrek ekarri zuen, ondasunen araberakoak baino gehiago, zentsuaren edo jende kontaktaren maiz berriz

egiteko beharra. Azkenik biltzarra Martitzen Zelaian egin zedin nahi izan zuen Serviok, bai eta ere zerbitzatzeko adinean ziren guztiak beren armekin bil zitezen hara.

Zergatik ez zuen azkeneko klasean gazteen eta zaharren arteko bereizkuntza sartu? Zeren ez baitzitzaion ematen klase horretan biltzen zen jendailari aberriaren alde armen ekartzeko ohorea. Etxeak behar ziren, etxeen defendatzeko ohorea izateko, eta gaur egun erregeen armadak dirdirarazten dituzten ezin kontatuzko erromesetarik bat ere ez da, beharbada, soldadoak libertatearen begirale ziren garai hartan erromatar kohorte batean izanik, handik erdeinuz haizatua izanen ez zenik.

Halarik ere, azken klase horren barnean proletariak, capite censi deitzen zirenenganik bereizi ziren. Lehenbizikoek, zerbaixka bazuten, eta gutienetik hiritarrak ematen zizkioten Estatuari, batzuetan soldadoak ere bai behar ordu larrienetan. Jende gisa baizik konta ez zitezkeen deus gabekoak<sup>46</sup>, berriz, ezdeustzat hartuak ziren, eta Mario izan zen lehenbizikoa haiek armadan onartu zituena.

Berez ona ala txarra zen hemen trinkatu gabe, uste dut erran dezakedan, hirugarren sailkatze horrek ez zuela irauterik izanen, izan ez balituzte lehenbiziko erromatarrek zituzten bezalako aztura soilak, eta, esku zabaltasuna, laborantzako gustua, eta merkataritzaren eta irabazi-gosearen alderako mespretxua ere erakutsi ez balute. Ba ote da populu modernorik, non ondasun gose aseeginak, gogo urdurikeriak, jokutriak, etengabeko hara-honatek, eta fortuneen gelditu gabeko itzuliek, Estatua erroz gora eman gabe, horrelako eraketa bat hogeitaz urtez irautera utz baitezakete? Ohartarazi behar da oraino erakuntza hori baino indartsuago ziren azturak eta zentsurak haren alderdi makurrak zuzendu zituztela Erroman, eta, adibidez, halako aberatsa pobreen klaseraino jauntsarazia izan zela, bere aberastasunen nabarmenkiegi erakusteagatik.

Horrela konpreni daiteke zergatik, sei klase izanagatik, ia beti bost baizik ez baitira aipatzen. Nola seigarren klaseak ez baitzuen bozkatzailerik ematen Martitzen Zelaian<sup>47</sup>, ez eta soldadorik ere armadari, eta nola ez baitzuen kasik deusetako balio ere Errepublikan, gutitan kontuan hartua izaten zen.

Horra zein izan ziren populu erromatarren zatiketa desberdinak. Ikus dezagun horiek biltzarretan zer ondorio zuten. Legitimoki deituak zirenean komizio deitzen ziren biltzar horiek. Komunzki Erromako plazan edo Martitzen Zelaian egiten ziren, eta kuria komizioak, zenturia komizioak, eta tribu komizioak bereizten ziren haietan, zein eratan biltzeko manatuak ziren. Kuria komizioak Romulok eratu zituen, zenturia komizioak Serviok, tribu komizioak populuaren tribunuek. Ez zen legerik onesten, ez magistraturik hautesten komizioetan baizik, eta nola ez baitzen herritarrik edo kuria batean, edo zenturia batean, edo tribu batean ez zenik, ez zen hiritarrik bozkatzeko eskubiderik gabe zenik. Halatan erromatar populuak egiazki subirano zen, eskubidez eta egitez.

Komizioak legitimoki bilduak izan zitezen, eta han hartu erabakiek legearen indarra izan zezaten, hiru baldintza bete behar ziren: lehenak zioen, komizioa deitzen zuen gorputzak edo magistratuak horretarako ahalmena izan behar zuela; bigarrenak, legearen arabera horrelako biltzarrak haizu ziren egun batean egin behar zirela; hirugarrenak, augurak alde agertu behar zutela.

Lehen erregelamenduaren arrazoinak ez du gehiagoko esplikaziorik behar. Bigarrena, antolamendu kontua da soil-soilik; horrela komizioak ezin egin zitezkeen feria edo merkatu egunetan, egun horietan Erromara joaten ziren baserriko jendeek eguna herriko plazan emateko astirik ez baitzuten. Hirugarren baldintzari esker, Senatuak populu fier eta bizi-bizi bati hedeak labur atxikitzen zizkion, eta tribunu oldarkorrei garra epeltzen ere behar orduan; hauek, haatik, poxelu horien kentzeko bide bat baino gehiago aurkitu zuten.

Legeak eta buruzagi hauteskundeak ez ziren komizioen jukamendutik iragaten ziren pundu bakarrak. Populu erromatarrek gobernamenduaren eginkizun garrantzizkoenak

usurpazioz beretu baitzituen, erran daiteke Europaren etorkizuna haren biltzarretan jokatzen zela. Gai aniztasun horrengatik biltzarrek era desberdinak hartzen zituzten deliberagaien arabera.

Eramolde desberdin horietaz iritzirik emateko, aski da haien bata-bestearekin konparatzea. Romulok kuriak sorraraztean, molde berean bien nagusi izanez, Senatuaren popularen bidez, eta populua Senatuaren bidez, bridatu nahi izan zituen. Molde horretan, kopurutik datorren aginpide guztia eman zion populuari, amoregatik-eta patrizioei uzten zizkien ondasunen eta potentziaren aginpideak kontrapisua izan zezan. Baina monarkiaren izpirituak nahi zuen bezala, are abantaila gehiago utzi zien patrizioei, haien klienteek boz gehiengoaren gainean zuten eragina zela bide. Nagusien eta klienteen instituzio hori politikako eta gizabideko obra bikaina izan zen, hura gabe, berez, errepublikaren izpirituaren kontrako den patriziatuak ez baitzuen irauten ahalko. Erromak bakarrik izan du munduari exenplu eder horren emateko ohorea; sekula ez da abusurik hartarik sortu, baina halere sekula ez da segitua izan.

Kurien araberako eraketa horrek iraun baitzuen erregeen garaitik Serviorenganaino, eta azken Tarquiniotarraren erreinaldia ez baita legitimotzat jotzen, molde orokorrean leges curiatae deitu zituzten errege legeak, haien bereizteko.

Errepublikaren garaian, hiriko lau tribuetara mugatuak ziren kuriak, eta Erromako jendaila baizik ez zen biltzen haietan. Halatan ez zitzaizkien gehiago komeni, ez patrizioen buru zen Senatuari, ez eta plebeiu izanagatik hiritar aberatsen buru ziren tribunuei ere. Gaizki aipatuak izan ziren, beraz, eta hain ziren gaitzetsiak izan, ezen hogeita hamar liktorek, bildurik, egiten baitzuten kurien komizioek egin beharra.

Zenturiakako partekamena hain zen aristokraziaren fagoretan, non nekez uler baitaiteke nola Senatuak ez zuen beti irabazten, kontsulak, zentsoreak, eta kuruleetako magistratuak hautesten ziren komizioetan. Izan ere, Erromako populu osoari zegozkion sei klaseak eratzen zituzten ehun eta lauogeita hamahiru zenturietarik lauogeita hemezortzi lehen klasean ziren, eta, nola bozak zenturiaka zenbatzen baitziren, lehen klase hau bakarrik beste guztien gainetik zen boz kopuruaren aldetik. Klase hartako zenturia guztiak bat zetozenean, ez zituzten gaineratik bozak biltzen ere; kopuru tipi batek deliberatua, jendalde handiak erabaki izan balu bezala hartua zen, eta erran daiteke, zenturien komizioetan, boz gehienka baino gehiago sos gehiagoka trinkatzen zirela auziak.

Baina nagusitasun hori bi bidez eztitua zen. Lehenbizikorik, tribunuek komunzki, bai eta plebeiu asko eta asko ere, aberatsen klasean baitziren, klase horretan patrizioek zuten pisua arintzen zuten.

Bigarrenetik, zenturiak goitik beherako ordenaren arabera bozkarazteko partez, gisa horretan lehenarekin hasiko baitziren beti bozketak, bat zorteka hautatzen zen, eta zenturia hark<sup>48</sup> bakarrik bozkatzen zuen lehenbizikoan; ondotik, beste zenturia guztiak beste egun bateko deituak ziren erronkaren arabera bozketa beraren egiteko, gehienetan aurrekoak egina ontzat ematen baitzuten. Horrela, demokraziaren printzipioari jarraikiz, exenpluaren indarra erronkari kentzen zitzaion zorteari emateko.

Egiteko molde horrek beste abantaila bat ere bazuen. Baserriko herritarrek astia bazuten bi bozketen artean hautagai behin-behinean hautetsiaren merezimenduez informatzeko, jakinaren gainean boz emateko gero. Baina lasterrago egiteko estakuruan, azkenean usaia hori kendu zen, eta bi bozketak egun berean egin ziren.

Tribuen komizioak, hitz garbitan, erromatar popularen kontseiluaren pareko ziren. Tribunuek baizik ez zitzaizkien bilaraz; tribunuek hor hautesten ziren, eta hor onarrazten zituzten hauek beren plebiszitoak ere. Senatuak ez zuen tokirik han, ez entzule gisa ere, eta beraz bozkatu ez zituzten legeen obeditzera bortxatua ziren senatoreak, alderdi horretarik azken hiritarrak haiek baino librago baitziren.

Zuzengabekeria hori arras gaizki ulertua zen, zeren hori bera aski baitzen kide guztiak biltzarrean onartzen ez zituen gorputz horren dekretuen baliogabetzeko. Hiritar gisa zuten eskubideaz baliatuz patrizio guztiek komizio horietan parte hartu izan balute ere, eragin tipi izanen zuketzen jendeka egiten zen bozkaera horretan, hartan Senatuko printzeak bezainbat indar izanen baitzuen proletaririk xumeenak ere.

Ikusten da, beraz, alde batetik, partekatze desberdin horiei esker ordenan bil zitezkeela horrelako populu jendetsu baten bozak, eta, beste aldetik, horretaz gainera, partekatze horiek ez zirela edukirik gabeko eraketa hutsak, baina bakoitzak ondorioak bazituela haren hobespena ekarri zuten ikuspegietan.

Gai horretan xehetasun gehiagotan sartu gabe, aitzinetik aipatu argitasunen ondorioa da tribuen komizioek gobernamentu popularra fagoratzten zutela, eta zenturien komizioek, berriz, aristokrazia. Boz gehiengo Erromako jendailak bakarrik ematen zuen kurien komizioak direnaz bezainbatean, ordea, tiraniaren eta proiektu gaiztoen fagoratzeko baizik ez baitziren on gaitzetsirik gelditu ziren. Sedizioan sartu kontrakoek berek ere bide hori baztertzten zuten, beldurrez-eta haien asmoak sobera agerian ager zitezen bestela. Ez da dudarik populu erromatarraren maiestatea, hiritar guzti-guztiak biltzen zituzten zenturien komizioetan bakarrik kausitzen zela osoki, zeren kurien komizioetan tribu baserritarrak eskas baitziren, eta tribuen komizioetan, aldiz, Senatua eta patrizioak. Boz emateko modua, azturak bezain sinplea zuten lehen erromatarrek, baina ez, haatik, Spartarrek bezain sinpleak. Bakoitzak goraki bozkatzten zuen, idazkari batek arauka idazten zuelarik; tribu bakoitzean boz gehiengoak tribuaren boza ematen zuen, eta tribuen arteko boz gehiengoak, populuaren boza; hala-hala kurientzat eta zenturientzat ere. Ohitura hori on izan zen, hiritarretan zintzotasuna nagusi izan zen, eta, bidegabeko iritziaren ematea, edo gai desohoragarri batez bozkatzeta, orori ahalke egingarri gertatu zitzaizen arte; baina, populua korronpitu zenean eta haren bozak erosgai izan zirelarik, hobeki izan zen segetuetan bozkatzeta, boz erosleek fidatzerik izan ez zezaten, eta gizatarrek, bederen traidore ez izateko aukera izan zezaten.

Badakit Zizeronek aldaketa hori gaitzetsi zuela, eta Errepublikaren galera partez haren bizkar ematen zuela. Hala ere, hemen Zizeronen hitzari eman behar zaion garrantziaz jabeturik banago ere, ezin izan naiteke iritzi berekoa. Alderantziz, uste dut horrelako aldaketa aski ez eginik, Estatuaren hondamendia are lasterrago gertatu zela. Nola jende sanoaren janbidea ez baita jende erientzat egoki, halaxe ez da komeni, populu korronpitua populu on batek egoki dituen legeen bidez gobernatu nahi izatea. Deusek ez du maxima hau hain ongi frogatzen, nola egiten baitu Veneziako Errepublikaren iraupenak, gizon gaiztoei baizik ez doazkien legeak izan dituelakotz bakarrik bizi baita oraino haren itxura zerbait.

Hiritarrei tauleta batzuk eman izan zitzaizkien, beraz, haiei esker, bat-bederak beste inork haren iritziaren berri jakin gabe bozka baitzezakeen. Bestalde, tauleten biltzeko, bozen zenbatzeko, kopuruen konparatzeko, etabarren egiteko era berriak ere finkatu ziren; halere egiteko horietaz arduratzen ziren kargudunen<sup>49</sup> zintzotasuna maiz susmagarri izan zen. Azkenik azpikeriaren eta boz trafikuen eragozteko, ediktu asko egin ziren, baina haien aniztasunak berak alferrekoak zirela erakusten du.

Azken denboretan, legeen eskastasunaren gainditzeko ohi ez bezalako aterabideak baliatu behar izan zituzten maiz, ezinbestez. Batzuetan mirak baliatzen ziren, baina bide horrek populua bil ahal bazezakeen, ez zeuden honen gobernatzaileak berdin miretsirik; beste batzuetan biltzarra bat-batean deitzen zuten, hautagaiei azpikeriatan hasteko astia utzi gabe; beste zenbaitetan, populua hautu makurraren alde zela ikusten zelarik, biltzar denbora guztia mintza eta mintza xahutzen zuten. Baina azkenik, anbizioak oro gainditu zituen; eta ezin sinetsia dena da hainbeste abusuren erdian populu handi hark, bere arau zaharren bidez, magistratuak hautesten zituela, legeak onarrarazten, auziak trinkatzen,

arazo partikular eta publikoak zuritzen, hain aise abantzu, nola Senatuak berak egingen baitzukeen.

V

#### Tribunatuaz

Estatuaren osagaien artean proportzio zehatza ezin finka daitekeenean, edo zenbait ezin konponduzko kausak etengabe gaizkitzen dituenean osagai horien arteko harremanak, magistratura berezi bat eratzen da, besteak ez bezalakoa eta haietarik berex, osagai bakoitza bere egiazko tokian ematen duena, eta lokarri eta erdigune bat moldatzen duena, edo printzearen eta populuaren artean, edo printzearen eta subiranoaren artean, edo, beharrez, bi kasu horietan denbora berean.

Gorputz hori, tribunatua deituko dudana, legeen eta botere legegilearen zainzailea da. Zenbaitetan subiranoa gobernamentutik babesten du, hala nola Erroman populuaren tribunuek egiten baitzuten; beste batzuetan gobernamentua populuaren aurka laguntzen du, hala nola egiten baitu gaur egun Veneziako Hamarren Kontseiluak; bestetan bi parteen arteko oreka atxikitzen du, hala nola Spartako eforoek egiten baitzuten.

Tribunatua ez da zibitatearen osagai bat, eta ez du parterik izan behar potentzia legegilean, ez eta exekutiboan ere; eta horrengatik beragatik da, hain zuzen, haren potentzia handiagoa: zeren deus ezin eginez, oro eragotz ahal baititzake. Legeen zainzaile gisa sagaratuago eta ohoretsiago da legeak obratzen dituen printzea baino, eta legeak egiten dituen subiranoa baino. Hori ongi ikusi zen Erroman, noiz ere, ez jurisdikziorik ez laguntzailerik ez zuen populuko aitzindari soil baten aitzinean makurtzera bortxatuak izan baitziren populu guztia mespretxatzen zuten patrizio burgoiak.

Zuhurtziaz moderatuki aritzen denean tribunatua konstituzio onaren zurkaitza da, baina indar soberaxko duen orduko, berehala dena uzkaile du. Ez du ahuleziak mehatxatzen, haren naturalezan horrelakorik ez baita, eta tribunatua zerbait den ber, sekula ez da ahulegi eta behar baino gutxiagoa.

Tribunatua tirania bilakatzen da, haren moderatzailea soilik izanik, potentzia exekutiboa usurpatzen duenean, eta haien zainzailea soilik izanik, legeak egin nahi dituenean. Spartak bere azturak atxiki zituen, irriskurik ez zuen ekarri eforoen botere boteretsuak, baina korrupzioa hasi zenean, usteldura areagotu zuen. Tirano haiek lepo egin zuten Agisen odola haren ondokoak mendekatu zuen: eforoen giza eraiketek eta haien gaztiguak ere Errepublikaren hondamendia lasterrago jinarazi zuten, eta Kleomenoren ondotik Sparta ez zen gehiago deus ere izan. Erroma ere molde berean hondatu zen, eta mailaka usurpatua izan zen tribunuen botere handiegia, libertatearentzat eginak ziren legeen laguntzarekin beren buruen begiratzeko baliatu zuten libertatea deuseztatu zuten enperadoreek. Veneziako Hamarren Kontseilua ere odolezko auzitegia da, berdin higuigarri zaiena patrizioanoei eta populuari; legeak guztiz ahuldurik gertatu ondoan, haiek artoski zaindu beharrean, ostikatzen bezala ditu gordeka, ausartzia eskasez ez ikusiarena egiten dutelarik denek.

Tribunatua, gobernamentua bezala, ahultzen da kideak anizten zaizkion arau. Populu erromatarraren tribunuek, hastean biga, eta gero bost izan zirenek, kopuru hori doblatu nahi izan zutenean, Senatuak ez zien oztoporik jarri, segur baitzen horrela batzuek besteen kontra jokaraziz, bridatzen ahalko zituela. Eta, eiki, gertatu ere, horrela gertatu zen.

Horrelako gorputz ahaltsuaren usurpazioen eragozteko biderik hoberena, inongo gobernamentua ez baitzaio oraino ohartu, gorputz horren iharduera etengabekoa egiteko orde, epeakoa egitea litzateke, indargabeturik egon behar lukeen denboraldiak aitzinetik finkatuz. Abusuek erroen egiteko astia ez izateko luzeegiak izan behar ez

duten arte horiek legeak finka ahal ditzake, behar izanez gero zenbait batzorde berezik haien laburtzeko aukera izateko gisan haatik.

Bide horrek alde makurrik ez duela iruditzen zait, zeren, nola tribunatua ez baita konstituzioaren osagaia, honi kalterik egin gabe ken baitaiteke; eta, bestalde, uste dut ondoriotsua ere badela, zeren berriki hitza berriz jaso duen magistratua ez baita haren aurrekoak zuen boterearen gainean bermatzen, legeak ematen dion boterearen gainean baizik.

VI

Diktaturaz

Haien zurruntasunak batzuetan kalte egingarri egin ditzake legeak, gogordura horrek ez dituelakotz uzten gertakarien arabera malgutzero, krisian dagoen Estatuaren hondamendia ekar baitezakete horrela. Ezen errespetuak manatzen dituen ordenak eta astirotasunak denbora bat eskatzen dute mementoko goiti-beheitiek batzuetan ematen ez dutena. Mila kasu gerta daitezke legegileak aitzinetik ikusi ez zituenak, eta baitezpadako zuhurtzia da, dena aurretik ezin ikus daitekeela aitzinetik ikustea.

Ez da komeni, beraz, instituzio politikoak hain fermuki jartzea, non haien ondorioak epe batzuetan ezin geldiaraz baitaitezke inola. Spartak berak ere bere legeak lotan utzi izan zituen.

Baina irrisku handienek baizik ezin konpentsa ditzakete ordena publikoaren aldatzetik sortu makurrak, eta aberriaren begirantzagatik soilik indargabe daiteke legeen botere sagaratua. Horrelako kasu bakan eta nabarietan, akta partikular batez, gaiena denaren eskuetan uzten da segurtasun publikoaren zaingoa. Bi moldetan eman daiteke mandatu hori, irriskua nolakoa den.

Baldin irriskuari buru egiteko aski bada gobernamenduaren ihardueraren handitzea, gizon baten edo biren baitan kontzentratzen da. Horrela ez da legeen aginpidea gutitzen, administratzeko era aldarazten baizik. Baldin legeen multzoa perilari aurre egiteko poxelu bada, ordea, goreneko buruzagi bat izendatzen da, lege guztiak mututurik jarriko dituen, eta aginpide subiranoa epe batentzat indargabetuko duena. Horrelako kasu batean nahimen orokorra nondik doan ez da dudarik, eta ageriko gauza da populuaren lehenbiziko nahikundea, Estatua ez hiltzea dela. Horretaz, aginpide legegilearen geldiarazteak ez du suntsitzen; isilarazten duen magistratua ezin mintza daiteke haren tokian; haren gainetik da, baina ezin ordezkari dezake; buruzagi honek oro egin ditzake, legeak izan ezik.

Lehenbiziko bidea erromatar Senatuak erabiltzen zuen, formula jakin baten bidez kontsulen gain uzten zuelarik Errepublikaren salbamendua; bigarrena gertatzen zen bi kontsuletarik batek diktatore<sup>50</sup> bat izendatzen zuenean; Albak eman baitzuen usaia horren exenplua Erroman.

Errepublikaren lehen denboretan maiz baliatua izan zen diktatura, zeren Estatua ez baitzen aski sendoki jarria bere konstituzioaren indarrak soilik zutik egoteko. Nola beste denbora batean beharrezkoak izanen ziren apailu bereziak behargabekoak egiten baitzituzten orduko azturek, ez zen beldurrik, diktatore batek bere aginpideaz abusurik egin zezan, ez eta epea iragan ondoan atxiki nahi izan zezan. Aitzitik, ikusirik ardura horren uzteko zer lehia zuten, iduri zuen horrelako botere handia zamatatzat zeukatela diktatoreek, legeen tokian izatea kargu neketsuegi eta perlosegia izan balitz bezala!

Horra zergatik ez den goreneko magistratura horren lehen denboretako erabilera maizegikoa abusuaren mugen iragateko irriskuagatik salatzen, baizik eta gisa horretan ahulduz eta deuseztuz joateko perilagatik. Ezen magistratura hori hauteskundeentzat, eskaintzentzat, itxurazko kontuentzat, erabiltzen zelarik, bazen irriskua behar orduetako kamuts zedin eta desegoki bihur, eta zeremonia banoentzat bakarrik baliatua baitzen, azkenean ohituraren bortxaz titulu banotzat har zedin.

Errepublikaren azken denboretan, zuhurrago izanik, diktatura gutitan baliatu zuten erromatarrek, hain arrazoin gutiz nola usatu baitzuten haraitzina. Aise zen ikustea, alabaina, haien beldurra oinarri gabekoa zela eta hiri kapitalaren ahuleziak gerizatzen eta segurtatzen zuela orduan barnean zituen magistratuen kontra; erraz zen pentsatzea, halaber, sekula libertate publikoaren mehatxatzeko ahalik izan gabe, zenbait kasutan zain ere ahal zezakeela diktatore batek, eta Erromaren burdinak ez zirela Erroman berean joko, haren armadetan baizik: Mariok Syllaren aitzinean, eta Pompeiok Zesarren aitzinean guti ihardukitzeak ongi erakustera ematen du zer igurika zitekeen barneko aginpidetik kanpoko indarrari buru egiteko.

Uste oker horrek huts handiak eginarazi zizkien. Bat izan zen, adibidez, Katilinaren auzian diktatorerik ez izendatzea; ezen, nola hiriaren barnean baizik ez baitzen agertzen arazoa, bai eta gehienez ere Italiako zenbait probintzian ere, diktadoreak, legeek ematen zioten mugagabeko aginpidea izanik, jazarketa errazki geldiraziko zuen, eta ez xantza hutsez, hala nola gertatu baitzen, zuhurtziaz horrelako baten menturan egon behar ez zelarik.

Horrela egiteko orde, Senatuak bere botere guztia kontsulei eman zien. Gisa horretan Zizeron, ondoriotsuki eta helburuen erdiesteko moduan jokatu nahiz, puntu funtsezko batean boterearen mugen iragatera bortxatua izan zen, eta hastapeneko lehen bozkario aldian haren jokamoldea onetsia izan bazen, geroago, legeen kontra isuri izan zen hiritarren odolaz kontuak eskatu zizkioten bidezki, horrelako salaketarik ezin eginen ziotelarik diktatore bati. Baina kontsularen bokantzak oro eraman zituen; berak ere, erromatar izanarren, bere ospea bere aberria baino maiteago izanik, Estatuaren salbatzeko bide legitimo eta segurena baino bilatzenago zuen egintza horren<sup>51</sup> ohore guztia. Halatan Erromaren libratzaile gisa bidezki ohoratu zuten, bai eta legeen urratzaile gisa ere bidezki kondenatu. Haren arradeitzea nahi bezain ospatsu izanik ere, ez da dudarik barkamenez gertatu zela.

Zer nahi moldetan eman dadin mandatu hori, garrantzi handikoa da, luzaezinezkoa izanik, zenbat iraunen duen ongi mugatzea. Hura ekartzen duten larrialdietan Estatuak, laster, edo suntsitua da edo salbatua, eta beharrunea iragan ondoan, diktatura tirania bilakatzen da edo alferrikako eta bano. Erroman diktadoreak sei hilabeteko epe batentzat bakarrik izendatuak baitziren, gehienek kargua epea bukatu baino lehenago utzi zuten. Epea luzeago izan balitz, beharbada haren gehiago luzatzeko gogoia izanen zuten, hala nola egin baitzuten decemvirek urteko epearentzat. Kargutan emanarazi zituen beharrari erantzuteko astia baizik ez zuten diktadoreek, eta ez zuten denborarik beste proiekturik gogoan erabiltzeko.

## VII

### Zentsuraz

Nahimen orokorraren adierazpena legearen bidez egiten den bezala, jujamendu publikoaren adierazpena zentsuraren bidez egiten da; ministroa zentsuratzaile duen lege espeziea da iritzi publikoa, eta printzeak bezala, ministroak ez du kasu partikularretan baizik aplikatzen.

Beraz, zentsura tribunala ez da populuaren iritziaren arbitroa, haren adierazlea da soil-soilik, eta hortik urruntzen den bezain laster haren erabakiak hutsal eta eraginik gabe dira.

Alferretan ari da azturak nazioak estimutan dauzkan gauzetarik bereizi nahi dituenak, zeren horiek oro printzipio berari baitatxekio, eta nahitaez bat egiten baitute. Munduko populu guztietan, iritziak ditu aukeratzen plazerak, ez naturalezak. Gizonen iritziak zuzen itzazu, eta haien azturak ere berenez xahu izanen dira. Eder dena edo hala iruditzen zaiona gustatzen zaio jendeari, eta makur ibiltzen denean jujamendu horrengatik da. Halatan, jujamendu hori da ongi moldatu eta egokitu behar dena.

Azturak jujatzen dituenak ohorea ere jujatzen du, eta ohorea jujatzen duenak iritzitik hartzen du legea.

Populu baten iritzia haren konstituzioak sorrarazten du. Arautzen ez badituzte ere, legeak sorrarazten dituzte azturak. Legeak ahultzen direnean azturak flakutzen eta pirtxiltzen dira, baina orduan legeen indarrak egin ahal izan ez duena ez du zentsoreen jujamenduak egingen.

Zentsura, halatan, azturen begiratzeko izan daiteke baliagarri, ez sekula haien berriz moldatzeko. Legeak indarrean daudeno emazkizue zentsoreak; hala ez direnean gehiago, dena galdua bezala da; legeak indarrak ez dutenean, legitimo den deusek ere ez du.

Zentsurak, iritzia korronpitzera eta usteltzera ez utziz zaintzen ditu azturak, bai eta haien zuzentasuna aplikapen zuhur batzuen bidez begiratzeko ere, eta batzuetan, oraindik segurtatzekoak direnean, hobeki finkatuz ere. Dueluetan ordezkarien baliatzeko ohitura, Frantziako erresuman aldebat hedatua izan zena, errege ediktu baten hitz hauek deuseztu zuten: Ordezkari bati dei egiteko koldarkeria dutenez. Jujamendu horrek publikoaren iritzia, aitzindurik, bat-batean finkatu zuen. Baina ediktu horiek berek, dueluan borrokatzea ere koldarkeria zela erran zutenean, arras egia izanagatik iritzi komunak alderantziz baitio, publikoak ez zuen konturik egin jujamendua jadanik moldaturik zeukan erabaki horretaz.

Beste nonbait<sup>52</sup> errana izan dut, iritzi publikoari dagozkionetan bortxarik behar ez denaz geroz, haren ordezkari den tribunalean ere ez duela honek inolako tokirik. Guztiz miresgarria da zein abilki baliatzen zuten erromatarrek, eta are gehiago lazedemoniarrek ere, modernoan artean aldebat galdua den bortxarik gabeko bide hori.

Spartako kontseiluan aztura gaiztoko gizon batek aholku zuhurra eman baitzuen, eforoek hari kasurik egin gabe aholku bera hiritar bertutetsu bati emanarazi zioten. Zer ohorea honentzat, zer ahalkea bestearentzat, alta ez batari eta ez besteari ez zitzaielarik ez laudoriorik, ez laidorik egin! Samosko<sup>53</sup> hordi batzuek eforoen tribunala zikindu zuten: biharamunean ediktu publikoz samostarrak bilau izatera haizu izan ziren. Egitate hura gisa horretan zigortu gabe uztea gogorragoa izan zen egiazko gatzigu bat baino. Spartak zer den onest, eta zer ez den, erran duelarik, Greziak ez ditu haren epaiak berriz auzitaratzen.

## VIII

### Erljio zibilaz

Lehenik gizonak ez zuten jainkoez beste erregerik izan, ez eta gobernamentu teokratikoaz beste gobernamenturik ere. Kaligularen arrazoinamendua egin zuten eta zuzen arrazoinatzen zuten. Nork bere irudikoa nekez nagusitzat har dezake, eta horretaz bere gogara egon, sendimenduen eta ideien andeamendu luzearen ondoan ez bada.

Sozietate politiko bakoitzean Jainkoa buru ematen baitzuten, aski izan zen populua bezainbat jainko izan zedin. Bi populua arrotz, eta ia beti elkarren etsai direnak, ezin atxiki dezakete luzaz ber nagusia: elkarren aurka guduak dabiltzan bi armadek buruzagi bera ezin obedi dezakete. Horrela nazio-zatiduretarik politeismoa sortu zen, eta horretarik, berriz, intolerantzia teologikoa eta zibila, gero erranen dugun bezala, gauza bera baita alabaina.

Grekoek beren jainkoak populua barbaroetan berriz aurkitzeko zuten bitxikeria, beren buruak populua horien nagusi natural kontsideratzen heldu zen. Baina franko erudizio irri egingarria da gaur egun, nazio desberdinen jainkoen identitatea ontzat ematen duena. Molok, Saturno eta Khronos jainko berak? Baal feniziarren jainkoa, Zeus grekoena eta Jupiter latindarrena ere, jainko berak? Izen desberdinak dituzten ametsezko izaki horiek zerbait komunik izaten ahal balute bezala!



Galdatzen bada, Estatu bakoitzak bere kultua eta bere jainkoak bazituelarik, nolaz ez zen erlijiozko gerlarik izan paganismoan, ihardesten dut, Estatu bakoitzak bere kultu berezia, eta halaber bere gobernamentua ere izanki, ez zituela bere jainkoak bere legeetarik bereizten. Gerla politikoa teologikoa ere zen: jainkoen eremuak, erran daiteke, nazioen zedarriek mugatzen zituzten. Populu baten jainkoak ez zuen eskubiderik beste populuen eretzeari. Paganoen jainkoak ez ziren jainko bekaitzak; beren artean munduko inperioa partekatua zuten; Moisek berak, eta populua hebreoak ere, ideia hori beretzen zuten zenbaitetan, Israelgo jainkoa aipu zutelarik. Egia da kanaandar jainkoak ezeztatzen zituztela, baina populua horiek desterratuak eta suntsitzera kondenatuak ziren, eta haien tokia hartu beharra zuten hebreoek. Ordea, beha nola mintzatu ziren auzo populuen jainkoek, debekatua baitzuten haiei oldartzea! Khamos, zuen jainkoarena denaren jabegoa, ziotsen Jeftek amoniteei, ez ote duzue hartze, zuzenez? Gisa berean geureak ditugu guk ere, gure jainko garaitzaileak beretu dituen lurak<sup>54</sup>? Iruditzen zait ezagutzen zela horrela, Khamosen eskubideak eta Israelgo jainkoarenak elkarren parean zirela.

Baina, Babiloniako eta gero Siriako erregeen menpe izanik, berenaz beste jainkorik ez ezagutu nahiz tematu zirelarik juduak, ukapen horrek, garaitzailearen kontrako jazarketa gisa kontsideratua izan baitzen, haien historian irakurtzen diren pertsekuzioak ekarri zizkien, horrelako beste exenplurik ez baita aurkitzen kristautasuna agertu artean<sup>55</sup>.

Nola bere alde zuen Estatuaren legeei bakarrik atxikia baitzen erlijio bakoitza, ez zen menderatzeaz beste biderik populuen konbertitzeko, ez eta konkistatzaileez beste misiolaririk; eta kultuz kanbiatzea garaituen legea izanik, garaitza erdietsi beharra zen horretaz solas egin baino lehen. Ez zuten gizonek jainkoentzat borrokatzen, bai, aitzitik, Homeroren obran bezala, jainkoek gizonentzat. Bakoitzak bere jainkoei garaitza eskatzen zien, eta aldare berriak eginik ordaintzen. Erromanoek toki bat beretu baino lehen, horko jainkoei lekuak huts zitzaten manatzen zien, eta tarentinoei beren jainko gaitzituak uzten zizkietenean, sinetsirik zeuden jainko horiek haienen mendean zeudela, eta haien ohoratzea behartuak zirela. Garaituei beren jainkoak uzten zizkieten, beren legeak uzten zizkieten moduan. Ez ohi zuten beste tributurik eskatzen Kapitoloko Jupiterri egin koroa bat baizik.

Azkenik erromanoek beren inperioarekin batean, beren kultua eta jainkoak ere hedatu baitzituzten, eta berek ere anitzetan garaituen jainkoak, batzuei eta besteei beren tokia utzirik, bere egin baitzituzten, piskanaka ezin konta ahaleko jainkoak eta kultuak izan zituzten inperio zabal horretako populuek, toki guztietan berdintsuak zirelarik. Orogen buruan, molde horretan izan zen paganismoa mundu ezaguneko erlijio bakarra, orotan berdina.

Egoera horretan jin zen Jesus lurrean erresuma izpiritual baten finkatzera. Honelatan sistema teologikoa sistema politikotik bereizirik gelditu baitzen, Estatua ez zen gehiago bat izan, eta geroztik populua giristinoetan sekula jabaldu ez diren barneko nahasmenduak izan ziren. Ordea, nola beste munduko erresuma horren ideia ez baitzen inoiz sartu paganoen buruetan, hauek giristinoak egiazko jazarletzat jo zituzten, pentsatuz, manakortasun hipokrita baten itxuran, independente eta nagusi izateko paradaren aurkitzea zutela helburu bakarra, eta haien ahulezia zela-eta alegia errespetatzen zuten aginpidea abilki usurpatu nahi zutela. Hori izan zen pertsekuzioen kausa.

Zeren beldur izan baitziren paganoak, eta huraxe gertatu zen. Orduan, dena beste itxura batean agertu zen, giristino umilek beste mintzamolde bat hartu zuten, eta laster, beste mundukoa zelako erresuma hori, batere ezin ikusizkoa ez zen buruzagi baten pean, despotismo bortitza izan zen mundu honetan berean.

Hala eta guztiz ere, nola betidanik printzeak eta lege zibilak izan baitira, botere bikoiztasun horrek jurisdikzio aurkaritza iraunkor bat sortu izan du, sekula ez baita politika egokirik aurkitu ahal izan Estatu giristinoetan, eta inoiz ez baita jakin ahal izan, bietarik zein obeditu beharra zuten jendeek, apaiza ala nagusia.

Populu batek baino gehiagok nahi izan du, hala ere, European berean, edo inguruetan, sistema zaharra atxiki edo berriz indarrean eman, baina ez dute egin ahal izan. Giristinotasunaren izpiritua orotara zabaldu da. Estatuaren gorputzarekin lotura ezin hautsizkorik izan gabe eta subiranotik berex egon da beti, edo berriz horretara itzuli da, kultu sagaratua. Mahometek ikusmolde sanoa izan zuen. Bere sistema politikoa osoki lotu zuen, eta haren ondokoak izan ziren kalifen denboran iraun zueno, guztiz bat izan zen hark finkatu gobernamentua, alderdi horretarik on eta egoki zelarik. Baina arabeak aberasturik, jakintsun bilakaturik, kortesia ikasirik, beratz eta koldar bihurturik, barbaroen menpe gertatu ziren; orduan bi botereen arteko zatiketa berriz izan zen. Nahiz ez den mahometanoen artean giristinoen artean bezain agerikoa, hor dute beti bereizkuntza, Aliren sektan oroz gainetik, eta badira Estatuak, hala nola Persia, haietan zatiketa horren ondorioak beti eta gehiago sendi baitaitezke.

Gure artean, Ingalaterrako erregeek beren burua Elizaren buruzagi egin dute, tsarrek ere hala egin dute, baina titulu horrekin ez dira hala elizaren nagusi jarri, nola elizako ministroak egin baitira; ez dute haren aldatzeko eskubidea irabazi, haren begiratzeko boterea baizik. Eliza gizonek gorputz bat<sup>56</sup> eratzen duten orotan hura da bere sailean nagusi eta legegile. Beraz, Ingalaterran eta Errusian ere, beste guztietan bezala, bi potentzia, bi subirano, badira.

Autore giristino guztien artean Hobbes filosofoa bakarra da gaitza eta sendagailua, biak, ikusi dituen; arranoaren bi buruen bateratzea proposatu du, bai eta politika batasunean ororen biltzea ere, batasun hori gabe inoiz ez baita, ez Estaturik, ez gobernamenturik, ongi eratuko. Baina, giristinotasunaren izpiritu menperatzailea haren sistemarekin elkargaitz zela, eta apaizaren interesa Estatuarena baino indartsuagoa beti izanzen zela, ikusi behar izan du. Halatan haren politika hain higuin<sup>57</sup> agertarazi duena ez da hainbeste izan hartan faltsu eta izigarri zena, nola egia eta zuzena zena.

Uste dut gertakari historikoak ikusmolde horren arabera aztertuz, Warbutonek eta Baylek dituzten elkarren aurkako sendimenduak errazki ezeztatu genitzakeen, bata baitio ezein erlijio ez dela gorputz politikoarentzat on, eta besteak baitio, alderantziz, giristinotasuna duela gorputz politikoak zurkaitzik sendoena. Froga geniezaioke lehenbizikoari sekula Estaturik ez dela eratu erlijioa oinarritzat hartu gabe, eta bigarrenari, giristino legeak probetxu baino kalte gehiago egiten diola funtsean Estatuaren izaeraren sendotasunari. Ondarreraino ulertua izan nadin, aski izanzen dut ene gaiari buruz ilunegi diren erlijio ideiez argitasun eta zehaztapen batzuen ematea.

Edo orokorra edo partikularra den gizartearen eretzeari kontsideraturik, erlijioa ere bi motatan zati daiteke, alde batetik gizonaren erlijioa bereiziz, eta bestetik hiritarrarena. Lehenbizikoa, tenplurik, aldarerik eta erriturik gabekoa, eta jaungoikoarenganako otoitz isiletan eta moralaren betiereko eginbideetan mugatzen dena, Ebanjelioko erlijio soil da, besterik gabe, erran nahi baitu, egiazko teismoa, jainkozko zuzenbide naturala deitzen ahal dena. Bigarren erlijio mota herri bakar batean jarria da, eta honi bere jainkoak, bere patroik berezkoak eta babestaileak ematen dizkio. Bere dogmak baditu, bere errituak, legeak arautu bere kanpoko kultura; jarraitzen zaion nazioaz lekora, oro fedegabeak, arrotz, barbaro dira harentzat; giza eginbideak eta giza eskubideak, aldareak eraikitzen dituen tokietan baizik ez ditu ezagutzen. Horrelakoak izan ziren lehenbiziko populuen erlijioak, erran baitaiteke haietaz, jainkozko zuzenbide zibil edo positibo bat zutela.

Bada hirugarren erlijio mota bat, bitxiago dena. Gizonei bi lege, bi buruzagi, bi aberri emanik, elkarren aurka diren bi eginbideren azpiko ere egiten ditu, halako gisaz non jendeak ez baitaitezke ber denboran izan jainkotiar eta hiritar. Halakoa da lamen erlijioa, japoniarrena, eta Erromako giristinotasunarena ere. Honi Apaizaren erlijioa erraten ahal zaio. Hartarik izenik gabeko zuzenbide misto, gizartearentzat guztiz desegokia den bat sortzen da.

Hiru erlijio mota horiek politikaren alderditik kontsideratuz, hiruek akatsak badituzte. Hirugarrena hain da txarra non denbora galtzea bailitzateke horren frogatu nahiz jostetan ibiltzea. Gizarte batasuna hausten duenak ez du deus balio. Gizona bere buruaren kontra jartzen duten instituzioek ez dute ezer balio.

Bigarren erlijioa ona da, zeren Jainkoaren kultua eta legeen amodioa bateratuz, eta aberria jendeen gurtzearen objektu bihurtuz, Estatuaren zerbitzatzea, jainko babestailearen zerbitzatzea dela irakasten baitie hiritarrei. Teokrazia gisako zerbaite da, hartan ez baitu inork printzeaz beste apezpikurik izan behar, ez eta magistratuez beste apaizik ere. Orduan herriarentzat hiltzea martiriora joatea da, legeen urratzea fedegabekeriaren marka da, eta hobenduna gaitzespen publikoaren bidez kondenatzea jainkoen haserreari eskaintzea da; sacer estod.

Baina erlijio hori txarra ere da, zeren, gezurraren eta hala ez denaren gainean eraikia izanik, gizonak engainatuz sineskor eta superstizios egiten baititu, eta jainkoaganako kultu egiazkoa zeremonia ezdeusetan itotzen baitu. Halaber txarra da, erlijio eskusibo eta tiraniko bilakatuz, populuak odolzale eta tolerantziagabekoak izatera bulkatzen dituelakotz, halako gisaz non, azkenean, hauek sarraskiak eta giza eraiteak baizik ez baitituzte gogoan, eta uste baitute, haien jainkoak onartzen ez dituzten guztiak hilez, egintza sailduak egiten dituztela. Ondorioz, halako populuak berezko gerla egoeran gertatzen dira beste populu guztien aitzinean, arras kalte egingarria baita haien segurtasunarentzat berarentzat ere.

Gizonaren erlijioa edo giristinotasuna gelditzen da, beraz; ez gaurko kristautasuna, Ebanjeliokoa baizik, hau, guztiz bestea ez bezalakoa delarik. Erlijio saildu, ezin hobe, egiazko horren bidez, jainko beraren haurrak dira gizonak, elkarren anaiak, eta lotzen dituen elkartasunak hil ondoan ere irauten du.

Ordea, gorputz politikoarekin harreman berezirik ez baitu, erlijio horrek legeak beren berezko indar soilarekin uzten ditu, ezer ere gaineratu gabe haien sendotzeko, molde horretan gizarte partikularren lokarri garrantzizkoenatarik bat ez baita baliatua, eta ondoriorik gabe gelditzen baita. Are gehiago dena, hiritarren bihotzak Estatuari hurbilazteko orde, hartarik urruntzen ditu, lur honetako beste gauza guztietarik bezala: ez dut deus ezagutzen gizarte izpirituen kontrakoago denik.

Erraten digute egiazko giristinoz osatu populu batek asma daitekeen gizarterik perfektuena era lezakeela. Suposizio horri korapilo askagaitz bat baizik ez diot ikusten: egiazko giristinoz osatu gizarte bat ez litzateke gehiago jende gizartea.

Erraten dut oraino, suposiziozko gizarte hori bere perfektutasun guztian ez litzatekeela, ez indartsuena, ez iraunkorrena. Perfektu izanaren bortxaz, lotura eskasekoa litzateke; haren bizio galgarria haren perfektutasunean berean letzake.

Bakoitzak bere eginbidea egin lezake; populu legeen peko litzateke; buruzagiak zuzen eta zuhur lirateke, eta magistratuak onest eta erosezinak; soldadoek herioa mespretxa lezakete; ez litzateke ez handinahikeriarik, ez bonbaziarik. Horiek oro arras ongi. Goazen ikus urrunago, halere.

Giristinotasuna osoki izpirituala den erlijioa da, zeruko gauzez bakarrik axola duena; ezen giristinoaren aberria ez da mundu honetakoa. Bere eginbidea egiten du, egia da, baina, egiterakoan, orobatasun handiena erakusten du bere egintzen ondorio onei edo txarrei buruz. Deus hobetik ez duen ber, berdina zaio denak gaizki ala ongi doazen

mundu honetan. Baldin Estatua aberatsa bada, doi-doia atsegin hartzen du zorion publikoaz, beldur baita bere herriaren ospeaz urguilutan sar. Estatua gaizkituz badoa, berriz, haren populua hersturan atxikitzen duen jainkoaren eskua benedikatzen du.

Gizartea baketsua izan dadin, eta harmoniak iraun dezan, hiritar guzti-guztiek, salbuespenik gabe, modu berean giristino onak izan behar lukete. Baina, zorigaiztoz, handinahiak harturiko bat bakarrik, hipokrita bat bakarrik, Katilina bat, adibidez, edo Cromwell bat, hor gertatzen bada, axola guti izanen du hark bere aberkide otoizkariez. Neke da giristino karitateari uko egin gabe lagun hurkoaz gaizki pentsatzea. Demagun, ordea, horrelako bat agertzen dela. Honek, zenbait jukutriari esker, larderia izateko eta aginpide publikoaren parte batez jabetzeko artea izan baitu, ospe handitan berehala aipatua da, eta halakoa errespetatua izan dadin nahi du Jainkoak. Handik laster, potentzia bilakatu da delako gizona, eta obeditua izan dadin nahi du Jainkoak. Botere horretaz abusatuz gehiegikeriarik egin nahi ote du? Bego, bere haurren zigortzeko Jainkoak darabilen azotea da-eta. Usurpatorearen haizatzeko gogo har baleza batek kontzientziaz, bake publikoa galarazi behar luke, bortizkeria erabili, odola isurarazi, horiek oro gaizki baitagozkio giristinoaren eztitasunari. Eta funtsetara-eta, zer munta du garen libro ala esklabo oinazeko ibar honetan? Paradisuaren irabaztea da beharrena, eta etsia eta jasaitea, zeruaren erdiesteko bide bat gehiago baizik ez da.

Zenbait gerla sortzen ote da arrotzen aurka? Hiritarrak gogo onez ateratzen dira gudura, bihi batek ere ez du ihes egin gogo, beren eginbidea konplitzen dute, baina garaitzeko nahikeriarik eta grina bizirik gabe; hobeki dakite biziaren uzten, kentzen eta garaitzen baino. Garaitzaileak ala garaituak izan daitezen, zer axola du? Probidentziak ez ote daki haiek baino hobeki zer komeni zaien? Gogoeta egin bedi etsai ausart, oldartsu, bihoztun batek nola balia dezakeen haien estoikotasuna eta pairakortasuna! Emazkiezue aitzinean, aberriaren eta ospearen amodio gartsuak zerabiltzan populu bulartsu haiek, jar ezazue zuen errepublika giristinoa Sparta edo Erromaren aurka; garaituak, lehertuak, suntsituak izanen dira giristino otoizkariak, gertatzen zaienaz konturatu baino lehen, edo etsaiak haien aldera dukeen mespretxuari zor izanen diote beren salbamendua. Zin ederra izan zen, ene gustuko, Fabioren soldadoena: garaitzaile izanik gibelera itzultzeko zin egin zuten, eta hala egin zuten. Sekula giristinoek ez zuten horrelako zinik eginen; Jainkoa desafiitzen zutela uste izanen zuket.

Baina makur mintzo naiz errepublika giristinoa aipatuz; bi hitz horiek elkar kanporatzen dute. Giristinotasunak menekotasuna eta dependentzia baizik ez du predikatzen. Haren izpiritua sobera tiraniaren alde da, honek horretaz sekula probetxurik ez ateratzeko. Egiazko giristinoak esklabo izateko eginak dira; badakite hala dela eta ez dira arrangura; haien begietan, bizitze labur honek ez du aski balio.

Erranen digute gudari talde giristinoak arras onak badirela. Ezetz diot nik. Baldin inon horrelakorik bada, erakuts biezadate bat! Ez dut nik gudari talde giristinorik ezagutzen. Gurutzadak aipatuko dizkidate. Gurutzedunen balioaz eztabaidan ari izan gabe, ohartaraziko dut, giristino izatetik urrun, apaizaren soldadoak zirela haiek; elizako hiritarrak ziren; honen izpirituzko herriarentzat borrokatzen ziren, nahiz elizak, inork ez jakin nola, lurtar bilakarazi zuen herri hura. Ongi ulertuz gero, hori paganismoan sartzen da; nola Ebanjelioak ez baitu erlijio nazionalik sortzen, gerla sagaratuak ezinezkoak dira giristinoentzat.

Enperadore paganoen denboran gudari giristinoak bihotzoiak ziren; autore giristino guztiek hori segurtatzen digute, eta hala zela sinesten dut: gudari talde paganoen kontrako ohorezko emulazioa zen. Enperadoreak giristino izan ziren bezain laster, haatik, emulazio hori itsabasi zen, eta gurutzeak arranoa haizatu zuenean, bihotzoitasun erromatarra itzali zen.

Baina kontsiderazio politikoak utzirik, itzul gaitezen zuzenbidera, eta finka ditzagun garrantzizko puntu horri buruzko printzipioak. Gizarte paktuak menekoen gainean subiranoari ematen dion eskubidea, erran dudan bezala, ez doa baliagarritasun publikoaren<sup>58</sup> zedarrietarik harago. Menekoek subiranoari beren iritziez ez diote konturik eman behar, komunitateak iritzi horietaz axola duen neurrian baizik. Eiki, axola zaio Estatuari bere eginbideak maitarazten dizkion erlijioa izan dezan meneko bakoitzak; ordea, erlijio horren dogmek moralari datxekzion puntuak eta fededunari besteen aldera sorrarazten dizkioten eginbideak hunkitzen dituzten neurrian baizik ez dute Estatuak eta haren partaideek zerbaite ikustekorik haietan. Gaineratikoetan bakoitzak plazer dituen iritzia izan ditzake, subiranoak horretaz ezer jakin behar ez duelarik. Nola beste munduko gora-beheretan eskurik ez baitu Estatuak, ez da haren egitekoa, haren menekoak bizitze honetan hiritar behar bezalakoak diren ber, etorkizun duten bizitzean zer egingen diren kontu edukitzea.

Bada, beraz, osoki zibila den fede aitormen bat, subiranoaren eginkizuna baita haren artikuluen finkatzea, ez hain zuzen erlijio dogma gisa, gizartekotasunezko sendimendu gisa baizik, horrelakorik gabe inor ezin izan baitaiteke, ez hiritar ona, ez meneko leiala<sup>59</sup>. Inor artikulua haien sinestera eta beretzera behartzen ahal ez badu ere subiranoak, sinesten ez dituen, nornahi izan dadin, Estatutik haiza dezake, eta hartan egotetik debeka, ez fedegabe delakoan, bai ordea ezin gizartekotuzkoa delakotz, legeak eta justizia zinez ezin maita ditzakeelakotz, eta, beharrez, eginbideak hala mana baliezaio biziaren ematera prest ez litzatekeelakotz. Dogma horiek publikoki ontzat eman ondoan, sinesten ez balitu bezala jokatzeko bada bat, hiltzea izan bedi haren zigorra; krimenik handiena egin du, legeen aitzinean gezurra erran du.

Erlijio zibilaren dogmek sinple eta kopuru tipian izan behar dute, esplikazio eta iruzkinik gabe xeheki erranak. Jainko ongile, zuhur, emaile, adimendudun eta ahaltsua izatea, hil ondoko bizia, justuen zoriona, gaitzegileen gaztigatzea, legeen eta gizarte hitzarmenaren saindutasuna, horra zein diren dogma positiboak. Dogma negatibo bat baizik ez dut ematen: intolerantzia; baztertu ditugun kultuetan sartzen da.

Ene aburuz, intolerantzia zibila eta intolerantzia teologikoa elkarretarik bereizten dituztenak makurrean dira. Bi intolerantzia hauek elkarretarik ezin bereizizkoak dira. Ezin bizi daiteke bakean ustez infernura kondenatuak direnekin; zigortzen dituen Jainkoaren hastiatzea litzateke halakoen maitatzea. Absolutuki bide onera ekarri behar dira, edo oinaztatu. Intolerantzia teologikoa onartua den toki guztietan, ondorio zibilak<sup>60</sup> ere baditu, ezinezkoa da bestela gertatzea; eta horrelako ondorioak agertzen hasten direnean, subiranoa ez da gehiago subirano, ez lur honetako arazoetan ere. Orditik aitzina, apaizak dira egiazko nagusiak; erregeak haien mandatariak dira.

Gaur egun erlijio nazional eksklusiborik ez da gehiago, eta ezin izan daiteke. Halatan, haien dogmak hiritarraren eginbideari ezertan kontra jartzen ez zaizkion ber, gaineratiko erlijioak onartzen dituzten erlijio guztiak onartu behar dira. Ordea, Elizatik kanpo ez da salbamendurik erratera ausartatuko dena, nornahi izan dadin, estatutik ohildua izan behar da, non ez den Estatua bera eliza, eta printzea apezpikua. Horrelako dogma bat gobernamentu teokratikoetan baizik ez da egoki, beste edozeinetan kalte egingarria da. Henri IV.ak erlijio erromanoaren hautatzeko izan omen zuen arrazoinak, erlijio hura utzarazi behar lioke edozein gizon konpluturi, eta bereziki arrazoinatzen lekikeen edozein printzeri.

## IX

### Ondar-hitza

Zuzenbide politikoaren egiazko printzipioak jarri ditut eta Estatua oinarri horretan finkatzera entseiatu naiz. Zuzenbide hori kanpoko harremanen arabera zehaztu behar litzateke oraino, beste anitz puntu kontuan harturik horretako: jendeen zuzenbidea,

merkataritza, gerlako zuzenbidea, konkistak, zuzenbide publikoa, ligak, negoziazioak, traktatuak, etabar. Baina horiek orok eremu zabalegia estaltzen dute ene bista laburrarentzat; begiak beti hurbilagoko gauzetan atxikiz hobeki egingen nukeen.

Akabantza